

+



Janire Lamariano
kimikariari
elkarrizketa

Debagoieneko
ekonomiaren
erradiografia



KORRIKA DATORRENERAKO LANEAN

Eragileak eta norbanakoak hasi dira lanean, herririk herri batzordeetan, apirilaren lehenean Korrika Debagoienera heltzen denerako / 2

Debagoieneko Korrikako eta AEK-ko kideak, atzo, eguna, Arrasaten, aurtengo Korrikako karteekin eta jantziekin. JAGOBA DOMINGO

Torturen testigantzak, lehen pertsonan eta gordin kontatuta, Torturaren Aurkako Eguna dela eta / 4

Arrasateko TAOn aldaketak iragarri ditu Gobernuak, eta "hausnarketa" eskatu du oposizioak / 11



Europatik ia milioi bat euroko laguntza jaso du Arrasateko Udalak hiru proiektutarako / 10

Iñaki Serrano eibartarrak irabazi du Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketako saria / 40

SINADURAK

 AGURNE JULDAIN / 8	 ONINTZA LEGORBURU / 30
 JOSU ZUGASTI / 12	 RAMON MARTIN / 35
	 ANE ZUAZUBISKAR / 48

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOIA



TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70





Debagoieneko AEK eta Korrikako ordezkariak, egunean, Arrasaten, AEK Euskaltegian. JAGOBA DOMINGO

Berotze lanetan, Korrikari ekiteko

49 egun barru iritsiko da 22. Korrika Debagoienara, eta eragile eta norbanakoak hasi dira lanean. Herri batzuetan osatu dira batzordeak jada, eta hurrengo astean emango dute pausoa gainerakoek. Kilometroak diruz laguntzeko aukera ere zabalik dago

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Martxoaren 31n irtengo da 22. Korrika Amurriotik eta apirilaren 10ean iritsiko da Donostiako alde zaharrera. Ibilbide horretan, euskararen aldeko martxak Debagoieneko bost herri zeharkatuko ditu: Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga. Apirilaren 1ean, egubakoitz eguerdian, hartuko dute testigua korrikalari debagoiendarrek.

Oraindik hilabete eta erdi falta den arren, dagoeneko eragile eta norbanakoak hasi dira presaketan lanean. Eraturta dago bailarako lantalde nagusia: Ikuska Lizarralde koordinatzaileak eta AEK-ko langileek osatzen dute. Lizarralde azaldu duenez, kide bakoitzak hartu ditu "dagozkion ardurak" eta "gogotsu" daude lehenbailehen hurrengo urratsak egiteko.

Lizarralde berria da koordinatzaile lanetan; aurtengo urtera arte ez du Korrika "barrutik" bizi izan: "Oso hunkigarria da Korrika niretzat, eta indar handia eman dit beti. Orain aukera izango dut atzean dagoen lana ikusteko eta antolakuntzaren esperientzia bizitzeko". Eibartarra da Lizarralde, baina Elgetan bizi da azken zazpi urteetan. "Gure hizkuntzaren alde egiteko gai garenaren adierazleeta bat da Korrika. Prestutasunez, pozik, nago nire alea jartzeko; badakit bide honetan asko ikasiko dudala", dio.

HERRIETAN HASI DIRA BATZORDEAK SORTU ETA BILERAK EGITEN; LEINTZ GATZAGAREN TXANDA DA GAUR

Herrietako batzordeak, martxan

Behin lantalde nagusia sortuta, hurrengo pausoa herrietako batzordeak deitzea izan da; herrietan herri bakoitzean egingo diren ekimenak adosten dira, besteak beste. Hain justu, aste honetan egin dira lehenengo bilerak. Bergaran martitzenean batu ziren, eta hilaren 22an egingo dute bigarrena. Eguaztenean, berriz, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan elkartu ziren, eta gaur Leintz Gatzagaren txanda izango da (19:00etan Labidean). Gainerako herrietan hurrengo asterako jarri dituzte hitzorduak: Oñatin astelehenean (18:00etan Kultura etxean), eta, eguaztenean, hilak 16, Elgetan (18:30ean udaltxean) eta Aramaion (18:00etan udaltxean). Batzordeak hamabostean behin batuko direla aurreratu du koordinatzaileak, eta azaldu du "erabat irekiak"

direla: "Askotan ematen du jende jakin batentzako direla bilera horiek, baina interesa duen ororentzako dira. Etorri, parte hartu, hitz egin, proposatu... Norberaren alea oso garrantzitsua da". Lizarralde gehitu du zenbat eta herritar gehiago batu, "orduan eta zabalagoa" izan daitekeela Korrikaren bueltako egitaraua.

Ibilbide ofizialekin kanpo

Esan bezala, ibilbide ofizialak ibarreko bost herri zeharkatuko ditu. "Beste urte batzuetan ibilbidea luzeagoa izan da, baina horrela tokatu da aurten. Uler-tu egin behar da antolaketa oso zaila izaten dela", esan du, herritarak mintu daitezkeelakoan. "Osintxuko mugan hartuko dugu testigua, eta ondoren, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza zeharkatuko ditugu, Leintz Gatzagara iritsi arte", azaldu du koordinatzaileak. Nolanahi ere, ibilbidetik kanpo geratzen diren herriei aukera emango zaie bide ofizialeko zatiak egiteko: "Esan bezala, ezinezkoa da herri guztietatik pasatzea, baina badaude kanpoan geratu diren herrietako beste aukera batzuk ere. Batzordeetan adostuko dira guztiak". Izan ere, Lizarralderen esanetan, Korrika ez da bakarrik –egun jakin batean eta eremu zehatz batean– lasterka egitera mugatzen; Korrika kulturalaren txapelpean ere, hamaika ekintza egiten dira herrietan: "Ikusiko dugu ea herri bakoitzean zein gogo eta indar dagoen; horren arabera izango dira antolatuko diren ekintzak".

Ekintzekin eta 'Hitzekin'

22. edizio honetako leloa *hitzekin* da. Egitasmoaren antolatzaileek azaldu dutenez, hizkuntza hitzekin osatzen da, baina ekimenez eraikitzen omen dute hizkuntza baten komunitatea: "Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak". Hala, jokoa eginez, *hitza* eta *ekina* uztartu nahi izan dituzte oraingoan.

MODU UGARI DAUDE EGITASMOARI EKARPENA EGITEKO; ADIBIDEZ, 'KORRIKA LAGUN' IZATEA

Bestetik, aurtengo omenduak Pirritx (Aiora Zulaika), Porrotx (Joxe Mari Agirretxe) eta Marimotots (Mertxe Rodriguez) izango dira. 1987an hasi zuten ibilbidea, eta ordutik, sudur gorria jantzita aritu dira euskararen alde. Antolatzaileek adierazi dutenez, 34 urte hauetan, pailazoek "zuzeneko eragina" izan dute ume eta guraso askok euskararen hautua egin dezaten: "Beren komunikazio-tresna hitzekin osatu dute, ekimen erakitzailerak eta normalizazioaren adibide da haiena. Beren ikuskizun eta kanten bidez, egin, eginarazi eta eragin dute".

Diruz laguntzeko aukerak

Korrikaren helburuak "euskararen aldeko kontzientzia suspertzea" eta "euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea" izanik, asko dira ekarpena egiteko moduak. Batzordeetan eta antolaketa lanetan laguntzea da bat, baina baita diru ekarpenak egitea ere.

Kilometroak diruz laguntzea da aukeretako bat; hots, ibilbide ofizialeko kilometroak egiteko ekarpena egin dezakete eragileek. Baita, *korrikadebagoiena@gmail.com* helbidera idatzi behar da eskaera egiteko –martxoaren 21a baino lehen, ahal bada–, eta ondoren, Debagoieneko Korrika batzordeak erabakiko du horiek non eta nola banatu.

Horrez gain, *Korrika Laguntzailea* eta *Korrika Laguna* izateko aukera ere badago. *Korrika Laguntzaileak* bi urtetan 12 euroko ekarpena egiten duela azaldu du Lizarralde: "Norbanako horiek abantailak dituzte dendetan eta kultur jardueretan, eta besteak beste, zozketetan parte hartzen dute". Bestetik, *Korrika Lagunak* komertzioak edo tabernak izan daitezke: "Nahi duten diru-ekarpena egiten dute eta pegatina bat izaten dute lokalean bertan, laguntza ematen dutela adierazteko". Bukatzeko, Korrikaren materiala ere erosi daiteke; bai *online* dendan (*korrika.eus*) eta bai herrietan jarriko diren denda fisikoetan ere; batzordeek erabakiko dute noiz eta non jarriko diren horiek.

Hala, Ikuska Lizarralderen eta Korrikaren gainerako sustatzaileen mezua argia da: *Hitzekin* edo ekintzekin izan, "herritar guztiek har dezakete parte" euskararen aldeko egitasmoan.

Zubillagako hiltegiak %25 gehiago fakturatu du

Urte ona izan zen iazkoa Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zatitze Zerbitzuarendako. Laudioko hiltegia itxi izanak bezero berriak ekarri dizkio Araba zein Bizkaitik. Ondorioz, fakturazioa %25 igo da; lan taldea egonkortu eta instalazioak berritu ditu

Eneko Azkarate Laspiur ZUBILLAGA Hazkunde urtea izan zen iazkoa Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zatitze Zerbitzuak enpresarentzat. Gorakada horren adierazle, %13ko hazkundera izan zuen ekoizpenak, %20koa zerbitzua eskaintako ustiategi kopuruak, eta %25ekoa, berriz, fakturazio totalak.

Arduradunek adierazi dute, barrura begira "egonkortze" urtea izan dela 2021a, 25 laguneko lan-taldea mantentzeaz gain, harrera, bulego eta aldagela berriak estreinatu zituztelako iaz.

1.101 ustiategitatik ekarritako animalietatik 1.635.203 kilogramo kanaleko ekoiztu ziren 2021ean Zubillagako hiltegian, ia herena (603.271 kg/kanal) Eusko Label zigiluarekin.

Beste lurralde batzuetatik

Abelgorriak, zaldiak eta ardiak hiltzen eta zatitzen dituzte Zubillagako hiltegian. "Laudioko hiltegiaren itxieraren ondorioz, Bizkaiko eta Arabako bezeroen gorakada izan da", adierazi dute ohar bidez Zubillaga-Oñati Hiltegi eta Zatitze Zerbitzuetako arduradunek.

Bezero gehiagori "kalitatezko zerbitzua" eskaintzea logistika aldetik erronka "garrantzitsua"



Langile bat Zubillagako hiltegian. ZUBILLAGAKO HILTEGIA

EKOIZPEN EKOLOGIKOARI DAGOKIONEZ, 2020KO DATUEI EUTSI EGIN DIE HILTEGIAK 2021EAN

izan zela aitortu arren, fakturazioan eragin zuzena izan zuen bezeroen gorakadak: %25ean hazi zen 2021ean. Hori guztia kontuan izanda, oro har, urteko balantzea "positiboa" izen zela adierazi dute arduradunek.

Bestalde, ekoizpen ekologikoari dagokionez, 2020ko datuak mantendu egin dira 2021ean, 54.000 kg/kanaleko datua mantenduz, eta aldiz Eusko Label zigilua duen haragiaren ekoizpenak %27ko hazkundera izan du, 603.271 kg/kanaleko datuarekin urteko ekoizpen totalaren %37a suposatzen duelarik, bereziki Laudiotik iritsitako bezero berriei esker.

2021ean izandako hazkunderik handiena behi eta ardi hazientetan izan da, eta honek eragin zuzena izan du zatitze zerbitzuan.



Langile bat, bere jardunean, Fagor Arrasaten. FAGOR ARRASATE

"Jauzi teknologikoa" Fagor Arrasatek, Danobat Taldearekin

Altzairua eta aluminioa prozesatzeko bere lerroetan, laser bidezko ebaketa sartu du Arrasateko kooperatibak

E.A.L. ARRASATE

Material metaliko eta konpositean konformatu eta prozesatzeko soluzioen garapenean diharduen Fagor Arrasatek jauzi teknologikoa eman du bere jardunean. Laser bidezko ebaketa-teknologia gehitu dio bere prozesuari, eta bobina metalikoak ebakitzeko eta prozesatzeko lerroetan egungo jarduerak "osatu" ditu.

Mondragon Taldeko kide ere baden Danobatgroup-ekin elkarlanean egin du jauzi hori. Fagor Arrasatek -Industria Automatizazioa- eta Danobatgroup-ek -Makina Erreminta- "merkatuan lehiakortasunean irabazteko duela urte batzuk" hasitako lankidetzaren emaitza da teknologia gehitu izana. Beren hitzetan, merkatura eskaintza "osatuago eta berritzaileago" batekin sartzeko aukera eman gogor die.

Jarduera hori "osatuta", bere gaitasun teknikoari "bultzada handia" eman die kooperatiba arrasatearrak. Honela, 2024an 10-15 milioi euroko salmenta gehigarriak eragin dezakeela aurreikusten dute.

Laser bidezko ebaketa

Bobinatik abiatutako laser bidezko ebaketa-lineak, prentsa bidezko ohiko ebaketa-lerroen alternatiba dira, ekoizpen-kapazitatea handirik behar ez duten merkatu-segmentu jakin batzuetan, esaterako, elektro-mugikortasunak sortzen dituen nitxo berrietan.

TEKNOLOGIA BERRIARI ESKER, 15 MILIOI EUROTAN HANDITU DITU SALMENTAK

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Salbuespenik gabe.



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ARABA
945 712 822

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

NAFARROA
848 870 917



Arrano tabernan, Julen Artzuaga entzuten; aurrean, Xabier Arregi eta Eukene Gracia. J.I.

Torturarekin lotutakoak, lehen pertsonan esanak

Domekako Torturaren Aurkako Eguna dela-eta, solasaldia egin dute Bergarako Arranon, Sortuk antolatuta eta Julen Artzuaga legebiltzarkidea eta Eukene Gracia eta Xabier Arregi herrikideak hizlari; testigantzak eman zituzten Graciak eta Arregik

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Hasteko, Euskal Herriarekin lotuta, torturaren inguruko ibilbidea egin zuen EH Bilduko legebiltzarkide Julen Artzuagak kontakizunean. "Torturatzailen inpunitatea" izan zuen hizpide, eta baita, adibidez, nola murriztu zen inkomunikazio aldia hamar egunetik bostera "sasi-demokrazia" deitu zuenaren iritsierarekin, eta horrek ekarri zuela metodo aldaketa, oro har: bainuontziaren ordez, poltsa; elektrodoak beharrean, muturreko ariketa fisikoak; eta kolpeen lekuan, mehatxuak. Bost egunek ez zutelako zauriak sendatzeko eta tortura zantzuak desagerrarazteko denborarik ematen, Artzuagak azaldu zuenez.

Europako erakundeek torturarekin lotuta Espainiari buruz esandakoak gogora ekarri zituen, eta baita torturatuak izandako 4.113 euskal herritar zerrendatu zituen Paco Etxeberriaren txostena ere.

Graciaren kontakizuna

Eukene Gracia 1991ko otsailaren 16an atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta atxilotu orduko, automobilean, izterretan deskargak egin zizkietela azaldu zuen: "Intxaurrondon deskargekin jarraitu zuten, bularretan, baginan, oin azpitan... Halako batean, konortea galdu nuen; ez dakit zenbat denboraz egon nintzen horrela. Itzuli zitzaidanean, tipo batek, ze ez dakit medikua izango ote zen ere, auskultatu egin ninduen, pultsua hartu zidan, eta esan zien ez zezatela deskargekin jarraitu. Ziega ñimiño batera eraman ninduten, estua eta iluna, eta, han, ileetatik tiraka jaikiarazten ninduten, hormaren kontra jotzen ninduten, irainak, gutxiespenak... emakume izatearekin lotuak".

Donostiatik Madrilera bidea, berriz, horrela deskribatu zuen: "Uneoro, burua hanka artean eta pistola garondora apuntatuz, kulatarekin kolpatuz, irainduz... Ibilbide horren oroitzapena da

tentsio izugarria nuela gorputzean, hainbestera inokoa, min ematen baitzuen". Madrilera iristean, poltsarekin hasi ei zitzaizkion: "Poltsaren sentsazioa latza da. Ezin duzu arnasarik hartu. Eta nahiz eta, agian, zuk pentsatu hiltzeko ueña dela, gorputzak erreakzionatu egiten du, poltsa apurtu, bi jartzen dizkizute, aurpegia bustitzen dizute poltsa itsasteko, sudurra estutzen dizute arnasa bizkorrago galtzeko...".

Carabancheleko espetxera eraman zutenean, mediku azterketa egin zioten: "Bihotzean murmurioa nuela azaldu zen, sudurra lehertuta, aurpegia kolpeengatik erabat hazita, hanka behatz txikia apurtuta, erre-

"MURMURIOA NUEN BIHOTZEAN, SUDURRA LEHERTUTA, AURPEGIA HAZITA, BEHATZ TXIKIA APURTUTA..."

dura ugari oin eta bular azpitan...".

Graciak azaldu zuen torturaren ondorioak ez direla gaintitzen, "haiekin bizi" behar dela: "Kideak entzuten ditudanean torturen testigantzak ematen, berriz ere bizi izatea moduan da niretzat. Pelikuletan ere ezin ditut torturak ikusi, barrua mugiarazten dit-eta". Graciarentzat, torturaren helburu nagusia zen "pertsonek ezabatzea, herria ezabatzea", beldurragatik borrokan ez jarraitzeko.

Arregiren testigantza

Xabier Arregik kontatu zuen umetatik irakurri eta entzun zuela torturen berri, "izua" zuela, eta 2001eko martxoaren 11n atxilotu zutenean, zekarren beldur haren eta uneko tratu txar psikologikoen ondorioz, berak usteko ez zukeen moduan jokatu zuela, deklarazio hartzean, adibidez; beretzat, "porrot pertsonala" izan zela zioen: "Gidoi bat zuten, eta nik gidoiko izenak eman nizkien. Eta esan zidaten: 'Hau da deklaratu behar duzuna'. Galderak egiten dizkizute, erantzuten dituzu, eta esaten duzu: 'Hori ez dut sinatuko'. Baina, jarraian: 'Sinatzen ez badut...'. Eta sinatu egin nuen".

Eta "mina" aitortu zuen Arregik entzuleen aurrean: "Lagunak salatzearena, izenak ematearena... Nire testigantza ondoz, jendea jausi zen. (...) Urte askoan irakurri izan nituen testigantzak, aztertu izan nituen gertaerak, zortzi urte neramatzan ezker abertzaleko egituretan militatzen... Heldu Auzitegi Nazionalako kalabozoetara, eta laranja azalez paretetan idatzita: 'Okerrena amaitu da: ukatu!'. Bada, nik ez".

Atxiloketa aurretik, beste militante batzuen kontrako salaketetan, "gezurrak" identifikatzen zituela zioen: "Nik dena sinisten nuen: lehenago jartzen nuen zalantzan neure hitza, beraiek esaten zidatena baino".

Bere burua "zikin" sentitzearen sentsazioa nabarmendu zuen.

Asteburuko ekintzak

Torturaren Aurkako Eguna dela eta, Arrasateko Sortuk elkarretaratzea deitu du domekarako: 13:00etan, Herriko Plazan. Bergaran, berriz, kontzertuak daude gaur -barikua-, 22:30ean, kartzela zaharrean: Debeku eta Golden Blend.

Aita Menniko greba egunen balorazio baikorra egin du ELAK

Langileak "presioa eta prekaritate" gero eta modu nabarmenagoan "jasaten" ari direla-eta, lan hitzarmena adostea eskatzeko, Aita Menniko langileak bost eguneko grebara zeuden deituak asteon -manifestazioa egingo dute gaur, egubakoitza, 11:00etan, Herriko Plazan hasita-. ELA "oso pozik" agertu da erantzunarekin: "Gutxieneko zerbitzuak erabat gehiegizkoak izan diren arren".

Aita Menniko zuzendaritzak dio akordioak erdiesteko "jarra maximalistak" alboratu behar direla, eta elkarrizketarako prest egon. Eta azaldu du soldatak %4,3 igo dituztela oraintsu. Sindikatuak dioenez, baina, enpresa da "negoziatzeko borondarrik" ez duena: "Enpresak dio ez dagoela dirurik lan baldintzetan eta zaintzan inbertitzeko, baina, bitartean, hogeii milioi euro inbertitu dituzte eraikinetan". Aste honetan egindakoekin, hemezortzi dira Aita Menniko langileek egindako greba egunak.

A-636ko bidesariaren kontra manifestazioa egingo dute bihar

Hiru garraiolarien sindikatuak eta bidesariaren aurkako plataformak deitu dute zapatuko protesta, eta Urretxu eta Zumarragako kaleetan izango da, 11:00etan hasita.

"Agintarieke joera dute, azkenaldian, zakua zerga berriekin betetzeko, esaterako bidesariaren bidez. Ikusi dugu nola 2018an, Gipuzkoan, N-lean eta A-15ean, bidesaria jarri zitzaian kamioiei, gero epaitegiek baliogabetu zuten arren. Hiruren ustez, errepideak ondasun publikoak dira, denok erabiltzen ditugunak eta publikoki, zergekin jasotakoaren bidez, konpondu beharko lirartekeenak. Ez da zilegi konponketa erabiltzaile batzuei kargatzea", adierazi dute.

Eta azpimarra jarri dute garraiolariengan. Batetik, automobilek ordainduko dutenaren bikoitza ordaindu beharko dutelako; eta honegatik, bestetik: "Ez dute ibilbide alternatiborik, Deskargako bide zaharra debekatuta baitute kamioiek".



KORONABIRUSA

Maskararik barik, norabide bakarrean

Atzotik ez da nahitaezkoa maskara erabiltzea kanpoaldean, ezta ikastetxeetako jolastokietan ere. Datuen beheranzko joerak berresten du neurrien malgutzeari; bailaran azarotik atzemandako positibo kopuru txikiena da azken astekoa: 391

Jon Irizar Aranguren DEBAGOIENA Eguaztenean Espainiako Estatu Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, atzotik kanpoaldean ez da ezinbestean musukoa erabili behar Hego Euskal Herrian. Badira salbuespenak; jende pilaketak dauden kirol zein kultur ekitaldietan neurriak indarrean jarraitzen du. Baita espazio itxietan ere.

Kanpoko espazio gisa izendatzen zituen ikastetxeetako jolastokiak Espainiako Gobernuaren dekretuak. Agindua esku artean izan eta aztertu arte ez zuen Jaurlaritzak erabakiaren berri

eman. Atzo bidali zien ikastetxeei jakinarazpena: aire zabalean, haurrek ez dute zertan maskararik erabili jolastokietan.

Norabide bakarra

Edizio hau itxi aurretik LABI instituzionalak hartutako erabakiak jakinarazi gabe zituen arren, erakunde ezberdinen neurriek zein egoera epidemiologikoaren datuek norabide bakarra irudikatzen dute. Hala adierazi zuen Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileak martitzenean: "Bilakaera argiagoa da, baikorragoa".

Adibide gisa, 391 kasu hautesman dira azken zazpi egunetan Debagoienean, eta 1.993,55era jaitsi da intzidentzia-tasa. Seigarren olatuko balioak perspektiban jarritz, bi datu: azaroaren azken astetik atzemandako positibo kopuru txikiena da zazpi egunotakoa, baita abenduaren 8tik izandako tasa baxuena ere.

Erietxetan dauden herritarrek ere gutxitzen ari dira, azken astean Arrasateko Ospitalea salbuespen negatiboa izan den arren; zazpi eri zeuden atzo gaitzak jota ospitaleratuta, joan zen astean baino hiru gehiago.

Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak biztanleekiko	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	121	303	8.422	%38,51	1.920
Bergara	105	200	5.333	%36,57	2.028
Oñati	65	140	4.426	%38,73	1.787
Aretxabaleta	43	114	2.572	%36,18	2.217
Eskoriatza	33	84	1.514	%36,65	2.851
Aramaio	11	19	535	%36,74	2.027
Antzuola	8	18	803	%38,59	1.193
Elgeta	4	19	295	%25,85	2.033
Gatzaga	1	4	70	%33,18	2.136
DEBAGOIENA	391	901	23.970	%37,45	1.993

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

391 kasu berrirekin, astebetean %56an jaitsi da bailaran atzemandako positibo kopurua; Elgetak izan du jaitsiera handiena -%79-, eta Aramaiok, aldiz, txikiena -%42-. Intzidentzia-tasak 1.046 puntuan egin du behera azken zazpi egunetan. Zehazki, 1.993,55ean da, abenduaren 8tik izan den balio baxuenean.

Fase berria salgai. Infoma zaituz!

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Jarraitu

GEK Bergarako etxebizitza-multzo honetan duela 15 urtetik gora duen esperientziari

Bergaran dagoeneko finkatuta dagoen bizitegi-espazio bati, kalitatezko etxebizitzekin eta eremu ireki eta arnagarri batean.

Ondo egindako etxeei, betiko kalitate bikainekin eta zure etxebizitza bakarria egiteko pertsonalizazio-aukerekin.

Jarraitu proiektu BIZI bati, ENTZUTEN dakien erreferentziako sustatzaile baten eskutik.

Zuk bakarrik jarraitu. Ni arduratuko naiz zu zoriontsu egiteaz. "Lorentxoko"

comercial@grupoeibar.com

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: **943 31 66 11**
Ernal ,1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

"Erantzunak zatikatuta, aldeak handitzen dira"

FELIX ARRIETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Osakidetzaren erreferentzialtasunaren pareko zerbait ikusten du faltan gizarte zerbitzuen arloan: egitura bat edukitzea eta baliabideak ezagunak izatea.

Julen Iriondo M. de Zuazo OÑATI

EH Bilduk gonbidatuta, Felix Arrieta gizarte arrakalari buruzko solasaldi batean parte hartzen izan da berriki Oñatin. Gizarte zerbitzuekin lotutako eskumenak hainbat administrazioen artean banatuta egoteak dakartzan ajeetan jarri zuen azpimarra Arrietak.

Nola eragin du pandemiak gizarte desberdintasunei dagokionez?

Birusak denoi eragin diezaguke, baina hari aurre egiteko garaian badaude desberdintasunak: pertsona zaurgarrienen zaurgarritasuna are ageriago geratu da. Klean bizi direnak datozkigu agian burura, eta bai –eman zitzaizen urgentziazko erantzun bat, baina epe luzeagorako erantzunik ez da artikulatu–, baina baita adineko pertsonak ere, egoitzetan zeudenak edota bakarrik bizi zirenak, eta gazteak ere bai: koronabirusak asko murriztu ditu sozializazio aukerak, eta gazteentzat sekulako karga izaten ari da. Eta egoera horiei nola aurre egin? Kasu batzuetan, hausnarketak ari gara egiten, eraldatzeko, egoitzetan, adibidez; beste batzuetan, arazoa identifikatu ere ez dugu egin, gazteen kasuan, esaterako. Kriminlizatu egin dituzte, eta diskurtso horrek ez du lagundu. **Eta gizarte zerbitzuen arloan, zer ekarri du pandemiak?**

Batetik, oso agerian geratu da gizarte zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen benetako dedikazioa; baina baita sistemak dituen zailtasunak ere. Jaurlaritzak, adibidez, neurriak jarri ditu hirugarren sektorearen bitartez, edo etxebizitza batzuk ireki ditu, baina hori ez da koordinatu tokian tokiko udalarekin, eta horrek, epe ertainera, zailtasunak dakartza pertsona horiei jarraikortasun bat emateko. Hezkuntza arloan, adibidez, udalen erantzun batzuk badira, ordenagailuak emateko



Felix Arrieta. J.I.

etxean ez zituztenei, baina toki batzuetan artikulatu dira, beste batzuetan ez... Horrek onura sor dezake tokian-tokian, baina gizarte zerbitzuen arloan erantzunak zatikatzean, nahiz eta urgentziaz izan, desberdintasunak zabaltzen dira. Sarbidea da oso inportantea: Mutrikuko batek eta Ondarroako norbaitek zergatik ez dute begirada bera izan behar sarbideetara doazenean? Inertziak hona ekarri gaitu. Berdin jarraitu nahi dugu, edo heldu nahi diogu gaiari? **Osakidetzaren adibidea jarri duzu.** Gizarte zerbitzuak egituratu egin behar ditugu. Egituratzeak legitimazioa leharke. Gaur, ez da ezagutzen, eta ezagutzen ez

"GIZARTE ZERBITZUAK EZ DITUGU EZAGUTZEN, ETA, EZAGUTU BARIK, EZIN GEURE SENTITU"



Elkarrizketa osoa irakurtzeko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

dena ez dugu geure sentitzen. Gertatzen da Osakidetzarekin; baina Euskotren ere noiz sentitzen dugu geure? Erabiltzen dugunean. Eta orduan arduratzen gaitu. Gizarte zerbitzuekin ez zaigu hori gertatzen. Egituratzearekin, unibertsalaziorako joera ere egon daiteke, eta, gainera, langileen baldintzak hobetzen lagunduko luke. Eta, finean, pertsona hobeto artatzea ekarriko luke guztiak.

Ikusten da asmorik bide horretan? Legebiltzarreko eztabaida izan behar da hau. Alderdi batzuk hasi dira proposamenak artikulatzen; beste batzuk urrunago daude. Pandemiaren ondorioetako bat bada eztabaida puri-purian dagoela. Ez dakit legegintzaldi honetan edo hurrengoan, baina itxaropena badut eztabaida hau serio hartuko dutela. Alderdi sozialistak bazuen antzeko proposamen bat; EH Bilduk azkeneko hauteskundeetan programan zeraman halako zerbait. EAJk berak badauka zentzu bat erreformarako, baina ez du asko zehaztu. Badago eztabaidarako zentzu bat, baina argi dut: horrelakorik egitekotan, kontsentu handiarekin egin behar da.



EKINTZAILAZA GARAIA

GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAK BABESTUTA

NEKANE ERRASTI LOZARES

Emakume eta zientzialaria naiz eta harro nago!

Zorionez dagoeneko ez da arrotza egiten neska ingeniari, matematikari, fisikari edo zientzialari batekin topatzea, eta alderantziz, hau maizago topatzearen aldeko ekimenak ugariak dira. Bizi dugun industriaren etengabeko eraldaketak eta honen abiadak erakusten digu ZTIM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) profilak sekula baino beharrezkoagoak direla gizarte eta industria ingurune jasangarri eta lehiakor bat izan nahi badugu.

Gainera, populazio piramidearen irauzkitzeak talentu beharra nabarmentzen du orain eta etorkizun hurbilean; 2030erako %10 ikasle gutxiago izango dugu eskoletan eta 2016tik %16 pertsona gutxiago matrikulatu dira ZTIM ikasketetan (Iturria: Eustat). Nola uztartuko ditugu bi gai hauek?

Erantzuna argia da; gizartearen erdia suposatzen dugun emakume eta neskek gara soluzioa. Emakume eta neska zientzialari gehiago baleude, aipaturiko egoera konpontzeko bidean legoke. Egia da emakumeek historian zehar ezkutuan

"ESTEREOTIPOEK ERAGINA DUTE GAZTEEK GAI BATZUETAN DUTEN INTERESEAN"

lehenbizi eta gizonezkoen azpian izkutatuta gero, zaila izan dutela zientzian karrera egitea eta gaur egun eredugarri izatea. Nabarmentzekoak dira Ada Lovelace (1815-1852) lehen algoritmoaren sortzailea, Hedy Lamarr (1914-2000)

Hollywooden izarra izateaz gain gaur egun ezinbesteko zaigun wifi-aren asmatzailea, Mildred Dresselhaus (1930-2017) karbonoaren aplikazioaren lanketan aritu zena, Rose Dieng-Kuntz (1596-2008) ezagutza denon eskura jartzeko helburuaz gaur egun internet sarea bezala ezagutzen dugunaren lehen urratsak eman zituenena, eta abar.

Baina zein da nerabe eta gazteen begirada gai honi dagokionez? Zelako gertu edo urruti antzematen dituzte zientzia eta teknologia eta hauekin erlazioaturiko lanbideak?

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, Elhuyarrek elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, bailarako 14 eta 16 urte bitarteko gazteen artean 2021ean egindako ikerketa lan baten emaitzen arabera genero-estereotipo tradizionalak eragina dute gazteek zenbait gairen inguruan duten interesean; hala nola, neskek hobeto baloratzen dituzte gai sozialekin, irudi pertsonalarekin eta hezkuntzarekin lotutako gaiak.

Etorkizunean ZTIM arloan lan egiteari dagokionez, neskek eta mutilek gaitasun-maila desberdina hautematen dute: mutilen %54k eta nesken %39,7k gai ikusten dute beren burua arlo horretan lan egiteko. Erantzun hau ezinbestean lerrotatuta dago etorkizunean ZTIM arloan lan egiteko azaldu duten interesekin: mutilen %47,2k eta nesken %23,8k adierazi dute interesa. Eta honi gehitzen zaio gazteen herenak, gutxi gorabehera, ez dutela Debagoieneko industria ezagutzen.

Honek horrela izaten jarraitzea nahi al dugu? Ez al dugu lortu behar gure haur, gazte eta nerabeek aurreiritzi gabeko mundu batean heztea non aukerak denontzako berdinak diren eta aukera guztiak gardentasunez erakusten diren pertsona aske bezala beraien hautua egin dezaten?

Pausu hori ematen badugu, ziur nago zientzia eta teknologia ikasketatan neska portzentaia areagotuko dugula, esanguratsuak diren proiektuak eta ekarpenak lortuko dituztela eta azken finean, gizarte eta etorkizun hobeago bat eraikiko dugula.

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Elkarlana da D2030en egiteko modua bereizten duen ezaugarrietako bat eta horretan badu Goienak eskarmentua, herri eta eragile desberdinen arteko elkarlanetik sortu baitzen Goiena duela 22 urte. Monika Belastegi da Komunikazio Taldeko presidentea.

Debagoiena 2030 eskualdean eraldaketa bultzatzeko sortu da. Zein ekarpen egin diezaiok Goienak ekimenari?

Gurea euskarazkoa eta tokikoa den komunikabidea da eta D2030, berriz, eskualdeko eraldaketa iraunkorra bultzatzeko sortu den ekimena. Oinarri-oinarritik uste dut baditugula partekatzen ditugun ezaugarriak. Esaterako, balio jakin batzuekiko konpromisoa: batetik, eskualde ikuspegia dago, Debagoiena subjektu moduan ulertzeko dugun modua, errespetatu arren, herri bakoitzak dituen ezaugarriak. Bestetik, badago gizartera ekarpen jakin bat egiteko nahia ere. Gurea ez baita eskualdean gertatzen denaren inguruko informazioa emateko tokia bakarrik, balio batzuen gainean eraikitzen den egitasmoa, baizik.

Elkarlana da bi ekimenek partekatzen duten ideietako bat. Zein da Goienaren esperientzia arlo horretan?

Hain zuzen ere, elkarlana bera da partekatzen dugun balioetako bat. Goiena elkarlan baten emaitza da, duela 20 urte baino gehiago bailarako herrietako udalek, euskara elkarteek eta herri komunikabideek baliatu zuten hausnarketa baten emaitza. Udal horiek, euskara elkarteek eta komunikabide horiek elkarlanean sinistu zuten, indarrak batzearen garrantzian eta Debagoienari eskualde ikuspegia emateko ideian. Horri guztiari gehitu behar zaio hasieratik Goienak komunitatearekin izan duen lotura. Kudeaketa publiko-pribatua sinistu eta praktikatzeko dugu.

Debagoienari subjektu izaera ematen lagundu du Goienak. Hedabideek, euskalgintzan duten garrantziaren jakitun zirenek, bultzatu zuten

"Goiena elkarlan baten emaitza da; kudeaketa publiko-pribatua sinistu eta praktikatzeko dugu"

MONIKA BELASTEGI GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEKO PRESIDENTEA

D2030 ekimenaren eta Goienaren jardunek norabide bera partekatzen dute eta horrek ahalbidetu du sorreratik izatea Goiena, lankidetzaren sareko kide



Monika Belastegi, Goienako presidentea. XABIER URZELAI

batasuna. Udalek ulertu zuten tokikoaren indarra zerbitzu informatibo gisa eta euskarazko zerbitzu gisa. Baita bailarako euskara elkarteek ere. Halako komunitate sinboliko bat sortu du

Goienak. Esaterako, bergararra debagoiendarragoa da orain, eta horretan uste dut eraginik izan duela Goienak. Hala ere, oraindik ere instituzioek eman ditzaketeko urratsak norbere herritik

burua altxatzeko. Uste dut Debagoiena gehiago egitea eta izatea dela norberaren herria garapenarekin lotzeko modua. Txiki izaten jarraitu bai, baina batuta; eta, batura horretatik eraginkorrago izanez. Tokiko hedabideetan ikasia daukagu eskola hori eta ordenatu genuen egoera.

Komunitatearen parte-hartzea bera ere bada D2030en egiteko moduetako bat. Zein da Goienaren esperientzia komunitatearekiko harremanean?

Tokikoak gara, gertukoak, eta hori egiteko komunitatearekin dugun harremana da gakoa. Bertatik bertara egiten dugun lan, eta gure komunitatearekiko dugun konpromisoak garrantzi handia hartzen du. Egia da, herrigintzan, gizartean eta Goienan bertan ere azken urteotan izan diren aldaketan ondorioz Goienaren eta bere komunitatearen arteko harremanean izan direla aldaketak. Horregatik, azken urtean D2030ek bultzatutako hausnarketa prozesu baten murgildu gara, gure komunitatearekin dugun elkarlan moduez hausnartu eta bide horretan nola sakondu aztertze.

Zein izan da emaitza?

Komunitatearen parte hartzearekin eta ahalduzuekin lotutako proiektu bat. Goiena Eraldatzailea izenburua ipini diogu. Azken finean, komunitatearekin parte hartze

eta elkarlan eredu berriak nola bideratu aztertu gura izan dugu. Horretarako prozesu bat abiatu genuen, zeinetan gure komunitateko hainbat kideren sentazio eta iritziak jaso genituen. Goiena barruan ere hausnartu dugu horretaz eta komunikabide gisa dugun funtzioaz. Azken finean, Goienak gizartearekiko duen konpromisoan sakondu behar dugula ondorioztatu dugu, eta horretarako komunitatearekin elkarlanean aritu behar dugula. Horregatik, arlo zehatz batzuekin lotutako –klima aldaketa, euskara, kultura, ekonomia– Mahai edo Talde Iraunkorrak sortuko ditugu. Talde horiek, komunikazio eraldatzailean Goienaren bidelagun izango dira. Nahiko genukeena da, elkarlan horretatik proiektu berriak sortu.

D2030ekin duzuen loturak zein ekarpen egin dio Goienari?

Iztela. Egia da gizarteko erronken aurrean Goienak izan behar lukeen estrategiaz hausnartzeko eta duela urte mordera ekin genion lankidetzaren lanketari jarraibidea eta indarra emateko ezinbestekoa izan dela D2030ek eskaini digun laguntza. Proiektu horretan bidelagun izateaz gain, Goiena D2030eko gobernu batzordeko kide ere bada, eta komunikazio taldeko kide ere bai. Arlo askotan dugu D2030ekin lotura eta aurrerantzean ere norabide hori partekatzen jarraituko dugu; izan ere, D2030 tresna izan daiteke Debagoieneko entitateen jarduna eraginkorrago bihurtu eta norabide berean jartzeko.

"DEBAGOIENA GEHIAGO EGITEA DA NORBERAREN HERRIA GARAPENAREKIN LOTZEKO MODUA"

"D2030 TRESNA IZAN DAITEKE ESKUALDEKO ENTITATEEN JARDUNA ERAGINKORRAGO BIHURTZEKO"



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Eman aukera pertsonari

Azken urteetan asko ikasteko aukera izan dut. Ama izan naiz, ama bakarra. Ikastaro luzea, baina emozioz betetakoa. Ama izatea ez da gauza erraza, bakarrik izateak baditu bere gauza onak eta txarrak. Aurreiritziei kasu egin izan banie, ez nintzateke gaur munduko ama zorionsuenetako bat izango.

Azken urteetan orain dela asko hasitako proiektua utzi eta urte asko dituen erakunde batean buru-belarri sartzea erabaki nuen. Caritasen proiektua den eta Sarea Fundazioak kudeatzen duen Bidean Heziketa Zentroan lan egiteko aukera eman zidaten eta hemen ere izugarriko ikasketa egiten nabil. Caritas zer den badakizu? Bai? Benetan? Lanean daramatzadan 5 urte hauetan jende asko gerturatu da zentrora eta askok beste iritzi bat zuen Caritasen inguruan. Aurreiritziak? Agian!

LANEAN, KALEAN, ESKOLAN... AURREIRITZIAK ALDE BATERA UZTEA ERABAKI NUEN

Azken urteetan esperientzia ezberdinak bizitzeko aukera izan dut eta esperientzia horietan jende ezberdin asko ezagutzeko aukera izan dut. Aurreiritziak alde batera utzi eta pertsonak ezagutzen nabil. Lanean,

kalean, eskolan... aurreiritziak alde batera uztea erabaki nuen eta gerturatutako pertsonen nire bizitzan sartzeko aukera ematea erabaki nuen.

Azken hilabeteetan, adibidez, inoiz pentsatuko ez nukeen pertsona bat nire bizitzan sartu da. Ez dakit kasualitatea den ala ez, baina aurreiritziak nire barne mantendu izan banitu, seguruenik ez nioke nire bizitzan sartzeko aukerarik emango. Zorionekoa ni erabaki hori hartu nuenean!

Egunero topo egiten dugu pertsona askorekin. Gure antzekoak edo ezberdinak. Agian, ez hain ezberdinak; edo bai, oso ezberdinak. Baina gerturatzen zaizkigun pertsona hauei gure bizitzan sartzeko aukera emanaz gero, askotan sorpresak jasoko ditugu.

Eman aukera pertsonari, ezagutu pertsona eta utzi aurreiritziak alde batera. Bizitzak hamaika sorpresa ditu zuretzat, niretzat izan dituen eta etorkizunerako gordeta dituen bezala.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Lan-erreformak zer dakar gazteentzat?

F. JAVIER ARRIETA IDIAKEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Abenduaren 28an onetsi zen 32/2021 Errege Lege-dekretua, lan-erreforma onestekoa. Diputatuen Kongresuan onetsi behar bada ere, gazteei begira badakartza berrikuntza garrantzitsuak. Printzipioz, apustua egin da kontratuak iraupen mugagabekoak izan daitezten. Horren adibide da obra eta zerbitzu jakinerako lan-kontratuak desagerrarazi izana. Horrek egonkortasuna ekar dakeie gazteei laneratzen direnean. Baina enpresaburuek bitan

pentsatu beharko dute pertsona bat kontratatzea. Izan ere, orain, kaleratzea garestiagoa izango da.

Prekarietatea, ordea, sor daiteke jarraitutasunik gabeko lan kontratu finakoak egiteko aukerak gehitu direlako, esaterako, kontratuen eta azpikontraten kasuetan. Ekoizpen inguruabarren arabera lan-kontratuan ere aldaketa dezente gauzatu dira. Kontratu horrek edozein xede baditu ere, iruzurrak egiteko arriskuak sortuko dira hurrengo xede aintzat hartzen denean: noizbehinkako egoerei aurre egitea, halakoak aurreikusteko modukoak direnean.

Baina prestakuntza kontratuak dira gazteei begira beren-beregi arautu direnak. Positiboa da 1543/2011 Errege Dekretua indargabetzea, lan-izaerarik gabeko praktikak ezabatuz. Dena den, zalantza ugari daude. Bekadunen Estatutua arautzea aurreikusi da, curriculum baitako nahiz curriculumaz kanpoko praktikak gauzatzeko. Halaber, batik bat, unibertsitateen esparruan, badirudi lana eta prestakuntza txandakatzea dela helburua. Hori posible ez denerako lanbide-praktika eskuratzeko aukera dago, behin kasuan kasuko ikasketak amaituta.

goiena[™]

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Adimen artifizialeko teknologiak hedatzen doaz"

IGOR ELLAKURIA ISEA-KO IKERKETA ETA GARAPENERAKO PROIEKTUEN ARDURADUNA

Larraitz Zeberio Lekuona ARRASATE Mondragoneko Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisioak antolatuta adimen artifizialari buruzko topaketa egin zuten, atzo, Arrasaten. Igor Ellakuriak (Bilbo, 1978) urteak daramatza esparru horretan lanean.

Osasungintzan, itzulpengintzan eta administrazioan emandako aurrerapausoak nabarmendu dituzue. Zergatik?

Ikerketa eta arrakasta kasu batzuk aurkeztea zen helburua. Adimen artifizialeko teknologiak hedatzen dihardute sektore horietan, eta azken urteotan hainbat proiektu bideratu ditugu. Mondragon

Korporazioan industriak pisu handia du, eta sektore horretan ere gara daitezke aplikazio aurreratuak.

Egunerokotasunean txertatuta daukagu adimen artifiziala, ezta?

Mugikorrarekin argazkiak ateratzerakoan, bilaketak egiterakoan, aparkalekuetako matrikula irakurgailuetan,



Igor Ellakuria. I.Z.L.

online erosketak egiterakoan gomendioak jasotzen ditugunean... Horien guztien atzean adimen artifizialeko algoritmoak daude.

Zein sektoretan erabiltzen da gehien adimen artifiziala?

Osasungintzan, esaterako, ohikoa da irudien tratamendurako eta burmuineko tumoreen eboluzioa aurreikusteko adimen artifizialeko soluzioak erabiltzea, baita ere analisisa

medikuen diagnostikoan laguntzeko. Itzulpengintzan, berriz, urte pila daramazkigu adimen artifizialeko teknologiak aplikatzen. 2012. urtetik ari gara horretan. Mondragon Linguaren *lingua.eus*, Eusko Jaurlaritzaren itzultzaile automatikoa, bere garaian atera zen *Modela...* Aitzindariak dira gure inguru honetan. Administrazioarekin lotuta, berriz, atzo aurkeztu zen *Udalbot* barne prozesua, zein biztanleriari begirako arreta hobetzeko garatu den proiektua. Akten transkripzio automatikorako proiektuak ere garatzen ari dira...

Finantzen, marketinaren eta aseguruaren sektoreetan ere nabarmen da adimen artifizialaren erabilera. **Datuen erabilerarekin sortzen dira errezelo batzuk. Justifikatuta daude?**

Errezelo hori badaukagu, eta kontuz ibili behar da gauza horiekin. 2016an sortu zen Datuen Babes Orokorreko araudia, baina egia esan aplikazio bat interesatzen zaigunean ez dugu gehiegi begiratzen gure datuak erabiltzeko ze baimen ematen dugun. Zenbait sektoretan, esaterako osasungintzan edo industrian, asko begiratzen duten kontu bat da. Beti da proiektuetan jorratu

beharreko gai garrantzitsuenetariko bat. **Inbertsioak egiten dira?** Esparru publikotik badaude diru-laguntza programa batzuk, eta orain sortu dira espresuki adimen artifiziala bultzatzeko programak. Pasa den urteko kontua da. Uste dut sendotzen ari den joera dela. Agian, inbertsio pribatua gehiago indartu beharko litzateke. Beste herrialde batzuetan baino txikiagoa da hemen.

Eta talentu aldetik nola gabilta? Hizkuntza teknologietan punta-puntan gabiltzala esango nuke. Donostian dagoen Vicomtech ikerketa zentroa punta-puntakoa da gai hauetan, eta akademikoki Euskal Herriko Unibertsitatea eta Hitz taldea erreferentzia dira Europa mailan. Elhuyar bezalako beste aktore batzuk ere badaude. Gainerako esparruetan euskal ikertzaileen sare bat badago. Nabarmenduko nituzke Mondragon Unibertsitatea, Tekniker, Teknalia, Ikerlan... Erronka, akaso, hurrengo belaunaldietan egon daiteke. Hobetuz doa, baina ikasketa teknikoetan jende gutxi matrikulatzen da oraindik ere. Gero eta behar handiagoa dago, baina ez dago jenderik behar hori asetzeko.

ITURRI ONETIK

Ez Jam eta ez New Guass, Plenoil gasolindegia

Jam aretoa –gerora, New Guass–, kafetegia eta taberna egon ziren tokian gasolindegia bat jarriko dute. Plenoil enpresak egin du jartzeko eskaera. Prezio merkekoa izango da eta auto-garbigailua ere izango du. Lanak aurki hasi gura ditu. Herriko laugarren gasolindegia izango litzateke, Repsol, Eroski eta Aviakoan ostean. Eta bosgarren bat jartzeko asmoa ere badago, Tellerian, AP-1 autobideak eta Bergarako Ekialdeko saihesbideak –Bergara-Beasain– bat egiten duten bidegurutzean.

ALBISTE IZAN ZEN



2006-02-10

Kristina Pavoren 'Antzuolako Toponimia'

Euskaltzaindiaren onomastika batzordeak batzarra egin zuen Antzuolan. Ohiko batzarraz gain, aitzakia berezirik bazen: Kristina Pavoren *Antzuolako Toponimia* liburu-aurkezpena. Prentsaren aurrean egindako aurkezpenean, Jose Luis Zabalo alkatea, Andres Iñigo euskaltzaina eta Iratxe Lasa Onomastika batzordekide eta lanaren koordinatzailea izan zituen lagun egileak. "Urduri samar", baina egindako "lanaz harro" agertu zen Kristina Pavo antzuolarra.

HAU BE BADOGU!

'#StopLGTBIfobia' traola erabiliena asteon

@Garbine_Ruiz: "Haien gorrotoaren, erasoaren eta kolpearen aurrean, ez gaituzte geldituko. Gehiago gara dakigunok komunitate anitza, inklusiboa eta maite duena eraikitzea beharrezkoa dela bizitzaren onak eta zoriontsuak izateko".

@Isa_Gonzalez: "Gorrotadierazpenak ez dira inon sartzen, baina are gutxiago ikastetxe batean. Nahi dugun bezalako izateko eta gure identitateak adierazteko aukera eskubide bat da".

@ikusgune: "Zeinen polita zaren Gasteiz ortzadarren koloreez jantzita. #StopLGTBIfobia".



Ekobulebar-aren Garibai etorbideko zatiak itxuraldaketa handia jasan du azken hilabeteetan. E.A.

993.285 euroko laguntza jaso dute hiru proiektuk

Europako Next Generation funtsak dirulaguntza emango dio Arrasateko Udalari, hiru proiektutara bideratzeko; 'Ekobulebar'-era, Musakola eta Santa Teresako igogailuen proiektura eta Araba etorbidea eta Foruen Plaza lotuko dituen bidegorri zatira, alegia

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Udalak ia milioi bat euroko diru-laguntza jaso du Europako Next Generation funtsetik. Izan ere, iazko irailean egindako eskaera onartu egin du funtsak. Beraz, ia milioi bat euroko laguntza jasoko du, 993.285 eurokoa, zehazki, eta hiru proiektutara bideratuko du Udal Gobernuak; zati handiena, *Ekobulebar*-era: 743.285 euro. Horrez gain, Musakola eta Santa Teresa lotuko dituen igogailu sistemarako 200.000 euro bideratuko ditu eta 50.000 euro, azkenik, Araba Etorbidea eta Foruen Plaza lotuko dituen bidegorri zatia egiteko.

Next Generation funtsak CO2 isurketa murrizten duten proiektuak sustatzen ditu nagusiki, oinezkoiei eta bizikletei lehenetasuna ematen diotenak, eta Arrasateko hiru proiektuek hori bilatzen dute, Maria Ubarretxena alkatearen esanetan. Era berean, "oso pozik" azaldu da laguntza jasotzeagatik.

'Ekobulebar'-a, ia amaituta

Alkatearen esanetan, uda aurretik bukatuko dute *Ekobulebar*-a. Izan ere, lan gehienak aurreratuta dituzte eta azken fasea gelditzen da bakarrik, lo-rezaintzako azken ukituak eta bestelako erremate batzuk. "Egia da udan edo udaberriean beste itxura bat hartuko duela, loreak eta zuhaitzak hazi egingo direlako, baina uda aurretik bukatuta egongo dira lan guztiak, seguruenik", dio Ubarretxenak.

Hiru igogailuko sistema

Musakola eta Santa Teresa lotuko dituen igogailu sistemari dagokionez, hiru proposamenen artean bozkatu zuten auzotarrek eta proposamen bozkatuena

'EKOBULEBAR'-ERA BIDERATUKO DU DIRU KOPURU HANDIENA UDAL GOBERNUAK: 743.285 EURO

izango da aurrera eramango dutena, hau da, hiru igogailu dituen. Udal Gobernuak bilerak egin ditu Musakolako zein Santa Marinako auzotarrek, auzo-alkatetzekin eta ikastetxeekin.

Obra zuzendaritza esleituta dago, Asmatu SL enpresak egingo du, eta exekuzio obrarako deialdia oraindik irekita dago. "Kontratazio mahaiaren baitan dago gaia. Hainbat enpresa aurkeztu dira eta teknikariak baloratzen ari dira eskaintza guztiak. Beraz, espero dugu laster proiektua esleitu eta uda aurretik lanei ekitea".

Bidegorri zatia ere, aurten

Azkenik, Araba Etorbidea, Leintzibar kalea eta Gipuzkoako Foruen Plaza lotuko dituen bidegorri zatia ere uda aurretik hasia aurreikusten du Udal Gobernuak eta, nahiz eta auzo-alkatetzarekin bilerak egin dituzten, auzotarrei ere azaldu gura diete proiektua, lanekin hasi aurretik.

Udaltzainek 4.295 interbentzio egin zituzten 2021ean Arrasaten

Azken hiruhilekoko balorazioa eginda, udaltzainburuak dio COVID-19ari lotutako esku-hartzeak gutxitu direla

E.A./I.B. ARRASATE

Maria Ubarretxena alkateak eta Zigor Andino udaltzainburuak 2021eko azken hiruhilekoko balorazioa egin dute, epe horretan udaltzainek 1.037 esku-hartze egin zituztela azpimarratuz. Gehienak administratiboak izan dira (510); 144 segurtasunari lotutakoak; 255, trafiko arlokoak; eta 107, ingurumen gaiei lotuak. Bestalde, epe horretan hamar pertsona atxilotu zituzten (bi urrian, hiru azaroan eta bost abenduan). Horrez gain, COVID-19ari lotutako interbentzioek nabarmen egin dute behera. Uztaila eta iraila artean 251 egin zituzten eta urria eta abendua artean, berriz, 71.

Euriteetan, lan asistentziala

Abenduko euriteek eragindako kalteen eta ezbeharren aurrean egindako lana ere nabarmendu du Andinok. "Gure lanaren %85 asistentziala da. Esaterako, euriteen ondorioz herriko zenbait familia euren etxeetatik atera behar izan ziren, eta horiei babsa eman zitzaizkien Udaleko gainerako sailekin elkarlanean". Horrekin batera, herritarren kolaborazioa eskertu du Andinok.

Trafikoan, interbentzioek gora

Trafikoari lotutako esku-hartzeek ere nabarmen egin dute gora, 255 izan baitziren urritik abendura eta 103, aldiz, aurreko hiruhilekoan. Honakoak nabarmen ziren: trafiko-atestatuak, gidabaimenik gabe gidatzea, droga edo alkoholaren proban positibo ematea eta trafikoari lotutako sorospenak ere. Bestalde, istripuak 56 izan dira. "Ez da hildakorik izan eta gehienak arin zauritu dira edo ez dira zauritu. Ez da oinezko harrapaketak izan".

Pandemiari lotutakoak, behera

COVID-19ari lotutako esku-hartzeek "nabarmen" egin dute behera. "Uztaila eta iraila artean 251 egin ziren eta urria eta abendua artean, berriz, 71". Hiruhileko honetan 63 denuntzia bideratu dira. Gehienak ondare-ebazpenak edo ebazpen sozio-ekonomikoak (58). Bestalde, 10 pertsona atxilotu dira. Lapurretak, drogarekin eta alkoholarekin lotutako ezbeharrek eta erasoak izan dira arrazo nagusiak.

Alkateak zein udaltzainburuak nabarmendu dute Arrasate herri "segurua" dela

Udalak martxan du herriko ehun sozioekonomikoaren diagnostia

Arrasateko eta Debagoieneko enpresa enplegatzaileen ikuspegia ezagutu nahi du, Alecopekin elkarlanean

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak, Alecop kooperatibarekin elkarlanean, enplegu sustapeneko neurriak aktibatuzko helburuarekin, herriko ehun sozio-ekonomikoaren errealitatea gertutik ezagutzeko proiektua jarri du martxan: *Arrasaten enplegua sustatzen*. "Honen bidez, enplegatzaile eta profesionalen eskariaren egoera diagnostikatuko dugu, egungo enplegu-eskatzailak kokatzeko eta 2022ko Arrasateko Enplegu Planari laguntzeko estrategiak definitzeko".

Lau hilabete gurako dituzte diagnostia osatzeko, otsailaren bigarren hamabostaldian hasita. Enplegua sortzeko ahalmena duten jarduera-sektoreak eta enpresak identifikatuko dituzte, baita enplegu-eskatzailen profila ere, "hurbiltzeko estrategiak zehaztu ahal izateko". Enpresen informazioa bi eratara jaso nahi dute: udal webgunean dagoen galdetegia erantzunda eta jarduera-sektoreekin eta enprekin bilerak eginda. "Enpese eman dako informazioa baliatuko dugu diagnostia egiteko".

TAO sisteman aldaketak iragarri ditu Gobernuak

EH Bilduk eta Podemos Arrasatek prentsurrekoa egin zuten martitzenean, sistemak "hausnarketa sakon bat" behar duela adieraziz; Maria Ubarretxena alkateak, horri erantzunez, adierazi zuen egingo dituzten aldaketen berri emango dutela martxoan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Oposizioko taldeek prentsa agerraldia egin zuten martitzenean, indarrean dagoen TAO sistema-rekin ados ez daudela adierazteko. "Pribatua da, diru biltzaila eta herritarren beharrei bizkarra ematen die", azaldu zuten. Hori dela eta, "hausnarketa sakon bat" egin dezala eskatu zioten Udal Gobernuari, "lehenbailehen".

Nabarmendu zuten "ezinbestekoa" dela trafikoa eta aparkalekuen erregularizazioa, baina herritarren beharrik aintzat hartuz egin behar dela hori. "Trafikoa ordenatzea ondo dago, eta alde zaharreko bizilagunenak, adibidez, sistema ona da, baina TAO sistema honek gabezia handiak ditu. Ez dira aintzat hartu elbarrituen, erdiguneko lan egiten dutenen, autonomoen, zerbitzuak ematen dituztenen, merkatarien edota landa auzoetako herritarren ezaugarri propioak eta beharrik. Bigarren mailako herritar bilakatu ditu Gobernuak", azaldu zuen EH Bilduko bozeramaile Maider Morrasede.

Zerbitzuaren publikotasuna defendatzen dutela gaineratu zuten, langileen duintasuna bermatuko duena, eta ez gestio pribatua. "TAO bigunaren alde-



Hainbat auto aparkatuta, Otxalua Lizentziaduna kaleko bi TAO guneetan. E.A.

koak gara, lehen bi orduak doakoak izatearen aldekoak, adibidez. Hau da, zerbitzu publiko bat defizitarioa izan daiteke herritarrendako onurak baldin badakartza", azaldu du Morrasede, indarrean dauden hainbat adibide gaitzetsiz: "Ospitaleko ordu erdiko muga, elbarrituei kobrantza, langile autonomoei edota bertara datozen langileei irtenbiderik ez...".

Zuzenketak, "lehenbailehen"

Sistemak gabezia "handiak eta nabarmenak" dituela ikusita,

Udal Gobernuari eskatzen diote hilaletan epean gabezia horiek zuzentzea, "eta ez urtebetekoan, aurreikusita zegoen moduan eta orain gutxira arte esan diguten moduan". Izan ere, Juan Antonio Urdangarin Hirigintza saileko buruak hala adierazi zuen prozesuaren hasieran.

Arazoak, antzeman ahala, zuzendu daitezkeela uste dute. "Ez du zertan urtebete izan. Probaldia luza daiteke, sistema egokia topatu arte". Halaber, "herritarren beharrik asebetetzen dituen sistema bat" gura dute.

Martxoan, aldaketen berri

Oposizioak esandakoei erantzunez, eguaztenean Maria Ubarretxena alkateak egin zituen adierazpenak. Azaldu zuen "gertuko jarraipena" egiten ari direla, "egin beharreko aldaketak egiteko", eta martxoan emango dutela horien berri, sistema ezarri eta hiru hilabetera. "Udal Gobernuak inoiz ez du esan aldaketak urtebete barru egingo direnik. Hori Podemoseko zinegotziak esan zuen osoko bilkuran, baina ez guk".

"Herria entzuten ari gara"

Alkateak gaineratu zuenez, analisia egiten ari dira: guneen erabilera, bertakoen zein kanpoko erabilera eta abar. "Analisi eta informazio hori beharrezkoa delako aldaketak modu egokian planteatzeko. Ondoren, aldaketak uda aurretik eginga egotea espero dugu, ahalik eta azkarren".

Herria entzuten ari direla esan du: "TAOrekin bat ez datozenak, TAOren abantailak haien auzoetan nabarmen ikusi dutenak eta TAO eskatzen ari diren auzoak. Momentuz TAO eskatu duten auzoak hauek izan dira: Zerrajera, Uriburu kalea eta Jose Luis Inarra".

Udal Gobernuaren helburua ez da herria kaltetzea, alkatearen esanetan, "ezta bertako autonomo eta langileak kaltetzea ere, inondik inora". Hori dela eta, aukerak aztertzen ari dira eta aldaketak gauzatuko dituzte.

"SISTEMAK GABEZIA HANDIAK DITU; HAUSNARKETA SAKON BAT BEHAR DA"

MAIDER MORRAS, EH BILDU

"Badaude hirugarren autoa egotzari bezala jartzea eskatu dutenak, badaude mugikortasun urritasuna dutenek egindako eskaerak, baita gremioek egindako eskaerak ere. Jasota ditugu eta guztiei emango diegu erantzun bat".

"Defizitarioa izango da"

Indarrean dagoen sistema defizitarioa izango da, alkatearen arabera, "orain arte Uriburiko TAO sistema defizitarioa izan den bezala (40.000 euroko defizita urtero)". Urte bukaeran, datuak dituztenean, "gardentasunez" erakutsiko dituztela azaldu zuen Ubarretxena, "herritarrek ikus dezaten garbi ez dela erabakia hartu diru bilketarako, baizik eta trafiko murrizketa eta CO2 isuriaren murrizketaren baitan egin dela".

Hainbat datu, trafikoari lotuta

Alkateak emandako datuen arabera, 5.000 auto sartzen dira erdigunera egunero. Bestalde, Arrasaten 13.483 auto daude errolatuta, hau da, 1,5 auto etxebizitza bakoitzeko. "Autoaren erabilera azken urteetan asko hazi da herri barruko desplazamenduak egiteko. 2007an, pertsona bakoitzak 2,98 desplazamendu egiten zituen batez beste eguneko eta 2019an, berriz, 3,4. Handituz doa urtez urte". Gainera CO2 isurketarik handienak ibilgailuetatik datoz Arrasaten: %31,3. Industriako isuriak %30,9 dira.

"ANALISIA EGITEN ARI GARA; INFORMAZIOA FUNTSEZKOA DA ALDAKETAK EGITEKO"

MARIA UBARRETXENA, ALKATEA (EAJ)

Otsailaren 17an, 18an eta 19an egingo dute Merkemerka

Egun horietan erositako txartelak erabiliz, gainera, 940 euroko balioa duten bi sari zozketatuko ditu Ibai-arteak

E.A. ARRASATE

Ibai-arte merkatarien elkarteak antolatuta, Merkemerka egingo dute, eguen eta egubakoitzean, 16:30etik 20:00etara eta zapatuan, berriz, 10:00etatik 20:00etara. Bestalde, saltokietako bezeroen

artean 940 euroko balioa duten bi sari zozketatuko dituzte (Ibai-arte saltokietan trukatzeko erosketak txartelak). Zozketan parte hartzeko, egun horietan egindako erosketetan jasotako erosketak bat 688

73 41 49 telefonora bidali besterik ez da egin behar. "Bi zozketa egingo ditugu. Bat otsailaren 17an eta 18an jasotako tiketekin eta, bestea, otsailaren 19an jasotakoekin. Zozketa bakoitzeko, parte-hartzaileko zozketarako zenbaki bakarra emango dugu", azaldu dute. Zozketa otsailaren 23an egingo dute.

Otsailaren 19an, gainera, 18:30etatik aurrera, Elen's River Dixieland Band taldeak animatuko ditu Arrasateko kaleak, Herriko Plazatik abiatuta

Arrasateko Korrika batzordea abian da, lehen bilera eginda

Eguaztenean egin zuten lehen bilera eta hainbat eragiletako ordezkariak elkartu ziren: Udala, ikastetxeak, Euskal Herriaren Euskaraz, Txatxilipurdi, Ekin Emakumeak, AED, Fagor eta abar. Otsailaren 23an egingo dute bigarren saioa, 18:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Parte hartu gura duen edozeinentzat ateak irekita dituzte.

OHARRAK

Elkarretaratzea

111 tortura kasu Arrasaten izenpean mobilizazioa deitu du Arrasateko Sortuk, domekarako. 13:00etan, Herriko Plazan.

Hitzaldia gaztetxean

Lan erreformak ezkututzen duena hitzaldia egingo dute otsailaren 18an, egubakoitza, 18:30ean, Lubaki sareak antolatuta.

Arrasateko Ostalariak: "Diskriminatuta gaude"

Joan den egubakoitzean egindako elkarretaratzean Arrasateko Ostalariak taldeak salatu zuenez, ezin izan dute behar beste parte hartu terrazen ordenantza arautzeko parte-hartze prozesuan: "Bizilagunekin adostu gura ditugu gauzak, eta ezin dugu"

Eneko Azurmendi ARRASATE

Espazio publikoa erabiltzeko ordenantza arautzeko parte-hartze prozesua, Udalak sustatu eta Aztiker enpresak gidatu duena, "hasieratik bukaerara arte manipulatu" izan dela salatu du Arrasateko Ostalariak taldeak. "Oso diskriminatuta sentitu gara eta ezin izan dugu parte hartu, izenak berak dioen moduan, prozesu parte-hartzailean, bizilagunekin gauzak adostu ahal izateko. Izan ere, aurreneko zirriborroa bidali genuenetik, beti lehenetsi izan dugu bizilagunekin adostasunak lortzea, harmonia bat egotea, nola molestatu genezakeen ahalik eta gutxien, eta abar", azaldu du Ibon Leundak, Arrasateko Ostalariak taldeko kideak.

Halere, diotenez, egin dituzten lau bileretatik bakarrean lortu dute bizilagunekin hitz egitea, eta ostalariekin jolasten aritzea leporatu diote enpresari. "Lehenengoan, parte-hartzaileen aurkezpena besterik ez zen egin;

bigarrenean, ez zitzaion bileran sartzen utzi ostalariei, esanez ordurako zirriborroaren lana aurreratuta zutela eta hori bizilagunen kalterako zela, haiek ez baitzuten ezer prestatu; hirugarrenean, parte-hartze prozesu bat egin zen, mahai desberdinetan elkartzuta, eta bizilagun eta ostalarien arteko elkarrizketa lortu ahal izan zen, eta adostasun ugari lortu ziren; azken bileran, Aztikerrek, erabat aldatutako adostasun horietako asko eraman zituen, eta alegatu zuen, gerora eta aurreko bileren prozesutik kanpo, bizilagun desberdinekin geratu zirela eta akordio bat lortu aurretik iritsitako puntuak aldatzen joan zirela".

OSTALARIEK SALATU DUTENEZ, IA EZ DUTE AUKERARIK IZAN BIZILAGUNEKIN GAUZAK ADOSTEKO

Zirriborroari jaramonik ez

Ostalariak nabarmendu dute haien protesta eta mobilizazioei esker iritsi direla puntu horretara, haiek egindako zirriborroa ez dela aintzat hartzen ari. "Arrasateko Ostalariak taldeak ordenantzaren zirriborroa egin genuen, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin lankidetzan, eta beste udalerrri batzuetako ordenantzak jaso genituen, hala nola, Eibar, Donostia, Tolosa, Ordizia eta Zarautzekoak. Aztikerrek ez zien behin ere esan parte hartu zuten bizilagunei prozesu hori Arrasateko ostalariak eskatu zutela eta Udalaren sinadura zuela, eta zirriborroa erakutsi ere ez zieten egin. Gainera, zirriborro hori Aretxabaletako ostalariei bidali genien eta haiek lortu duten bitartean, guk ezer gabe jarraitzen dugu", azpimarratu du Leundak.

Aldizkari hau Aztikerrekin harremanetan jarri da, baina honek ez du adierazpenik egin gura izan gaiaren harira.

Ordenagailu eta tabletak batu, "arrakala gaitzetzeko"

Ekin Emakumeak elkarteak, Udaleko Aniztasun sailaren babesarekin, materiala batzen ari da

E.A. ARRASATE

Ekin Emakumeak elkarteak, Udaleko Aniztasun sailaren babesarekin, arrasatearrei kolaborazioa eskatu die arrakala teknologikoari aurre egiteko. "Zaharkituta edo etxeko txoko batean baztertuta izan ditzakezuen ordenagailu eramangarriak edota tabletak eskainiz lagundu dezakezue", azaldu dute.

Digitalizazioaren eraginez, "desoreka eta arrakala amaigabea" eragiten ari da gizartea, "herritar zaurgarrien kalterako". Elkarteak maiz artatzen dituzte baliabide teknologiko faltak eraginda edozein tramite digital egiteko beharra dutenak. "Zer esanik ez, seme-alabei eskola lanetan laguntzeko izugarriko zailtasunekin aurkitzen diren emakumeak. Eta noski, bizi dugun osasun krisialdiak, baliabide horien ezinbesteko beharra areagotu du eta baita agerian utzi ere digitalizatzeko prozesu hau pribilegio bihurtu dela askorentzat". Hala, herriko hainbat enpresarekin harremanetan jartzeaz gain, arrasatearrei ere kolaborazioa eskatu diete. "Jarri gurekin harremanetan eta, pozarren, eskaintzeko du zuena gure bulegoan, Pablo Uranga 4, behean, jasoko dugu".



NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

Kultura klasikoaren alde

Aspalditik dator: kultura klasikoa, latina, greziera... atzeraka doaz eskoletan eta unibertsitatean. Noski, kultura kapitalistaren ikuspegitik, ez dute askorik balio, ez diotelako kapital metaketari eta kontsumismoari ekarpen handirik egiten. Jakina, antzeko prozesuak ikusten ditugu Filosofiarekin eta Artearen Historiarekin. Filosofiaren kasuan, gainera, arriskutsua da bizi baldintzak okertzen ikusten dituzten gazteei gehiegi pentsaraztea, Filosofia fakultateetatik arazoak irten daitezke eta.

Hala ere, badirudi latina, greziera eta kultura klasikoa direla zinez azken hantsa ematekotan dauden alorrak hezkuntzan. Tristeia da, Mendebaldeko pentsamoldearen oinarrietan hizkuntza horiek daudelako eta gaurko pentsamendu politikoak aro klasikoan inspiraturik daudelako: Erregea ala Errepublikak, Zizeronen patrizioak ala Katilinen *proletariak*, Kraso ala Espartako, Zesar ala Bruto...? Liberalismoaren, komunismoaren, faxismoaren... oinarrian, izenetan bertan, Erroma eta Greziako zimenduak aurkitzen ditugu, baina batzuek gure ulermena ere kamustu nahi lukete. *Quousque tandem?*

Sarreraren 0,90 euroko errekgaria ez da ordaindu behar jada

Udal webguneko *Amaia antzokiko sarrerak* atalean erosten diren online sarrerak aukeratzeko, 0,90 euroko errekgaria ordaindu behar izan dute orain arte herritarrek. Halere, aurrerantzean Udalak hartuko du bere gain kostu hori. Ekimena Udal Gobernuaren eta EH Bilduren arteko 2022ko aurrekontu akordioan dago oinarrituta;

izan ere, EH Bilduk egindako zortzi proposamenetako bat da.

Bestalde, Udalak kutzazain bat jarri du BAZen ordainagiriak automatikoki ordaintzeko: "Zerga edo isunei dagozkien ordainagiriak azkar eta eroso ordaintzeko aukera emango du". Edozelan ere, kutzazain horretan ezingo da eskudirutan ordaindu eta BAZ zabalik dagoen bitartean erabil ahaliko da makina, hau da, astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 19:00etara, eta zapatuetan, 09:00etatik 13:00etara.



Arrasateko Ostalariak taldeko bi ordezkari, manifestua irakurtzen, egubakoitzean plazan egindako elkarretaratzean. MAIDER ARREGI



Egun bidegurutzera dagoen tokian biribilgune bat egingo dute; otsailaren bigarren hamabostaldian hasiko dituzte lanak. T.M.

Bidegurutzeko lanak, datorren astetik aurrera

Otegi Gaztañaga SL enpresak dauka egun bidegurutzera dena biribilgunea egiteko ardura, Osiñan, obra 129.065,41 eurogatik adjudikatu ostean; Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu duenez, otsaileko bigarren hamabostaldian hasiko dituzte lan horiek

E.A. ARRASATE

Otsaileko bigarren hamabostaldian, hau da, datorren astean, hasiko dituzte Osiñako biribilgunea egiteko lanak. Obra hori Otegi Gaztañaga SL enpresari esleitu dio Gipuzkoako Foru Aldundiak eta zortzi asteko epea izango du horretarako. Beraz, ondo bidean, apiril hasierarako bukatuta egongo da obra.

Biribilguneak 19,20 metroko kanpoko diametroa izango du eta bost metro zabaleko barne eraztuna. "Gainera, biribilgunearen 8,10 metroko eraztuna zapalgarria izango da, ibilgailu astunek eta autobusek biraketa maniobra errazago egin dezaten", dio Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatuak. Era berean, saihebidetik datozen

ibilgailuen abiadura mantsotuko dela azaldu du, eta mugimenduak erraztuko direla gaineratu. Inguruko argiztapena "nabarmen" hobetuko duen 250 W potentziako LED argiteria ere jarriko dute.

Lanek zirkulazioan eragina izango dute. "Dena den, saiaturako gara ahalik eta txikiena izaten", azaldu du Oiarbidek.



Hondeamakinak, lanean, Kataideko bidegorri zatia egiten. E.A.

Hilabete eta erdian berritu gura dute Kataideko bidegorri zatia

Campezo Obras y Servicios enpresak joan den astean abiatu zituen lanak, 266.090 euroko aurrekontuarekin

E.A. ARRASATE

Kataide industrialdea eta Deba ibaiaren artetik igarotzen den bidegorria hobetzeko lanak hasi dituzte. 690 metroko luzera duen igarobidea gainontzeko bidegorri sarearen ezaugarrietara moldatuko dute.

Hilabete eta erdiko epean bukatu nahi dituzte egokitzapenak. Bien bitartean, industrialde erditik joan beharko dira oinezko eta txirrindulariak. Horretarako, obrako langileak pasabidea egiten ari dira Kataideko sarreran. Lantegien amaierara iristean berriz sartu ahalko dira

erabiltzaileak Elorregirantz doan bidegorrira.

Pasabidea ibaiaren aldetik egingo dute zabalago. Lurreko galtzada-harria kendu, lurra berdindu eta berriz asfaltatuko dute, eremua laua izan dadin. Behin bide azpiegitura hobetuta, arrisku guztiak uxatzeko, txirrindulariei abiadura mantsotzea eskatzen diete oinezkoek.

2022ko lehen seihilekoan, beraz, eskualdeko bizilagunek "mugikortasun iraunkorraz gozatzeko azpiegitura seguru eta irisgarri bat" izango dutela azaldu dute Gipuzkoako Foru Aldunditik.

GORA ETA BEHERA



"Zabortegi berria daukagu Epelen"

Herritar batek kezka azaldu du azkenaldian Epeleko bide bazterretan ikusi izan duen zaborragatik, esaterako, irudian ikusten den pneumatiko pila; eta egoera salatu gura izan du: "Zabortegi berria daukagu Epelen".



Seinale berriak jartzea falta da

Gipuzkoako Foru Aldundiak bukatzeaz ditu GI-627 errepideko 36. kilometroko lanak. Batetik, zoruari tratamendu berezi bat eman diote, gurpilek asfaltoari hobeto eusteko –marruskadura handitzeko–. Bestetik, gehieneko abiadura 60 kilometro ordukoa da orain. Hori adierazten duten seinale berriak datorren astean jarriko dituzte.



Bi kamioi, saihebidetan, GI-627 errepideko 36. kilometroan. E.A.



Dragoi taldeko kadete mailako gimnastak, joan den asteburuan Ibarroko txapelketan. ARRASATEKO DRAGOI GIMNASIA TALDEA

Neurriak malgututa, gerriak malgutzera

Dragoi taldeko gimnastak lehiaketara itzuli dira, ia bi urteren ostean, joan den domekan Gipuzkoako eskolarteko amateur mailako lehen fasean parte hartu baitzuten: "Orain tariman gozatu nahi dugu, gure buruari presiorik jarri gabe"

Hasier Larrea ARRASATE

Ilusioa berreskuratu dute Uarkape pilotalekuan eta Arrasate Institutuko gimnasioan entrenatzen duten herriko 130 gimnasta gazteek. Urtebete entrenatu ezinik eta beste hamar hilabete txapelketa gabe egon ostean, 2022ak argi pixka bat ekarri die Dragoi taldekoiei: "Aurtengo denboraldia badirudi desberdina izango dela, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak egitekoak direlako", adierazi du Edurne Elkorro entrenatzaileak.

Izan ere, pandemia garaian eskolarteko eta amateur mailako norgehiagokak Estatu mailan bakarrik garatu dira; talde txikiak ezin izan dute parte hartu, beraz. Alternatiba aerobician topatu zuten klubeko gimnasta nagusienek: "Modalitate horretan lehiatzeak kirola egiten jarraitzeko aukera eman die. Gimnasia erritmikoa menderatzen zuten, ondo moldatu dira aerobicarekin; txapelketa bat ere irabazi zuten Valentzian".

Bueltan dira jendaurrekoak

Gimnasia erritmikoa da taldearen espezializazioa -%88ak praktikatzen du-, eta otsailaren 6ra arte itxaron behar izan dute hain gustuko duten horretan lehiatzeko. Pilotarekin eta uztaiarekin aritu ziren Ibarroan, lehen postua eskuratu, kadete mailako Nira Cid, Eider Vazquez, Paula Andres, Iradi Belategi, Haizea Bolinaga eta Anne Hurtado; pilotarekin eta bakarka, aldiz, gazte mailako Maria Martiarena. Gipuzkoako txapelketa horren bigarren fasea martxoan jokatuko dute, eta lehen hamarren artean sailkatuz gero, maiztzeako finalean izango dira.

Ate joka daukate, baita ere, martxoko Udaberri torneoa,

HAINBESTE HILABETEREN OSTEAN "ONDO" LEHIATZEN HASTEAK "ASKO" EMAN DIE GIMNASTEI

ekainean Euskadiko txapelketan lehiatuko direla ahaztu gabe. Horietan alebin mailatik gorakoek parte hartzen dutenez, gaztegoek erakustaldietan eman dezakete euren dohainen berri: "Txikienei ilusio handia egiten die Musakolako San Isidro jaietan edo kurtso bukaerako ekitaldian irtetea; ea bi hauek antolatzerik badugun aurten", adierazi du Elkorro.

Lan-saioak, distantziatik

Neurriak malgutuz ari diren arren, entrenamenduak maskarekin eta metro eta erdiko gutxieneko distantzia mantenduta jarraitzen dute egiten. Horren harira, Elkorro aipatu du musukoaren derrigorrezko erabilera kentzen dutenean gimnastei "kosta" egingo zaie lehenengo dinamikara itzultzea. Segurtasun-tarteagatik, aldiz, zenbaitek kalean geratu behar izan duela nabarmendu du, "20 laguneko taldeak 12ra" murriztu behar izan dituztelako.



Eskubaloiko A eta B taldeetako jokalariek, Musakolako kiroldegian. H.L.

Klub bereko bi talderen arteko derbia, domekan Iturripen

Arrasate Eskubaloiko Taldeko kadete mailako emakumezko bi taldeek elkarren aurka jokatuko dute

H.L. ARRASATE

Ezohikoa da herri bereko bi talde elkarren kontra lehiatzea, are gehiago klub berekoak izanda. Gipuzkoako eskubaloiko emakumezkoen kadete mailako B ligan gertatuko da. Ingotu Arrasateren bi ordezkariak -A eta B- nor baino nor arituko dira etzi, 12:00etan, Iturripen kiroldegian. Duela hilabete jokatuko beharreko neurketa zen, baina atzeratu behar izan zuten COVID kasuak tarteko.

Ane Herrero da A taldeko entrenatzaileetako bat. Azaldu du kadeteetan "jokalaria asko" zeu-

delako egin zituztela bi talde. Lehen urtekoak zuzentzen ditu, sailkapenaren erdialdean daude, eta azken partiduan garaipena eskuratu zuten Leizaranen aurka. B taldean, aldiz, lehen eta bigarren urteko jokalariek daude. Zapatuan Urnietarekin indarrak neurtzetik aurkeztuko dira derbian, azken postuetatik aldentzeko gogoz.

Gertatzen dena gertatzen dela, klubaren emakumezkoen harrobia irtengo da garaile: "Ea gaitzaren oinarri honekin seniorretatik infantiletara ordezkarietara ateratzeko, gerora begira".

Dezimak hobetzea, atleten aurtengo erronka nagusia

Joan den astean Anoetan erakutsitakoari jarraipena eman nahi diote Arrasate Kanpazar Atletiko taldekoek

H.L. ARRASATE

Mojategin entrenatzen duten korrikalarien azken hitzordua pista estaliko Euskadiko txapelketa absolutuan izan zen, Anoetako belodromoan. Bertan, Ane del Fresno, Iker Menor eta Ainara Lopez aritu ziren, lehenengo biak 60 metroko distantzian eta azkena 400 metrokoan. Finaleraino sailkatzerik izan ez bazuten ere, klubetik konforme azaldu dira lortutako emaitzekin: "Lopezek eta Del Fresnok euren markak hobetzea lortu zuten, eta Menor ere bere mailan ari-

zu zen", adierazi du Jon Ormaetxeak. Otsailaren 19an Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute taldeko 22 ordezkariak: "Ea lehiatze lehia emaitza hobeak lortzen ditugun".

Etzi, gainera, Arraten eta Lasarten lehen izandako Lander Lanzos infantila Gipuzkoako eskolarteko kros txapelketan lehiatuko da Ordizian.

Azkenik, Malen Ruiz de Azua, Maialen Axpe eta Alex Agiriano jautzilariek klubaren arteko pista estaliko txapelketa jokatuko dute Madrilan, zapatuan.

Harizko musika dantzaz, martitzenerako menua

Alos Quartet laukoteak Kimua dantza kolektiboarekin landutako ikuskizuna aurkeztuko du hilaren 15ean, 20:00etan, Amaia antzokian, 'Beste bat berritzen' ekimenaren baitan. Arrasate Musikaleko ikasleen laguntzaz borobilduko dute saioa

Hasier Larrea ARRASATE

Niko Etxarten dei batek elkartu zituen lehen aldiz, 1999an eta "kasualitatez", Xabier Zeberio, Lorena Nuñez, Francisco Herro eta Ivan Carmona sokazko musikariak. Altxurüküko abeslariaren etxean kantu bat grabatu ostean hasi zuen Alos Quartet-ek bere ibilbidea, eta ordutik lau disko propio, 20 urteko ibilbidea laburtzen duen lana eta artista ugariarekin kolaborazioak –Kepa Junkera, Eñaut Elorrieta, Izaro Andres, Waldemar Santos...– egin ditu.

Zeberioaren konposaketetatik abiatzen dira biolin, biola eta txelo doinu osatutako kantak: "Egiten dugun musika sailkatzea zaila da; herrialde askotako iturrrietatik edaten dugu eta esanenezake gure sorkuntzak oinarri klasiko duela, folkak eta minimalismoak ere presentzia handia izanik", bota du Oskorri taldean aritutako Zeberio.

Halako emanaldi bat astebarruan izateak Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen *Beste bat berritzen* dinamikarekin du zerikusia. Izan ere, egitasmo horren asmoa zuzeneko egitasmo artistikoei hedapen zabalagoa ematea da. Astearte kontzertua egiteko ezohiko eguna dela jakitun, arrasatearrak Amaia antzokira



Alos Quartet-eko musikariak, euren instrumentuak eskuan dituztela. INIGO ROYO

23 URTEAN "ZIGILU BEREIZGARRIA" ESKURATU DU ALOS QUARTET TALDEAREN ERREPERTORIOAK

gerturatzeraz animatu ditu Zeberio, "damutuko ez diren emanaldia" delako.

Herriko musikariekin

Promesa hori betetzeko osagai berezi bat gordeko dute kontzer-

tuaren bukaerarako, Arrasate Musikaleko dozenaka ikasle igoko baitira agertokira *Epel* abestia interpretatzera: "Formula hau Gasteizko eta Tolosako ikasleekin probatu izan dugu, eta oso positiboa izan da esperientzia; gure soinuak flauta, klarineta eta akordeoia moduko musika-tresnekin aberastuko dituzte". Gainontzean, *Lau* izeneko estudioko azken diskoa aurkeztuko dute nagusiki, nahiz eta euren bilakaeraren berri ematen duten pieza instrumental gehiago ere joko dituzten.


Historiaurrean bizirauteko tekniken tailerra Zaldibarren

Aranzadi zientzia elkarteko Jose Julian Marquezek neandertalen garaia gerturatuko du bihar goizean

H.L. ARRASATE

Elgoibarko Hezur Museoko arduraduna da Jose Julian Marquez, eta Kulturateko *Lezetxiki, neandertalen lurraldea* erakusketaren testuinguruan, erakustaldi berezia eskainiko du Zaldibarko frontoian bihar, zapatua, 11:30ean hasita. Duela milaka urte bizi izandako giza espezieak egunerokoari nola aurre egiten zion azalduko du Marquezek, hitzekin eta ekintzekin.

Hala, sua egiteko prozedura, ehizarako eta arrantzarako teknikak eta ehorzketa errituak izango ditu hizpide, besteak beste. Hori guztia, harriz eta hezurrez zizelkatutako piezen bitartez jarriko du praktikan, arkuak, arpoiak, amuak, lanparak edota zintzilikarioak erabilita, esaterako. Martxoaren 26an bigarren saio bat egingo du Marquezek.



Marquez, makilekin. 'MORKAIKO.EUS'

Udalaren webgunearen bidez

Ekintza horretan parte hartzeko, Lezetxikirekin lotutako beste guztiekin gertatzen den bezala, *arrasate.eus*-en eman behar da izena. Erakusketako bisita gidatuetako plazak bete egin dira martxoaren bukaerara arte.

Metal gaua bihar gaztetxean, Aramaioko musikariak tarteko

Bailarako ordezkariak daukan Balarrasa taldeak Hellwatch eta Sönambularekin partekatuko du oholta

H.L. ARRASATE

Basque Underground Metal mugimenduak eta AGAKOk antolatuta, potentzia handiko hiru taldek joko dute zapatuan, hilak 12, Arrasateko gaztetxean, 20:00etatik aurrera. Aramaioko eta Durangoko musikariz osatutako Balarrasak 2020an kaleratutako diskoa aurkeztuko du: "Metal ukituak daukan hard-rocka egiten dugu; konposatzen ditugun kantak gero eta gogorragoak dira, dena ematera joango gara" adierazi du Omar Grana abeslariak. Death metal estiloa besarkatzen duten bi talde izango dute alboan: Hellwatch eibartarrak eta Sönambula bilbotarrak.

Datorren astean, gehiago

Eguenean, hilak 17, Kooltur egitasmoaren baitan, Dupla bikoitearen txanda izango da,



Balarrasakoak, egurrean. BALARRASA

22:00etan; aguraindarrek dantzan jarriko dute gaztetxea, agro-pop bezala bataiatu duten musikarekin. Eta otsailaren 19an, zapatua, oi! doinuak nagusituko dira, Kaleko Urdanga, Harry May eta Oldarkor taldeak baitaude iragarrita.

Kimua taldekoak bidelagun

Sokazko laukoteak Kimua dantza kolektiboko koreografoen mugimenduekin osatuko du ikuskizuna. Urte askoan egin dituzte kolaborazioak batera, diziplina biak elkarri laguntzeko daudela frogatuz. Kimuako partaideek dantza tradizionala eta modernoa uztartzeko bokazioa dute, bai lankidetzak egiterakoan eta baita sorkuntza propioa piezetan.



Dantza kolektiboko kideak, mugimenduak entseatzeko. KIMUA

"Zoru pelbikoa da gorputzaren oinarria"

ANIA IBISATE FISIOTERAPEUTA

Aldundiaren '+55 elkartegiak' programaren barruan 'Gure zoru pelbikoa lantzen ikasten' tailerra egingo dute otsailaren 15ean eta 22an. Aurrez izena eman behar da

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

55 urtetik gorakoei zuzendutako bi saio eskainiko ditu Ibisatek. **Zer eskainiko duzu ikastaroan?**

Alde batetik, ezagutuko dugu nolakoa den zoru pelbikoa eta anatomia, eta gizezkoen eta emakumezkoen artean dagoen ezberdintasuna bereiziko dugu. Behin, anatomia eta fisiologia ezagututa, ikusiko dugu ze gauza ez diren onak gure zoru pelbikoarendako: prebentzioa. Horrez gain, inkontinentzia arazoak, minak, kaka edo haize inkontinentziak ditugunean zer egin dezakegun horiek hobetzeko. Bigarren saioa praktikoagoa izango da. Daukagun arazoaren aurrean ze ariketa zehatz egin ikusiko dugu; izan ere, zoru pelbikoan, inkontinentziaz gain, badaude beste arazo batzuk.

Ze garrantzi du zoru pelbiko osasuntsu bat izateak?

Gure posturarentzako oso garrantzitsua da. Zoru pelbikoa gure gorputzaren oinarria da,



Ania Ibisate fisioterapeuta gasteiztarra. A.I.

horregatik indartuta baldin badaukagu gure bizkarraren eta gorputzaren postura hobea izango da. Bestalde, gernu galerarik ez izatea, baita ere puzkerrak eta kaken kontinentzia izatea... mina ekiditea... Izan ere, askotan,

pelbiseko, edo adinarekin aldatu izaten diren minak zoru pelbikoarekin daude erlazionatuta. Gero eta indartsuago izan zoru pelbikoa osasun hobea izan dezakegu. Ez bakarrik inkontinentzietan; badago beste arazo

bat izaten direnak urgentzia inkontinentziak, oso azkar joan behar duzunean komunera.

Nahiko ezezaguna da zoru pelbikoa. Zergatik?

Gertatzen dena da oso erlazionatuta daukagula sexualitatearekin, eta sexualitate gaiak oso tabu dira gure gizartean, Asko hitz egiten da, baina egi gutxi-rekin eta horrek dakar jende askok horretaz ez hitz egitea eta ezkutuan izatea. Egia da zoru pelbiko osasuntsu batek baita ere sexualitatearen inguruan arazorik ez izatea eragingo dizula. Lotsa ere egotean da. Txizta galtzea ez da samur kontatzen duzun zerbaite; ukondoan min duzula esaten duzun moduan. Egia da medikuek ere ez dutela galdetzen: adin bat duzunean, logikoa izango litzateke medikuak galdetzea ea arazorik duzun.

Sexu harremanetan zelako arazoak sor ditzake zoru pelbikoa kaltetua izateak?

Gizonetan izan daiteke erekzio eta eiakulatze arazoak; edo orgasmoaren indarra galtzea edo ez izatea. Emakumearen kasuan baita ere; sentsibilitatea galtzen da zoru pelbikoa ez bada osasuntsua eta egia da ez duzula horrenbeste gozatzen eta orgasmoa iristeko ere arazo gehiago izan dezakezula. Baina batez ere gozamina; izan ere, orgasmoak ez du zertan izan helburu. Ez duzu gorputzeko gune horren kontrola eta gutxiago sentitzen duzu zonalde hori.

Nori zuzendutako ikastaroa da?

Zoru pelbikoaz hitz egiten dugunean amatasunarekin erlazionatzen dugu: haurdunaldia, erditzea... Baina gizezkoetan ere zoru pelbikoa badago eta gaur egun asko ari da hitz egiten prostategoniaz. Interbentzioren bat jasan ondoren has daitezke zoru pelbikoaren arazo larrienak; baina, horrek ez du esan nahi aurretik gizon gazteek ezin dutenik arazorik izan. Sexualitateaz, gernu jarioaz, prostataz... gizezkoen, agian, lotsa gehiago ematen die horretaz hitz egitea. Gero eta gehiago bizi gara; hortaz, gizon gehiagok pairatzen dute arazoa eta tratamendua eskatzen dute.

Egunerokoan, zer egin dezakegu?

Alde batetik zaindu, minik ez egiteko: txiza eta kaka ze posturatan egin jakitea garrantzitsua da, adibidez; baita, ariketa fisikoa nola egin ere. Bestetik, ikasiko dugu sentitzen non dagoen gure zoru pelbikoa; nola landu dezakegun, egunerokotasunean ze ariketa txiki egin dezakegun... egunero samur egin dezakegun ariketak indartzeko eta sentitzeko. Ez baduzu zonalde bat sentitzen ezin duzu erabili.

"ZORU PELBIKO KALTETUAK EREKZIO ETA EIAKULAZIO ARAZOAK SOR DITZAKE"



Beste behin, santa eskean

Ohitura zaharrak mantentzeko asmoz irten ziren zapatuan santa eske herrikoian. 40 bat lagun batu ziren, eta hiru taldetan banatuta auzoetan eta kalean ibili ziren koplak abesten. Eskolako umeen kasuan, egubakoitzean, Santa Ageda bezperan irten ziren: nagusitxoek auzoetan ibili ziren, eta txikiak herrian zehar. Datorren urtean "baserriz baserri, atez ate" ibiltzeko gogoia erakutsi dute eskolako arduradunek.



IMANOL SORIANO ETA ESKOLAKO GURASOAK



Santi Balantategi zinegotzia Ipiztetik Kasatxorako bidean. ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

Udal basoak zaintzen eta txukuntzen ibili dira

Europatik datozen dirulaguntzekin finantzaturako 'Life Oreka Mendian' proiektuan sartu zen Aramaio Udalak. Urkiolako parke naturalean dituen baso publikoak mantentzea da asmoa, mendi larreak bultzatzeko. Hainbat gune garbitu dituzte

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Europako dirulaguntzekin bideratutako *Life Oreka Mendian* proiektuan sartu zen Aramaio Udalak, Urkiolako Parke Naturalean dituen lur eta baso publikoak bultzatzeko eta hobetzeko asmoarekin. Azterketa bat egin ostean, gune batzuk identifikatu zituzten: horietan, sas-trakak kendu eta zelaiak indartzea aurreikusi zuten.

Lanak, bi zatitan

2020-2021 urteetan egiteko proiektua zen, baina hainbat arazo tarteko atzeratu egin dela dio Santi Balantategi ingurumen zinegotziak: "Iaz ibili ziren lan batzuk egiten, Teillamendi eta Arangio inguruetan, hain zuzen; Ipizti eta Kasatxo ingurua egin gabe utzi zuten, sai zuriaren umealdia errespetatzeko. Bada, aurreko astean garbitu zituzten inguru horiek ere". Ipizti eta Kasatxo inguruan sas-trakak kendu dituzte; horrez gain, Ipiztikorriagako aparkamendu

azpian, Japoneko gereziondo – *prunus serotina*– arbola inbasorea kendu dute eta Arriolatik Larrazabalera doan pistan, parke naturaleko sarreretako batean, sas-trakak eta bide bazterrek garbitu dituzte.

Balantategi zinegotziak gaineratu du azkeneko lan bat dutela egiteko: Arangio mendian aska edo ur putzu bat jartzea animaliek ura edan dezaten.

Larreak bultzatzea

Proiektuaren helburua da abeltzaintza bultzatzea; horregatik, basoak eta mendiak garbitu nahi izan dituzte larreak txukun izateko. "Gero eta animalia gutxiago dabilta mendian eta Udalak nahi duena da samurtasunak

LANAK GUZTIZ AMAITZEKO AZKENEKO LAN BAT FALTA DA: ARANGION ASKA JARTZEA

ematea herritarrek anima daitezen animaliak izatera", dio Balantategik, eta gaineratu du: "Mendia garbi izateko modu onena animalia ibiltzea da, eta bultzada honekin lehengo egoerara itzuli nahi dugu".

Ardura, Diputazioak

Urkiolako parke naturalaren barruan daude aipaturako baso eta larreak. Bizkaiko aldundiak kudeatzen du Urkiolako parke naturala; Aramaio Udalak aldundiarekin adosten ditu egin beharreko lanak, baina Aldundia arduratzen da lan horiek egiteaz.

Horrez gain, Bizkaiko Aldundia arduratzen da parke naturalerako sarrerak txukun mantentzeaz, eta horrek lanak asko erazten dituela dio Balantategik.

Udalak dituen gainontzeko udal basoetan, parke barruan ez daudenetan, udala arduratu behar da basoak txukun mantentzeaz.

Apirilean hasiko da Amurrion Arabako Bertsolari Txapelketa

Martxoaren 19an aurkeztuko dute Arabako Bertsolari Txapelketa. Lau fasetan banatuko da lehiaketa

A.E.G. ARAMAIO

Martxoaren 19an aurkeztuko dute Arabako Bertsolari Txapelketaren XV. edizioa. Dagoeneko aurreratu dutena da apirilean hasiko dela 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketa.

Urtarrilean hastekoa zen txapelketa baina egoerak baldintzatuta data atzeratzea erabaki zuten bertsozale elkartean. Amurrion hasiko dute txapelketa, apirilaren 1ean eta ekainaren 11n izango da finala Gasteizen.



Agirre eta Abarrategi. 'BERTSOZALE.EUS'

Lau fase izango ditu

Txapelketako lehia lau fasetan banatuko da: final zortzirenak 30 bertsolarirekin jokatu dute, final laurdenak 18rekin, finalerdia 12rekin eta finalera sei bertsolari iritsiko dira. Gaiak jartzen eta aurkezle lanetan, aldiz, 11 lagun ibiliko dira eta bertsolarien lanak epaitzen sei

lagun. 2021ean jokaturako Arabako Bertsolari Txapelketa binakako formatuan jokatu zuten. Ekitaldi hartan, maiatzean Legutition jokaturako finalean, Manex Agirre eta Martin Abarrategi aramaioarrek jantzi zuten okasiorako bordaturako txapela.

Zabalik dago Salto udalekuetan izena emateko epea

UEMAK antolatzen dituen Salto udalekuetan izena emateko epea zabalik dago. Martxoaren 31ra arte eman beharko da izena, ekainaren 27tik uztailaren 3ra egingo diren udalekuetan.

Udaleku ibiltaria izango da Salto. Bi zutabe irtengo dira, 50 lagunekoak: zutabe bat Tolosatik irtengo da eta bestea Etxarri Aranatzetik. Bi taldeak Leitzan

elkartuko dira laugarren egunean, eta Leitzan egingo dituzte azkeneko egunak denek elkarrekin.

Udalekuak zuzenduta daude 2004tik 2007ra bitartean jaiotako gazteei. Udalerri euskaldunetako gazteak elkar ezagutzeko modua izango da. Udalekuetako prezioa 95 euro izango da, eta izena eman beharko da www.uema.eus wbgunean, 943 81 66 99 telefono zenbakian edo arnasguneak@uema.eus helbidera mezua idatzita.

Korrika antolatzeko bilera irekia egingo dute eguaztenean

Martxoaren 31an hasiko da Korrika Amurrion, eta apirilaren 10ean bukatu Donostian. Oraingo ekitaldia ez da Aramaiotik pasako; hala ere, aramaioarrak Korrikarekin kolaboratzeko prest daude. Eguaztenean, otsailaren 16an, 18:00etan bilera irekia egingo dute udaletxean. Kilometroa non erosi, ekintza kulturak, korrika txikia... adosteko.

Domekan jokatu du Aramaioko areto futbol taldeak

Ligako 11. jardunaldia jokatu dute aste bukaeran. Aramaio Tropikalak Gasteizko Bitcoin Club hartuko du etxean. Partidua domekan izango da, 18:00etan, kiroldegian. Aramaioko taldea zilarrezko ligako bigarren postuan dago 24 punturekin. Dinamo Lakuabizkarra liderra puntu bakarrera du. Bitcoin taldea bederatzigarren postuan dago.

Urteurrenari keinua hamabost zuhaitzekin

Zuhaitz Eguna antolatu dute UDAk eta Udalak elkarlanean datorren otsailaren 20rako. Hiru haritz landatuko dituzte Ojala Zelain eta beste bat Ibarra futbol zelaiaren sarreran; horrez gain, beste hamabi kimu ere landatuko dituzte inguruan

Mirari Altube ARETXABALETA

Zuhaitz Eguna eta Aretxabaleta kirol elkartearen 75. urteurren bat egingo dute otsailaren 20an, domeka. Zuhaitz Eguna antolatu dute elkarlanean Udalak eta UDAk eta hamabost zuhaitz kimu landatuko dituzte.

Ojala Zelain hiru

Ingurumena babestu eta zaindu beharraz sentsibilizatzea du helburu Udalak urtero antolatzen duen egun horrek eta zuhaitzek hiri inguruneetako bizi kalitatean duten garrantzia jarriko da arreta oraingoan ere.

Bi gunetan banatuta hamabost zuhaitz landatuko dituzte; horietako hamabi Ibarra futbol zelai inguruan: haritz bat *-quercus robur-*; likidanbar espezieko bederatziki kimu; urki bat *-betula verrucosa alba-* eta aligustre bat *-ligustrum-*. Beste hirurak haritzak izango dira eta Ojala Zelain topatuko diete lekua. "Eremu horretako zuhaitz batzuk zahartzen eta gaixotzen dabiltza eta poliki-poliki berriak landatu beharko dira baso horrek bere horretan iraun dezan", azaldu du Unai Elkoro alkatea. Domeka horretarako ustelduta dauden hirurak bota egingo dituzte eta zuloak gertatu landatuko. Gaineratu du ez direla izango dezenteko kimuak izango direla.

Ibarrako sarreran haritza

Zaintzari garrantzia eman nahirik sustatu du UDAk ekimena. "Kiroletik harantzago joan gura dugu sarri esan izan dugun moduan eta zaintzari garrantzia handia ematen diogu, pertsonaren zaintzari zein haren bueltako guztiari", adierazi du zuzendaritza batzordeko kide den Dorleta Ezeizak. Landatuko den zuhaitzetako bat nabarmendu gura izan du: "Futbol zelaiaren sarreran jarriko da haritz bat". 16-18 zentimetro inguruko zir-



UDAKo zuzendaritzako kide Dorleta Ezeiza eta Unai Elkoro alkatea. MIRARI ALTUBE

kunferentzia izango du horrek eta elkartearen 75 urteei egingo dieo keinu.

Otsailaren 20an, 10:00etan egin dute hitzordua Ibarra, eta handik Ojala Zelaira joango dira: "Futbol eskolakoei dei berezia

egingo diegu anima daitezen. Ojala Zelaitik bueltan landatuko ditugu Ibarra inguruan". Ekitaldian edonork parte hartu ahal izango du eta bukatutakoan, mokadutxo eskainiko diete lanean jardundakoei.

Urteurrenako ekitaldi gehiago

COVID-19ak atzeratu egin ditu ekitaldiak baina laster dira abian.

Martxo

- Hitzaldiak erreferente diren kirolariek eta musikak girota. Hilean behin, eguaztenetan, tabernatan.
- Omenaldia elkartearen presidente ohiei.

Maiatza

- Argazki erakusketa herriko hainbat gunetan banatuta.
- Aretxabaleta taldekoen eskutik ezustekoa.
- Omenaldia Espainiako Kopa irabazi zuten jokalariei.
- Leixargarateko aterpetxearen urteurrenako ekintzak.

Ekaina

- UDA Eguna: kirol jarduerak, pintura lehiaketa, bazkaria, kontzertua.

Abuztua

- Leintz bailarako 83. txirindulari itzulia.

Iraila

- Mendi lasterketa.


Kortaburu ingurura ibilaldia antolatu du Loramendi elkarteak

Toponimia taldeak gertatutako hamabigarren ibilbidea da eta otsailaren 19an egingo dute Urkulutik abiatuta

M.A. ARETXABALETA

Urkulutik abiatu eta Oñatiko mugetara gerturatuko dira Loramendi elkartearen Toponimia taldeko kideak hamabigarren ibilaldian. Otsailaren 19an izango da hori, zapatua, eta herritarrek bertara gonbidatu dituzte; 09:00etan da hitzordua Urkulu urtegiko horman eta autoz gerturatu gura dutenak 08:45ean egon beharko dira Ojalako aparkalekuan. Oinetako egokiak jantzea gomendatu dute eta bakoitzak hamarretakoa eroatea.

Kortaburu, Arriurdiñeta, Txurleku, Gorordo eta Urrexolagaraitik pasatzen den ibilbidea zehaztu dute, zortzi kilometro eta erdikoa. Ohi legez, kontu-kontari joango dira Toponimia taldeko kideak eta erlezainen, korten, mairuen eta leinuen arteko borroken istorioen berri emango dute. Horregatik, lau



Ibilbidearen mapa. WIKILOK

bat orduko goiz-pasa izango dela iragarri dute.

Toponimia taldeak antolatutako azken ibilaldia da; aurretik, Aretxabaleta erdigunea zein inguruko auzo guztiak pasatu dituzte, baita Urkulu, Kurtzebarri eta Degurixa ere.

Hitzaldiek ez dute etenik Kuku Miku elkarteak

Kuku Miku elkarteak "indartsu" hasi du urtea, eta aurrekoaren bidetik, hilabete guztietan izango dituzte ekitaldiak. Hala, otsailaren 22an (17:30) haurraren hizkuntza garapena izango dute berbetarako gai, eta horren gaineko argibideak emango dizkie Esan logopedia zentroko Libe Morales adituak. Urtarrilekoa, umearen loaren gainekoa, atze-

ratu beharrean izan ziren eta martxoan izango dela jakinarazi dute.

"Jakin-min handia piztu dute orain artekoek; kanpotik ere gerturatu dira hainbat lagun, baina bazkideek dute lehentasuna. Hogei lagunendako lekua dugu gure aretoan eta bete egin izan dira", adierazi du zuzendaritzako kide den Iratxe Arbulok. Parte hartzeko aurretik egin behar da eskaera mezu bat bidalita elkartera: kukumikuelkarte@gmail.com.

Odola emateko azken aukera izango da otsailaren 17an

Urteko lehen odol ateratzeak datorren astean bukatuko dituzte; eguenean, hilaren 17an, etorriko da horretarako autobusa Durana kalera, 16:45etik 20:15era bitartean. Euskadiko odol emaleen elkartetik gogorarazi dute odol behararen arazo ez dela konponduko pandemia bukatu artean eta herritarrek ematera gonbidatu dituzte.

'Covid ziurtagiria' tramitatzeari utzi diote Basotxon

Abenduan jarri zuen indarrean Eusko Jaurlaritzak Covid ziurtagiria eta horren tramitazioa errazteko laguntza eman dute Basotxo erretiratuen elkarteak. Joan den astean bertan behera utzi zuen ziurtagiri hori Jaurlaritzak, eta Basotxok ere tramitazioa etetea erabaki du. Erretiratuak "pozik" daude zerbitzuak izan duen harrerarekin.



Udal ordezkariak eta ikastetxeetakoak formakuntza saioen berri ematen. ARETXABALETAKO UDALA

Gurasoak trebatzeko saioak datozen asteetan

Foru Aldundiak sustatutako Treba Gurasoak ekimenarekin bat egin du Aretxabaletako Udalak herriko hainbat ikastetxeren babesarekin, eta seme-alaben hezkuntza prozesuan laguntzea helburu duten hiru hitzaldi antolatu ditu

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Gipuzkoako 28 udalerritan abian jarriko den Treba Gurasoak ekimena Aretxabaletara iritsiko da datorren astean. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du eta Udalak bat egin du horrekin; Kurtzebarri eskolaren eta Arizmendi ikastolaren laguntza izan du, baita bi ikastetxeetako guraso elkarteena ere. Gurasoak hezkuntza gaitasunetan prestatzea du helburu horrek, baita haurren eta nerabeen bizi kalitatea hobetzea ere.

Gurasotasun positiboa

Gurasotasun positiboan oinarritutako eskaintza pedagogikoa da Treba Gurasoak programa.

"Harreman afektibo osasuntsu, babesle eta egonkorrak sustatzeaz gain, errutinetan eta ohituretan egituratutako hezkuntza-ingurune bat sortzeko", azaldu dute antolatzaileek eta gaineratu "estimulazioa, babesle eta ikasteko aukerak" sustatu nahi direla programa horrekin: "Haurren eta nerabeen lorpenak eta gaitasunak aitortuz, eta haien eguneroko bizitzan lagunduz".

Datorren astean bi hitzaldi

Hiru hitzaldi eskainiko dituzte datozen asteetan. Lehenengoa, astelehenean izango da, otsailaren 14an, eta Nerea Mendizabal psikopedagogo eta gizarte hezitzaileak komunikazio ez bortitza

izango du berbetarako gai. Bigarrena, hilaren 16an da; emozioek familian duten garrantzia eta horiek seme-alabekin nola zaindu azalduko du Donna Apeñaniz adimen emozionalaren hezitzaileak.

Azkena, apirilaren 27an izango da, eta Hezkuntza Zientzietako doktore den Rakel Gamitok egingo du berba Interneteko ohituren, arriskuen eta erabileraren seguruaren gainean.

Hiru hitzaldiak Arkupen izango dira; lehenengoa gaztelaniaz (18:45ean) eta gainerako biak euskaraz (18:00etan). Argibideak gura dituenari Gazteria Zerbitzuan emango dizkiote: gazteria@aretxabaleta.eus eta 943 71 18 62.

Jai gogoa piztera etorriko da Txapel Txin otsailaren 19an

Egitarau "xumea baina ilusio handiarekin gertatutakoa" dela iragarri du Aretxabaletako pertsonaia ospetsuak

M.A. ARETXABALETAKO

Otsailaren 19an etorriko da Aratusteen berri ematera Txapel Txin. Iaz ez zuen mozturro jairik iragartzetik izan eta aurten "gogotsu" dago horretarako.

Kalejirarekin emango diote hasiera ospakizunari eguerdian eta *Mangera party* izango da 13:00ak bueltan, Txapel Txinen irteerarekin bat eginez; arratsaldean, Orkrestra elektrotxaranga girotuko ditu kaleak, eta 18:00etan Aratusteen berri eman go du pegoiarekin. Bukatzeko, 21:30ean, Banana shake talde

arrasatearraren kontzertua izango da Mitarte kalean.

"Alaitasuna zabaltzeko"

"Urtebeteko loaldi behartuaren ostean, heldu da poliki-poliki esnatzen joateko momentua", adierazi die Txapel Txinek herritarrei sare sozialen bitartez eta gaineratu egitaraua "xumea" bada ere "ilusio eta gogo handiarekin" gertatu dutela: "Kalera irten eta gure herriko txokoetara hain beharrezkoa dugun alaitasuna zabaltzeko sortutakoa, beti ere arduraz".



OIHANE AGIRRE

Korrika batzordea lanean hasita

Aretxabaletako Korrika batzordea eratu da eta lehen bileran elkartu ziren, besteak beste, ikastetxeetako ordezkariak, kirol elkarteetakoak, euskalgintzakoak zein gaztetxoekin lanean dihardutenak. Hurrengo otsailaren 23an izango da (18:30), udaletxe zaharrean. Aurretik, hilaren 18an eta 19an, materiala saltzeko mahaia jarriko dute Durana kalean.



Durana
Hertz Klinika

ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO
APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETAKO • TEL.: 943 79 93 55

"Zaletasun bati heltzeko sekula ez da berandu"

MARGA ZUBIA PINTOREA

Arrasateko Margo Taldeko kideak bakarkako lehenengo erakusketa jarri du Arkupen; askotariko gaiak jasotzen dituen pintura-olioekin osatutako bilduma da

Mirari Altube ARETXABALETA

Arkupeko erakusketa aretoa olio lanekin bete da eta Marga Zubia Lezeta (Arrasate, 1950) pintorearen bilduma otsailaren 28a arte izango da bertan –astelehenetik egubakoitzera goizez eta arratsalde, eta zapatuetan, goizez–.

Bakarkako erakusketa jarri duzu lehenengoz.

Bai, halaxe da. Arrasateko Margo Taldearekin urtero jartzen dugu erakusketaren bat edo beste Kulturaten, baina nik neuk bakarrik ez dut sekula egin.

Eta beldurrik eragin edo errespeturik sorrarazi dizu horrek?

Urduri egon naiz egun batzuetan, bai, eta non sartu ote naizen neure buruari ere esan diot hainbatean. Orain, baina, behin jarrita, lasaitu naiz. Gainera, jendea badabilela erakusketa aretoan esan didate; hortaz, gustura.

Olio-pinturak dira, baina zein ezauzgarri dute?

Guztira 23 daude eta gaiak askotarikoak dira: paisaiaren bat edo beste, loreontziren bat eta abstraktuak ere badaude. Boladak izaten ditut eta aldatzen joaten naiz gaiak; adibidez, hilabete batzuetan gai bat hartzen dut oinarri eta lan mordo bat sortu, eta aspertutakoan, aldatu eta beste gai bati heltzen diot.

Eta koloreei dagokionez zer duzu nahiago?

Ilunak erabiltzen ditut asko, baina era berean kolore biziak ditut gustuko. Adibidez, beltza azpian eta gero gainean zuriak eta beste hainbat kolore bizi sartzen dizkiot.

Pintura munduan ez zara hasiberria.

Ez, 20 urterekin hasi nintzen eta hamar bat urte izan nituen oso emankorrak. Bien bitartean bi ume izan nituen, lanean ere banenbilen eta ezin nintzen iritsi kontu guztietara. Horregatik, utzi egin nion margotzeari eta urte asko egon nintzen ezer egin



Marga Zubia pintorea erakusketa aretoan, lanak zintzilikatzen zain. ANABEL DOMINGUEZ

"KOLORE ILUNAK ERABILTZEN DITUT ASKO, BAINA, ERA BEREAN, BIZIAK DITUT GUSTUKO"

barik. 50 bat urte nituela erakusketa batzuk ikustera joan nintzen, eta harra sartu zitzaidan; halaxe ekin nion berrirori. Sasoi hartan Kutxak egoitza soziala zuen Arrasaten eta han egin nituen hiru urte, ondoren Montteronen urtebete bat, eta gero Arrasate Margo taldean sartu nintzen.

Hortaz, irakasleekin jardun duzu ikasten?

Bai, lauzpabost izan ditut, Bingen de Pedro eta Amaia Agirre esaterako, eta orain Rikardo Azkargortarekin nabil.

Eta zure lanek garapenik izan dutela uste duzu?

Ba ez dakit zer esan. Batzuetan uste dut lehen hobeto margotzen nuela eta hurrengoan, ostera, alderantziz. Ezberdin margotzen dudala esango nuke, bilakaera bat izan dudala. Batzuetan neure lekua ezin topatu ibiltzen

naiz, baina hurrengoan, oso gustura jarduten dut.

Arrasate Margo Taldean gustura zabilta?

Oso gustura nago eta pozik jarduten dut taldean. Guztira 24 kide gara baina elkartzen garenak hamalau bat, beti antzekoak, eta giro benetan polita dugu. Guztiok gara oso ezberdinak, eta agian horregatik, elkar osatzen gara. Orain, gainera, Kulturan izango du egoitza taldeak eta ea aldaketak zer dakarren.

Zaletasun bati heltzeko ez dago adinik?

Ez, ez, sekula ez da berandu. Pentsa, nik 72 urte ditut eta hor nabil oraindik. Gogoia izanez gero edonor has daiteke ikasten eta lanean, eta gainera, animatuko nuke horretara.

Herritarrek erakusketa ikustera joan daitezen zer esango zenieke?

Baliteke batzuk harrirituta gertzea ikusten dutenarekin; beste batzuei, ostera, ez zaie gustatuko eta hobeak badaudela esango dute. Nik ikustera gonbidatuko nituzke, eta gero askatasunez esan dezatela gura dutena; kritika guztiak hartzen ditut nik ondo, guztietatik ikasten delako zerbait.



Juan Mari Errasti entrenatzailea hainbat pilotarirekin, partidu bat hastear. I.SORIANO

Hamaika pilota partidu jokatuko dira aste bukaeran, Iturri gorri

Udaberri txapelketako ligaxka fasea jokatzen dabilta UDAko jokalaria eta etxean dituzte norgehiagokak

M.A. ARETXABALETA

Eskuz binakako Gipuzkoako Udaberri txapelketa aurrera doa, eta gaur, egubakoitza, zazpi partidu jokatuko dituzte Iturri gorri pilotalekuan, 18:00etan hasita.

Kimuek osatutako bi bikote izango dira nor baino nor gehiago; batak, Ataungo bikotearen aurka jokatuko du, eta besteak, Azkoitikoaren aurka. Infantilen mailako lau bikote ere jardungo dute; horietako bik azkoitiarrak izango dituzte aurkari, beste batek azpeitiarrak eta laugarrenak, Oriokoak. Nagusiek,

oster, Zumarragako bikotearen aurka jokatuko dute.

Zapatuan, 11:00etan, gazteen bi partidu izango dira; batzuek Zaldibia izango dute aurkari eta besteak Ataun. Eta domekan, 11:00etan, atzeratutako bi norgehiagoka jokatuko dituzte; bata, kadeteek eta bestea, gazteek.

Entrenatzailea itxaropentsu

Juan Mari Errasti entrenatzaileak uste du aurrera egiteko moduan izango direla bikote batzuk: "Nagusiak, gazte batzuk, kadeteak... Gogotsu dabilta eta ikusiko da zer gertatzen den".

'Aita Mari' dokumentala emango dute eguenean

Aita Mari itsasontzia Mediteranean egiten dabilen lanaren berri jaso du Javi Julio zuzendariak *Aita Mari* dokumentalean (87 min.) eta otsailaren 17an emango dute hori Arkupen, 19:00etan –sarrera: 3 euro–.

Zine komertzialari dagokionez, asteburu honetan *En un muelle de Normandia* filma (Frantzia, 2021, 106 min.) izango dute helduek: gaur (22:00), zapatuan eta domekan (16:00) eta astelehenean (16:00). Umeek, oster, *¡Canta! 2* marrazki bizidunen film luzea izango dute zapatuan eta domekan, 17:00etan.

Sarrera guztiak aurrez eros daitezke online –*aretxabaleta.eus*– edo Arkupeko leihatilan.

'Animalien ipuinak' kontaketa umeendako Lupe Lekuonarekin

Animaliak protagonista diren ipuinak kontatuko dizkie Lupe Lekuona ipuin kontalariak 3 eta 4 urte bitarteko neska-mutikoei datorren eguaztenean, hilaren 16an, liburutegiko Txiki Txokoan (18:00). Edukiera mugatua izango dela iragarri dute antolatzaileek, horregatik izena aldeztuetatik eman behar da liburutegian bertan –sarrera, debalde–.

Umei bideratutako antzezlan bat ere izango da otsailaren Arkupen. Panta Rhei taldeak *Noa uy, uy, uy* lana ekarriko du hilaren 26an, 19:00etan –sarrera, 3 euro–. Txotxongiloek lagun eginda istorio alai, goxoa eta abenturaz betetakoa eskainiko dute talde arabarreko kideek.



Jesus Urrutia konposatzailea Arturo Balaguer saria jaso berri, Francisco Cresporen eskultura eskuetan duela. JESUS URRUTIA

Arturo Balaguer saria Jesus Urrutiarentzat

Eskoriatzako musika bandako zuzendariak La Pobla de Vallbonako musika konposizio lehen saria jaso du. 'Hathor Garden' lana izan da aurkeztu duena, eta 5.000 euroko saria eta Francisco Cresporen eskultura bat jaso ditu

Imanol Beloki ESKORIATZA

La Pobla de Vallbonako (Valentzia) Udalak bertakoa zen Arturo Balaguer konposatzailearen izen bereko Banda Sinfonikorako Konposizio Lehiaketaren lehen edizioa ospatu du, eta Jesus Urrutia, Eskoriatzako musika bandako zuzendaria izan da irabazlea. Hamalau konpositore aurkeztu dira lehiaketara, eta horien artean onena Urrutiarena izan da. "Pozik" agertu da sariarekin, eta egindako lanaren aitortza izatea ezinbestekoa dela azpimarratu du, aurrera begirako proiektuak ere ilusio berarekin egiteko.

'Hathor Garden' pieza

Kultura musikala sustatu eta zabaldu nahi du Valentziako udalerrriak, beraien herriko kulturari hain errotuta dagoen banda-musika sustatuz. Konposizioak originalak eta argitaragabeak izan behar ziren, beste lehiaketa batzuetan aurkeztu gabekoak, eta ezin zuten, osorik edo zati

batean, konposizio propioen edo beste artista edo banda batzuen kopiarik edo plagiorik eraman behar. Baldintza horiek beteta aurkeztu zuen bere lana Jesus Urrutiak, Eskoriatzako bandako zuzendariak, eta estreinako egin den lehiaketa honetako irabazle izendatu zuten urtarriaren 22an egindako sari banaketa ekitaldian: "Hamalau parte-hartzaile izan ginen Arturo Balaguer lehiaketan, eta nik sortu dudana konposizioa hamabost minututako pieza da. *Hathor Garden* du izena piezak, Egiptoko mitologian, Hathor maitasunaren, pozaren, dantzaren, amatasunaren... jainkosa. Hori horrela, oinarrian, emakumeei egiten dio erreferentzia piezak,

**EMAKUME GUZTIEI
OMENALDI GISA,
HAMABOST
MINUTUTAKO PIEZA
SORTU DU URRUTIAK**

eta beraiantzat omenaldi bat dela esan dezakegu. Horri guztiari gorazarre egitea izan da nire asmoa. Obra dibertigarria da, dinamikoa, arina, eta une lasaia ere baduena. Ezaugarri asko batzen ditu, eta uste dut hori dela baloratu dutela", adierazi du Jesus Urrutiak, Eskoriatzako musika bandako zuzendariak.

Musika banden artekoa

Urrutiak adierazi duenez, Arturo Balaguer Banda Sinfonikorako Konposizio Lehiaketarekin apustu sendoa egin dute La Pobla de Vallbona herrian, eta aurrera begira, bide horretan jarraitu nahi dutela nabarmendu du. Izan ere, musika banden arteko lehiaketa bat egitea ere aurreikusten dutela gaineratu du, eta ez du baztertzan bertan aritzea. "Lehiaketa izugarria izan da, eta gogotsu daude jarraitzeko. Ea musika banden artekoa antolatzen duten, gusatuko litzaidake".

Lehenengo bilera egin du Korrika batzordeak

Proposamenak elkartrukatzeari batera, hurrengo hitzordua zehaztu dute; otsailaren 23an izango da

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzatik apirilaren 1ean, egubakoitza, pasako da Korrika, eguerdi aldera. Hala, egitasmoaren baitan, herrian izango diren ekintzak programatzeko, eta lekukoa eramango dutenen parte-hartzea adosteko, Korrika batzordea eratu dute.

Lehenengo bileran, zenbait elkarte eta eragiletako ordezkariak batu ziren: Huzezi unibertsitatea, Eskoriatzako ikastetxeak, Atxorrotx Kultura Elkartea, Udala, Olazar Erretiratuen Elkarte... "AEKtik Eskoriatza-

ko koordinatzailea izango dena etorri zitzaigun, eta, zenbait gai izan genituen berba. Apirilaren 1ean, eguerdian iritsiko da Korrika Eskoriatzara, eta arratsaldean eta iluntzean ekintza batzuk burutzea pentsatu genuen. Horrekin batera, agian, zapatu horretan ere ekintzak antolatuko ditugu. Eguna iritsi bitartean, arropa salmentaz ere aritu ginen...", adierazi du Mari Karmen Arrietak, Eskoriatza Korrika batzordeko kideak. Hurrengo bilera, otsailaren 23an izango dela ere jakinarazi dute.



HUZEZI

Erasmuseko ikasleei harrera

Astlehenean egin zieten harrera ekaina bitarte Hehez, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, izango diren Erasmuseko ikasleei. 11 izango dira, guztira, udaberriko nazioarteko programan: Zortzi ikasle hezkuntza graduatan arituko dira, bi ikasle Ikus-entzunezko graduari eta bakarrik praktikan.

Atxorrotx Kultura Elkartearen urteko batzar orokorra

Gaur-gaurkoz 95 bazkide dituen Atxorrotx Kultura Elkartearen urteko batzar orokorra egingo du zapatu honetan. Kultura etxean izango da bilera, 11:00etan, eta, gai zerrendari erreparatu, urteko balantze ekonomikoa, egindako ekintzen balorazioa, eta 2022 urtera begirako aurreikuspenak izango dituzte berba-gai, besteak beste.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Olazar Erretiratuen Elkarteko juntako zenbait kide erretiratuen bulegoan batuta. IMANOL BELOKI

Batzorde berria eratzeko zailtasunekin arduratuta

Olazar Erretiratuen Elkarteko bilera orokorra deitu dute martxoaren 31rako. Batzordea osatzen duten hiru kidek erreleboa behar dute, eta kide berriak proposatzeko eta animatzeko bilera deitu dute otsailaren 15erako, Ibarraundi museoan, 18:00etan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Olazar Erretiratuen Elkarteko batzordekideak "arduratuta" daude, geroz eta zailago ikusten dutelako batzordeko kide berriak izendatzea. Pandemiaren ondorioz ez dute egin urteko batzar orokorra, eta martxoaren 31n egingo dute. Bazkideen biltze horretan, batzordeko hiru kide aldatu behar dituzte: bidaien arduraduna, lehendakariordea eta jokoez arduratzen dena, eta ardura horiek hartuko dituzten kide berriak izendatzean dute arazoa. Hala, batzar orokorraren aurretik, beste deialdi bat egin dute, bazkide diren 70 urtetik beherako guztiei zuzenduta, arazoari konponbidea emateko.

Bilera informatiboa museoan

Orain arte, batzordeko kide bakoitzari erreleboa zetorkionean, bera arduratu behar zen ordezkatuko zuena bilatzeaz, baina ez dela samurra adierazi du Jasone Orbegozok, Olazar Erretiratuen Elkarteko kideak: "Ba-

tzordean dagozkigunak baino urte gehiago egin ditugu zenbait kidek. Lehen, hiru urteko iraupena zuen batzordeko kargu bakoitzak, eta zenbaitek denbora asko zela argudiatuta, bi urtera jaitsi genuen. Hala ere, arazoarekin jarraitzen dugu... Pandemiaren ere luzatu dugu karguen iraupena, baina erreleboa behar dugu. Batez ere, diruzainaren figura da ordezkoa topatzeko zailtasun gehien dituen, baina kontuak eramateko eta bestelakoak egiteko prest gaude. Zer egin ez dakigula, 70 urtetik beherakoei banan-bana deituko diegu, eta Ibarraundi museoan antolatu dugun bilera informatibora gonbidatu. Otsailaren 15ean, martitzenean izango da,

70 URTETIK BEHERAKO BAZKIDEEI ZUZENDUTAKO BILERA, HILAREN 15ERAKO DEITU DUTE

18:00etan, eta bertan inpresioak partekatzeaz batera, arazoari irtenbidea ematen saiatuko gara. Ea lortzen dugun".

Galtzeko arriskuan

Tolerantziaren izenean, Olazar Erretiratuen Elkarteko bazkideei dei egiten diete batzordekideek arduetara konprometitzeko: "Larrienean jarrita, batzorde berria eratzen ez bada, elkarte desagertzeko arriskua dago. Adibide gisa, gertatu izan da herrian, Amuska Emakume Elkartearekin, baina, herri osoarentzat eskaintzen den zerbitzu bat da eskaintzen duguna, beraz zer egin aztertu behar dugu".

Podologia zerbitzua

Orain arte, denbora batez, podologia zerbitzurik gabe ere egon dira eta zerbitzua bueltatu dela jakinarazi nahi izan dute Olazar Erretiratuen Elkarteko kidek. Hilean behin, hirugarren eguaztenean izango da, lehenbizikoa, martxoaren 16an.



Noa uy, uy, uy, uy! ikuskizuneko une bat. PANTA RHEI

Mundua beste modu batean ikus daitekeela azaltzeko lana

'Noa uy, uy, uy, uy!' ikuskizuna izango da domeka honetan, otsailaren 13a, 17:00etan, Zaldibar antzokian

I.B. ESKORIATZA

Panta Rhei antzerki konpainia-koak *Noa uy uy uy!* antzerkiarekin izango dira domeka honetan, Zaldibar antzokian, 17:00etan. 2 eta 6 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako saioa izango da, eta, sarrerak hiru eurotan eros daitezke Manuel Muñoz kiroldegiko leihatilan, edo *bibe.me* webgunean.

Juan Rodriguez Aristegik zuzendutako lana euskaraz interpretatuko dute oholza gainean arituko diren Idoia Ayestaranek eta Emilio Fernandez de Pinedok, eta 45 minutuko iraupena duen

saioa gauzatzeko txotxongiloen teknika erabiliko dute.

Bizitza monotonoa hautsitz

Santiago de Compostelako Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdian, Galicreques 2018 saria jasotako lanak, aitona-amonak izatearen eta mundua berraurkitzearen abentura kontatzen du. Noak ia hiru urte ditu eta librea, bihurria, jostalaria eta barregarria da. Bere aitona-amonak, berriz, urrun eta oso lasai bizi dira, baina, Noa haiekin egun batzuk pasatzera joatean irauli egingo ditu haien bizitza monotonoak.



IMANOL SORIANO

Etzi, dantzak beste behin

Joan zen zapatuan, Kinttaden Egunarekin batera, 2003an eta 2004an jaiotako Santa Ageda neska-mutilek dantzak egin zituzten herritarren aurrean. Aurten, Gorosarri plazan egin dituzte segurtasun distantziak hobeto errespetatzeko. Hala, domeka honetan, berriz egingo dituzte dantzak, leku eta ordu berean -19:00etan-.

Salto hirukoitzean, Euskadiko txapeldun

Euskadiko txapelduna Madrilen izango da zapatuan, klubaren arteko txapelketan, eta otsailaren 19an eta 20an, Salamancan jokatu den 23 urte azpiko Espainiako txapelketarako ere gertu dago. Han, luzera jauzian eta salto hirukoitzean arituko da

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Real Sociedad taldeko Alex Agiriano atleta eskoriatzarra Euskadiko txapeldun absolutua da domekan, Donostiako Anoetako belodromoan jokatuako txapelketan, jauzi hirukoitzean 15,17 metroko jauzia eginda. Harrotu barik, pozik dago emaitzarekin, baina, erronka gogorragoak eta zailagoak jarri dizkio bere buari etorkizunera begira.

Jauzi hirukoitzean eta luzera jauzian lehiatzen da Agiriano, eta oraingoan, jauzi hirukoitzean egin du lan ona, baina bi arlotan entrenatzen jarraitzen du, despistatu barik. "Joan den asteburuan adin guztietako atletak batu ginen Donostiako hitzordura eta pista estalira helburu garbiarekin joan nintzen. Espero nuen lan ona egitea, baina aurreikusitako baino hobeto egin nuen eta, beraz, oso pozik nago emaitzarekin. Hala ere, aurrera begira zenbait erronka ditut eta ondo entrenatzen, atseden hartzen, eta behar bezala prestatzen ari naiz", adierazi du Alex Agirianok.

Klubaren arteko Madrilen

Asteburu honetan, zapatuan, Madrilen izango da Agiriano, klubaren arteko txapelketan eta bertan luzera jauzian arituko



Alex Agiriano atleta eskoriatzarra jauzia egiten. ALEX AGIRIANO

da atleta eskoriatzarra. "Talde asko batuko gara bertan, nagusiagoak direnak, esperientziadunak, eta ez da erraza izango dominaren batekin bueltatzea. Hala ere, ahal dugun guztia emango dut bertan eta gero geroakoak. Horrekin batera, otsailko hirugarren asteburuan izango dudana txapelketa izango da demostratu beharreko eguna".

Hurrengo erronka, Espainiako Salamancan, 23 urtez azpiko Espainiako txapelketa jokatu da hilaren 19 eta 20ko asteburuan,

eta bertan, salto hirukoitzean eta luzera jauzian lehiatuko da Alex Agiriano atleta. "Egun batean modalitate batean lehiatuko naiz, eta hurrengo egunean, bestean. Hala, denboraldia txapelketa honekin amaituko da eta bertan lan ona egitea da nire helburua. Ahal dudana guztia ematen saiatuko naiz, eta bide horretan, ondo ari naiz zaintzen. Egunotako entrenamenduak motzagoak egiten ari gara, hankak asko sufritzen dute eta entrenatzea bezain garrantzitsua da errehabilitazioa".

Areskok babesle berria aurkeztuko du otsailaren 15ean

Avanzako eta Areskoko ordezkariak, zein zenbait jokalarik izango dira ekitaldian, Manuel Muñozen

I.B. ESKORIATZA

Aresko eskolakoek babesle berria dute denboraldi honetan, eta otsailaren 15ean egingo dute aurkezpen ofiziala, Manuel Muñoz kiroldegian, 18:00etan. Pandemiaren ondorioz, ezin izan

dute orain arte babesle berria aurkeztu, baina, kluba ordezkatzeko egin duten apustuaz jakitun, ekitaldi txiki bat antolatu dutela adierazi du Fernando Rasok, Eskoriatza Kirol Elkarte saskibaloi arloko presiden-

teak: "Avanza izango da Eskoriatza Kirol Elkarte Aresko eskola babesteko duena. Urtaurretetik ari dira Aresko saskibaloi saileko neskek jantzi berriekin, baina jendaurrean erakutsi nahi ditugu. Datorren martitzenean, aurkezpen egunean, entrenamendu batzuk daudela aprobetxatuz, Areskoko jokalarik batzuk jantzi berriekin erakutsi nahi ditugu, eta Eskoriatza Kirol Elkarte zenbait ordezkariarekin eta Avanzako ordezkariarekin argazkiak aterako ditugu".

LEINTZ GATZAGA



Jon Zuazabeitia, 2019ko Korrikan, Gatzagan. GOIENA

Gatzagako Korrika batzordea eratzeko bilera, gaur, Labidean

Apirilaren 1ean pasako da herritik, eta egin nahi diren ekintzak banatzeko lehenengo hitzordua izango da

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Bailarako zenbait herritan moduan, Leintz Gatzagan ere Korrika batzordea eratu nahi dute, eta horretarako bilera deitu dute gaurko. 19:00etan batuko dira interesa dutenak, Labidean, eta deialdi zabala egin dute herritarrek euskararen aldeko ekimen erraldoian parte hartzea animatu daitezen.

Ekintzak adostera

Hitzekin lelopean, 22. Korrika martxoaren 31n abiatuko da Amurriotik eta Euskal Herria zeharkatuta Donostian amaitu-

ko da apirilaren 10ean. Hori posible egiteko hamaika lagun ariko dira lan itzela egiten, eta herriz-herriz inplikazioa ere ezinbestekoa izango da.

Leintz Gatzagatik apirilaren 1ean, egubakoitza, pasako da Korrika, eguerdi aldera, 14:30ak bueltan. Hala, Korrikaren inguruan Gatzagan antolatuko diren ekintzak proposatzeko, programatzeko, prestatzeko, egin beharreko lanak zerrendatzeko eta banatzeko, eta lekuko eraman-godutenean parte-hartzea adosteko lehenengo bilkura egingo dute, gaur, iluntzean.

Zuhaitz Eguna otsailaren 19an egitea erabaki dute

Otsailaren 19an Zuhaitz Eguna ospatuko dute Gatzagan, Gurelek antolatuta. Hori horrela, egunerako zenbait ekintza antolatu dituzte, batez ere txikienei zuzendutakoak.

10:30ean hasita, Orienting saioa izango da hamar urtetik gorako haurrentzako. Gaztetxoagoak direnentzat, berriz, Altxorraren bila jokoa izango da herrian zehar. Jolasekin amaitzean, fruta arbolak landatuko dituzte herriko ortuetan, Gurel Guraso Elkarte zenbait kideren laguntzarekin. Bukatzeko, zapatuko hitzordua aprobetxatuko dute udalekuen bueltan hitz egiteko, eta antolaketa lanekin hasteko.

Eibarko mendi taldeak Gatzagan amaituko du martxa

Zapatuan, Eibar Klub Deportiboa Mendi Taldeko kideen bisita izango dute gatzagarrek. Izan ere, 19,5 kilometroko itzulia egingo dute zenbait mendizalek, eta martxari bertan emango diote amaiera Aramaiotik hasita, Orixol zeharkatuz, eta Gatzagan etapa amaituz.

08:00etan abiatuko dira, eta aurreikuspenen arabera, 18:00ak inguruan iritsiko dira Gatzagara. Ibilbidean, goraka metatutako desnibela 1.190 metrokoa izango dute eta beheerako metatutako desnibela, berriz, 1.065 metrokoa. Inor ez galtzeko, GPX formatuan deskargatzeko aukera ere ezarri dute *deporeibar.com* helbidean.



Boluko bizilagun Santi Arrieta auzoko jolas parkean, kezka iturri den mendi-hegala atzean duela. JONE OLABARRIA

Hurrengo negurako malda egonkortzea exijitu dute

Boluko bizilagun batzuk batzorde bat eratu dute Udalari exijitzeko 2023ko negurako malda behin betiko egonkortu dezala: "Ezin gara datorren negura egoera berean heldu; sentsazioa dugu Udaleko arduradunak gehiegi fidatu direla mendi-hegal horrekin"

Jokin Bereziartua BERGARA

Boluko lur-jausiak albiste izaten jarraitzen du, bizilagunek batzorde bat sortu berri dute eta Udalari eskatzeko malda behin betiko egonkortu dezala. 2021eko abenduaren 10ean gertatu zen bigarren lur-jausiak –ia 20 egunez etengabe euria egin ostean–, 2017ko urtarrilaren 16koa baino nabarmen txikiagoa izanda ere,

kezka handia sortu zuen bereziki bizilagun kaltetuen artean.

"Egin behar zena ez da egin"

Bizilagun kaltetu horien artean dago Santi Arrieta: "Oso kezkatuta geunden bizilagun batzuk elkartu eta komisio bat eratzea erabaki dugu. Bigarren lur-jausiarekin alarma guztiak piztu zitzaizkigun; ikusi dugu bost

urte pasatu direla eta egin behar zena ez dela egin. Horregatik elkartu gara, Udalari exijitzeko aurreikusi ziren hiru faseak gauzatzeko; ezin gara hurrengo negura egoera berean heldu. Sentsazioa dugu Udaleko arduradunak mendi-hegal horrekin gehiegi fidatu direla".

Arrietak gogoratzen duenez, 2017ko lur-jausiaren ondoren

geologoen azterketetatik ondorioztatzen zen arrisku handiena eskumako aldean zegoela, baina abenduaren 10eko lur-jausian ezkerreko alderantz erori zen mendi-hegala. Hori ikusita, hasierako asmoak berrikusi eta arazoa errotik konpontzea eskatu du Arrietak: "Egin behar ziren konponketa lanak ez dira egin. Goitik behera datorren ura da arazoaren iturria eta horri irtenbiderik ez bazaio ematen arazoak jarraitu egingo du". Euria egiten duen bakoitzean beldurrez daudela gaineratu du Arrietak, eta urtea bukatu aurretik lanak bukatuta egotea lehenetsuna izan behar litzatekeela uste du: "Bigarren lur-jausiarekin abandonatuta sentitu ginen; ezin gara ezer egiteko heldu hurrengo negura, bost urte pasatu dira".

Gobernuak dituen "oztopoak"

Udal Gobernuak azaldu duenez, lur eremu hori jabetza pribatua dela eta "oztopoak" dituzte mendi-hegala egonkortzeko: "Guztira 50 jabe baino gehiago daude; zati handi bat Murua Balzola Fundazioarena da, Kutxa fundazioak ordezkatuta, eta bestelakoak jabe txikiak dira. Horietako batzuk identifikatu gabe daude 2017tik. Lurraren jabetza pribatua denez, administrazioak bertan egin ahal dituen esku-hartzeak mugatuak dira. Ezin da diru publikoarekin lur pribatuetan interbentziorik egin. 2017ko kasuan, lehen lur-jausi handiarekin, larrialdi egoera bat zela ulertu zen eta estatus horrekin aukera zabalagoa zegoen interbenitzeko. Gaur egun, egoera ez da larrialdizkoa bezala ulertzen eta, beraz, ezin da esku-hartzerik egin jabetza pribatuko lur horietan. Egungo egoe-

ran, gehienez, euste lanak eta jarraipena egin daitezke. Datozen egunotan beste bilera bat egingo dugu Murua Balzolarekin. Jabe txikiak identifikatu gabe ere, bide legalen baten bila gabiltza, lur pribatuetan lan egin ahal izateko".

Gobernuak aitortu du agertokia aldatu egin dela bigarren lur-jausiarekin: "2017an hiru fasean gauzatzeko proiektu bat zehaztu zen, eta lehen fasea baino ez zen egin, larrialdi egoerak aukera eman zuelako. 2021eko abenduko erorketaren ostean eszenatokia aldatu egin da eta lanek birmoldaketa bat eskatzen dute. Obra proiektua berriz egin behar da, eta horretan dabilta geologoak eta ingeniariak". Eta honako hau gaineratu dute: "Gaur egun etxebizitzentzat arriskurik ez dago ohiko euri egoera baten. Teknikariek eta geologok hileko egiten dute jarraipena. Euri-teak aurreikusten direnean prebentzio plana aktibatzen da. Abenduan, aurreikusi gabeko bidea hartu zuen urak; jarraipenean akatsa egon zen".

EAJrentzat, "lehenetsunezkoa"

EAJk idatzita dagoen proiektua "bere osotasunean" gauzatea eskatu du, "lehenetsunezkoa" delako: "2019an Sestra enpresak egin zuen proiektua bere osotasunean exekutatzeko nahi dugu; denbora aurrera doa eta malda egonkortu beharra dago, bizilagunen segurtasuna bermatzeko".

BIZILAGUN BATZUK KEZKATUTA DAUDE BOST URTETAN ZEHAR EGIN BEHAR ZENA EGIN EZ DELAKO

San Juanen harrapatuta

Otsailaren 4ko arratsaldea mugitua izan zen San Juanen. Tamaina handiko kamioi bat galdu eta Olariaga baserri inguruan harrapatuta geratu zen denbora luzez, ez aurrera eta ez atzera. Bizilagunen zein udaltzainen laguntzarekin aurrera egitea lortu zuenean, Ariztizabal baserri inguruan eman zuen buelta, betiere traktore batek lagunduta.



GOIENA

OHARRAK

Hidrogeno berdearen erakusketarako aukera

Otsailaren 15ean bukatuko da Laboratorium museoan dagoen erakusketa: *Hidrogeno berdea. Klima aldaketaren konponbidea?* Izena emateko: 943 76 90 03 edo laboratorium@bergara.eus.

Pentsiodunen manifestaziorako deia: autobusa

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bihar Bilbon egingo duen manifestaziorako autobusa 10:30ean irtengo da Ibargaraitik.

Gaixo dauden euskal presoek gaineke saioa

Hizlariak izango dira euskal preso ohi Joseba Erostege *Eltzikorta* eta Jaiki Hadiko kide Fernando Arburua. Otsailaren 15ean izango da, Olaso dorrean (18:30).

Uholde arriskua arintzeko esku-hartzea Amillagan

URA agentziak 2027ra bitartean gauzatu nahi dituen 20tik gora interbentzioetatik bakarra aurreikusten da Debagoiengan, Bergarako Amillaga kalearen amaierako zubian, GI-2632 errepidean; "ahalmen hidrauliko handiagoa" izango duen pasabide bat egingo dute

Jokin Bereziartua BERGARA

URA agentziak aurreikusi du 2027ra bitartean 101 milioi euro inguru inbertitzea uholdeen aurkako defentsa-obretarako, eta 20tik gora esku-hartze aurreikusten dira. Debagoiengan, leku bakarrean eragingo du planak; Bergaran izango da, GI-2632 errepideko zubia ordezkatuko dute-eta, Amillaga kalearen amaieran dagoena -argazkian-. URAtik ez dute esku-hartze horren exekuziorako data zehatzik ezarri; proiektua bera ez dago behin betiko izaeraz onartuta. Hala ere, Deba ibaiaren gainean dagoen GI-2632 errepideko zubiaren ordez, "ezaugarri hidrauliko



Amillaga kalearen amaierako zubia da hobetuko dutena, GI-2632 errepidean. I. BELOKI

hobeak" dituen eta, ondorioz, "ibai-dinamika egokiago" batekin bateragarria den beste pasabide bat jarriko dutela eman dute aditzera: "Deba ibaiaren balizko ur-gordien ondorioz bergararrrek jasaten duten uholde-arriskua murrizteko egingo dira aurreikusitako obrak. Obra horiek, funtsean, gaur egun korrontearen fluxurako oztopo dena kentzean datza, ubidearen ahalmen hidraulikoa areagotuz".

Bolubarrin, "arriskua handia"

Deba ibaiak gainezka egin duenean, kalteak sufritzen dituztenetako bat da Bolubarri baserriko ekoizleena. URAk egin nahi dituen lanei dagokienez, Bolubarri baserriko Agurtzane Olaberriak dio euren ez diela arazoa konponduko. Olaberriak gaineratu du euren negutegietan oso azkar sartzen dela ura eta kasu askotan, barazki ugari bota behar izaten dituztela; azken ur handien ondorioak oso presente daude oraindik: "Ez dugu paretarik eta lurra oso arina denez, gero eta sail txikiagoa dugu. Badakigu arrisku handia dugula, eta hala onartzen dugu".

Askotariko gaiak Osasun Sarearen hilaren 15eko bileran

Otsailaren 15ean elkartuko da Osasun Sarea, osasun-etxeko lehen solairuan (19:00). Honako gai hauek landuko dituzte, besteak beste: Bergara Oinez ekimena; kirol orientazio zerbitzua berriro abiatzea; erorketa tailerrak aurreikustea; mugikortasun planaren eta larrialdi klimatikoaren gaineko azterketa; eta Oinezbus ekimenaren berri ematea.

Pellen eta torraden ikastarorako azken eguna, otsailaren 14a

Torradak eta pelak egiteko ikastarorako izena eman behar da astelehenerako, hilak 14. Gorka Lobato sukaldariak gidatuko du saioa; otsailaren 22an izango da, Gure Ametsa elkartearen izango da, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroa doakoa da eta lehentasuna izango dute Bergaran erroldatutakoek. Izena eman behar da www.bergara.eus webgunean.

URBIETA | Barne diseinua



Etxeari aldaketa eman nahian?

Zatoz gurera!

Etxeko gela bat zein etxe osoa eraberritzea, gremioen koordinazio eta guzti!

Utzi dena gure esku!



Erakusleiho zabala, sukaldeak, komunak, egongelak, logelak, sarrerak... Etxea janzteko osagarri guztiekin! Aholkularitza eta aurrekontuak neurria, 3D irudiekin.

Monzon-Ganuza saria, Elkoro-Ayastuy bikoteari

Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak Telesforo Monzon eta Josefa Ganuza gogoan antolatzen duten sarietaren bigarren edizioan Jose Luis Elkoro eta Mari Karmen Ayastuy omenduko dituzte: "Euskal Herriaren alde bizitza bete eman dute"

Jokin Bereziartua BERGARA

Monzon-Ganuza euskal utopikoei sariaren bigarren edizioko sari-tuak izango dira Jose Luis Elkoro Unamuno (Elgeta, 1935) eta Mari Karmen Ayastuy Agirre (Bergara, 1943). Horixe iragarri zuen Olaso Dorrea Fundazioako presidente Iratxe Esnaolak astelehenean egindako agerraldian: "Euskal Herriaren alde bizitza bete eman dute. Euskara min eta lehentasun, gure iraganarentzat etorkizun bat eraikitze-ko lanean aritu dira beti. Baldintza latzetan batzuetan, egoera zailtan gehienetan, frankismoan bezala ondoren ere. Eta hor egon dira biak: aberriaren alde hartu zuten konpromisoari leial. Elkarrekin amesten, ametsari elkarrekin bultzatzen".

Sarietarekin, "bete-betean"

Bi sarituek proiektu askotan eta askotarikotan parte hartu dutela azpimarratu du Esnaolak: "Esaterako, Bergarako ikastolaren sorreran parte hartu zuten, arriskuak onartuz, seme-alabentzat klandestinitatean egiten zen irakaskuntzaren alde eginez. Gero herrigintzaren deia etorri zen Jose Luisentzat, lehenik, Alkartu Nai proiektuaren bultzatzaile eta kide; eta, gero, herriko alkate bezala. 1976ko Alkateen Mugimenduko ezinbesteko partaide izan zen". Horregatik, Udaleko kultura zinegotzi Kristina Markinak azaldu duenez, Elkorok eta Ayastuy-k "bete-betean" egiten dute bat sarietarekin aitortu nahi diren balioekin: "Bergararrantzat, ezinbestean, berezia izango da aurtengoa haiek gure herrian izan duten eta duten tokiagatik".

Badago, bestalde, antolatzaileek azpimarratu nahi izan duten beste aldagai bat; Ayastuy-k espazio pribatuan egin duen lana, alegia: "Jose Luisen jardunaz luze mintza gaitezke, luzea eta oparoa izan baita es-



Elkoro eta Ayastuy etxeko balkoian, artxiboko argazki baten. OLASO DORREA FUNDAZIOA

OTSAILAREN 28AN ARGITUKO DA ARTISTA EGILEA ZEIN DEN, ETA MARTXOAREN 10EAN JASOKO DUTE SARIA

pazio publikoan egin duen ibilbidea. Eta Mari Karmenek ibilbide horri bide eman zion, ondoan eta albotik babestu zuen, askotan kide gisa lanean aritu zen eta, noski, espazio pribatua deitzen zaionaren ardura ia oso eraman zuen; espazio pribatu hori eta hor egiten den lana ere balioan jarri behar da, prestigioa eman, hori gabe ezin delako bizitza sostengatu".

Artistarentzat, 3.500 euro

Monzon-Ganuza sariaren bidez Euskal Herriari, bere kultura, hizkuntza, historia eta etorkizunari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omenduko dira, eta saria erabakitzeke irizpideetan kontuan izango dira Telesforo Monzonen eta Josefa Ganuzaren balioak, hala nola, Euskal Herriarekiko maitasuna, euskarari eta kulturari emani-

ko lehentasuna, Nafarroaren garrantzia euskal historian edota batasunaren balioa. Sarietaren lehen edizioan Libe Goñi Garatek (Oteitza, 1947) jaso zuen saria, Seaskako ikastolen lehen irakaslea izan zenak; Zaloa Ipiñaren *Amnesia kolektiboa* izeneko artelana jaso zuen Goñik.

Bigarren edizio honetarako saria egingo duen artista aukeratzearen arduradunak izango dira Beate-eko presidente Karlos Galarraga, Jesus Mari Lazkano margolaria eta arte historialaria eta Mikel Lertxundi komisarioa; sariaren artista egileak 3.500 euro jasoko ditu.

Hitzarmenaren emaitza gisa

2021ean Olaso Dorrea Fundazioak eta Bergarako Udalak egin zuten hitzarmenaren emaitzetako bat da saria bera, Olaso dorrerako antolatuta ziren bisita gidatuekin batera. 2021eko martxoaren 9an bete ziren 40 urte Telesforo Monzon hil zela, eta urteurren horren testuinguruan sortu zen sarieta. Aurtengo artista egilea zein den otsailaren 28an jakinaraziko dute eta sari banaketa ekitaldia martxoaren 10ean izango da, Seminarixoan.



Organoa berritzeko dirua lortu zutela jakinarazteko agerraldia, iazko uztailean. J.B.

Berritu aurretik, organoari agur esateko emanaldiak hilaren 19an

Stoltz Freres organoa hil amaieran desmuntatuko dute Lyonon eraberritzeko; asmoa da 2024an bueltan egotea

J.B. BERGARA

1889ko martxoaren 18a ezker martxan dagoen San Pedro elizako Stoltz Freres organoari heldu zaio berritua izateko unea, eta Bergarako ondarearen harribitxi esanguratsuenetako bat denez, organoari agur esateko ekitaldi bi antolatu dituzte. Otsailaren 19rako antolatu dituzte bi ekitaldiak, San Pedro elizan bertan. 12:00etako lehen emanaldian erraldoi taldeak eta Elgoibarko dultzaineroek hartuko dute parte. 20:00etako zita kontzertu bat izango da, koru parrokiak, musika eskola eta txistulari banda elkartuko dituen.

Berritze lanak: Michel Jurine

Organoa berritzeko aurrekontua da 468.103 euro. Diputazioak 234.000 euro jarri ditu; San Pedro parrokiak, 80.000 euro; Bergarako Udalak, 60.000 euro; Donostiako Elizbarrutiak, 54.000

euro; eta Stoltz elkarteak, azkenik, 40.103 euro.

Otsailaren 19ko agur ekitaldiak amaitu ostean, organo preziatua desmuntatu eta Lyongo (Frantzia) Michel Jurine etxera eroango dute. Lan horietan espezialistak dira frantziarrak, eta mundu mailan aritzen dira instrumentuak berritzen eta eraikitzen. Otsaila amaieran desmuntatu eta Lyonera (Frantzia) eroango dute, eraberritu ostean, 2024ko ekainean berriz Bergaran bueltan izateko asmoz. Hain zuzen ere, bueltan datorrenerako protokolo bat egiten dihardute: "Protokolo bat idazten ari gara, bermatzeko, zaharberritu ondoren, organoa herrian irekitako tresna izango dela eta kontzertuetan, irakaskuntza-jardueretan, ekitaldi laikoetan ere, bisitetan... erabili ahal izango dela", dio Aitor Oleak, organo-jole titularrak.

Gizarte politiketako diputatu Maite Peña UNEDen, hilaren 17an

Bergarako EAJk antolatuta, gizarte politiketako diputatu Maite Peñak hitzaldia emango du otsailaren 17an UNEDeko aretoan (19:00). Gipuzkoako gizarte politikak izango ditu hizpide Peñak, *Elkarrekin ekin* izenburua jarri dioten saioan. Argibide gehiagorako helbide elektronikoa eman dute: ejbergara@gmail.com.

Oxirondoko historia hizpide, Ugutz Tours-en bisita gidatuetan

Ugutz Basauriren eskutik, Oxirondoren historia, ondarea eta hainbat bitxikeria ezagutzeko aukera egongo da otsailaren 12an, 13an, 19an eta 20an (12:00); azken saioa gazteleeraz izango da, gainerako hiru saioak euskaraz. Ordu eta erdiko bisitak izango dira eta prezioa da hamar euro. Talde mugatuak dira, ize-na emateko: 695 75 34 30 (Ugutz).

Ilusioz blai beste 50 urtez igerian jarraitzeko

Hamabost klub eta 226 igerilari Agorrosinen batu zituen Gipuzkoako txapelketak argi utzi zuen Bergara Igeri Elkartea osasuntsu dagoela 50 urte bete dituen; hurrengo zita otsailaren 19an izango dute, Tolosan, infantil mailako Euskadiko txapelketan

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak igeriketan ere astindu gogorra eman duen arren, Bergarako harrobia osasuntsu dago oraindik. Horren adierazle da joan den asteburuan Agorrosinen jokatu zen infantil, junior eta maila absolutuko Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa. 15 igeri elkarte eta 226 igerilari batu zituzten asteburu osoan zehar Agorrosinen, horrek suposatzen duen zalaparta guztiarekin: "Zalaparta eta mugimendu handia izan genuen asteburuan, baina oso gustura bizi dugun zalaparta da", adierazi dute.



Gipuzkoako txapelketako probetako bat, joan den asteburuan. GOIENA

Aldaketak entrenamenduetan

Gipuzkoako proban lortutako emaitzez harago, COVID-19ak baldintzatutako denboraldi gorabeheratsu honen gaineko balorazio positiboa egin du klubeko entrenatzaileetako bat den Asier Perezek: "Urte ona ari gara egiten, emaitzekin pozik gaude. Orain irteten hasi diren emaitza horiek egindako lanaren, esfortzuaren eta inplikazioaren ondorio dira eta badakigu hori dela jarraitu beharreko bidea. Entrenamenduetan aldaketa handia egon da, eta denak ari dira euren markak hobetzen. Igerilariak, markak hobetzen

doazen heinean, entrenatzeko gogoak ere berreskuratzen dituzte; horrekin geratuko naiz, ilusio horrekin. Buruan helburu jakin batekin entrenatu eta bide horretan disfrutatzea, hori da lorpenik handiena".

Hurrengo zita otsailaren 19ko asteburuan izango dute Tolosan, infantil mailako Euskadiko txapelketan; Ane Alberdi Lopez de Torre sailkatu da.

Gazteenak erakarri nahian


2022an 50 urte bete dituen Bergara Igeri Elkartean 75 bat ige-

rilarik dituzte gaur egun, askotariko mailetan banatuta. "Albin, benjamin, junior eta maila absolutuan ditugu igerilariak eta gure helburu nagusia da maila txikienetan igeriketa eta kirola sustatzea. Igerilariak adinean aurrera doazen heinean igeriketa lagatzen joaten dira eta horregatik nahiko genuke ume txikietatik hasi eta hastapen horietan ahalik eta gehien eragitea. Neska-mutikoendako oso kirol interesgarria da", adierazi du elkarte zuzendaritza batzordeko kide Iñaki Yarzak.

"Giro ona dugu, eta emaitzak helduko dira"

ASIER PEREZ BERGARA IGERI ELKARTEKO ENTRENATZAILEA

Nola baloratzen duzue asteburuan egindako lana? Oso pozik gaude. Emaitzez harago oso polita da Gipuzkoako txapelketa herrian antolatzea. Gainera, azken urteetan giro oso ona sortu dugu entrenatzaileen eta igerilarien artean; hori da garrantzitsua, emaitzak joango dira helduz.
Igerilari izan zinen eta gaur egun entrenatzaile zara. Laguntzen jarraitu nahi?



GOIENA

Bai... Taldeari jarraikortasuna emateko sartu nintzen. Igerilari nintzenean ere oso garrantzitsua zen gure arteko laguntza... Gainera, igerilari berriak ere erakarri nahi ditugu eta gure helburua da familia bat osatzea. Oñatin, Eibarren, Azpeitian eta Azkoitian, besteak beste, zaletasuna egon badago, baina beharrezkoa da elkarri laguntzea; igeriketak merezi duelako, kirol ederra delako.

"Lan handia da, baina saria ere badator bueltan"

IÑAKI YARZA BERGARA IGERI ELKARTEKO ZUZENDARITZA

Lan handia da Gipuzkoako proba herrian antolatzea? Erroka handia da, bai. Lana da, baina saria ere jasotzen dugu bueltan. Aurten hamabost klub eta 226 igerilari izan ditugu Bergaran; zalaparta handia izaten dugu igerilekuaren bueltan, baina gustuko zalaparta da. Ume eta gaztetxoak uretan lehiatzen aritea nahi badugu, norbaitek hartu behar du lan hori; esan beharra dago, baina, laguntza



GOIENA

eskatzen dugun bakoitzean oso erantzun ona jasotzen dugula. Hori oso pozgarria da, 100 bat laguntzaile behar izaten ditugu eta halako probetan. **Igerileku aproposa duzue lehiaketetarako. Gustura?** Gipuzkoako instalakuntza onenetakoa dugula esan daiteke, Irun, Tolosa eta Donostiarekin batera; federazioarentzat erakargarriak gara eta nahiko ohituta gaude txapelketak antolatzen.

Lau pilota jaialdi aste bukaeran zehar, tartean Euskal Liga

Lau pilota jaialdi jokatu dira Udal pilotalekuan, gaur hasi eta domekara bitartean. Nagusien mailan, bi jaialdi azpimarratu behar dira: gaur, emakumezkoen Euskal Ligaren barruan, Bergarako Gisasolak eta Barrocalek Gasteizko bikotearen aurka jokatu dute (19:45). Domekan, berriz, Udaberri Txapelketako bi partidu jokatu dira.



Maddi Barrocal. IMANOL SORIANO

Eskubaloia: Bergarak Egia Kata Tabernaren aurka, bihar (19:45)

Eskubaloi taldeko senior mailako gizonetzkoek etxean jokatu dute 15. jardunaldia, Egia Kata Taberna taldearen aurka; bihar izango da, Labegaraietan (19:45). Joan den asteburuan Lana Aloña Mendiren aurka galdu ostean (27-24), sailkapenaren erdian daude bergararrak, lurraldeko lehen mailara igotzeko postuetatik urrun.

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurritan
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 arotzegia@ugarteuroztegia.com

I21
 KALITATEA
Enpresa legegaitza 1100/025



Azken hilabeteetan egin bezala, musikaleko protagonistak eta musikariak entseguetan. VALEN MOÑUX

'Afrika' musikala urrian estreinatuko dute herrian

Asteburuan, otsailaren 12an eta 13an, zen estreinatzekoa Donato Goienetxeren *Afrika* musikala Bergaran, baina osasun egoerak behartuta urriaren 1era atzeratzea erabaki dute. Hala ere, maiatzaren 12an Lizarran eskaini gura dute obra, lehenengoz

Jone Olabarria BERGARA

"Eragozpenak gainditzeko epe nahikoa izatea" esperota, 2022ko urriko lehen asteburura atzeratu dute Donato Goienetxeren musika piezak oinarri dituen musikala. Gaztelazko bertsioa izango da orduan aurkeztuko dutena, euskarazkoa 2023rako utziko dutela zehaztu dute. Aurretik ere, eta pandemia tarteko, beste hiru alditan moldatu behar izan dute Bergarako estreinaldiaren data.

Ziurtasun barik

Bergarako Musika Eskolako ikasleak, gonbidatutako artistak eta dantzariak batzen ditu lanak taula gainean. Aurretik Bergaran egindako musikalekin alderatuta, aitortu dute ez dela orain artekoak bezain handia izango.

Musikaleko eszena zuzendaria den Valen Moñuxek azaldu duenez, atzerapena "ziurtasun ezak bultzatutako" erabakia izan da: "Sei musikari, bost pertsonaia protagonista eta bigarren mai-

lako pertsonaia ugariekin osatutako taldea gara. Paper bakoi-tzerako, muntaia profesionaletan, bi abeslari daude izendatuta, baina guretzat ezinezkoa da eta egoera honetan ezin dugu arriskua gure gain hartu".

Maiatzaren 14an Lizarran obra egiteko gonbidapena jaso dutela adierazi du Moñuxek, eta beraz, emanaldi hori estreinaldi bihurtuko dute, osasun arazorik ez badute: "Begien bistako arrazoiengatik, oraindik ezin dugu funtzio hori ziurtzat jo".

Finantziarioa, ezinbestekoa

Obran zehar musikari eta aktoreek maskara erabiltzeak lanaren esentzia baldintzatzen duela azaldu du Moñuxek: "Eszena-

"PANDEMIAREN ERUZ PUBLIKO GUTXIAGO BADUGU, EZINGO DUGU LANA FINANTZATU"

tokian maskara erabiltzera behartuta gauden bitartean, ezin dugu obra baldintza egokietan egin, obraren ulermena erabat zailtzen duelako eta publiko-arekiko komunikazioa galtzen delako".

Bestalde, jendeak sarrera ahalik eta gehien erostea behar dutela aitortu du, "hori baita gure finantziario-iturri bakarra": "Pandemiaren erruz publiko gutxiago badugu, ezin dugu ekitaldia finantzatu".

Entseguetan murgilduta

Azken hilabeteetako lana aprobetxatzeko asmoz, zuzeneko musikarekin, atrezzoarekin eta jantziekin baterako entsegu orokor bat egingo dutela iragarri dute, 50 lagun inguruko publiko gonbidatu mugatuarekin: "Anek-dota gisa, azken hilabeteetan egin ditugun saioetan ez dugu entsegurik egin lan taldearen ehuneko ehunarekin, beti zegoelako musikari edo abeslari konfinaturen bat".

'ETAren agiri bulegoa' lana, domekan Kartzela Zaharrean

Bulego baten bueltan eta umorean oinarrituta, Galder Perez eta Ane Zabala ditu protagonista antzezlanak

J.O. BERGARA

Domekan, otsailak 13, 18:00etan, antzerkiak gozatzeko aukera egongo da Kartzela Zaharrean. Izan ere, *Gilkitxaro* antzerki taldearen *ETAren agiri bulegoa* komedia izango da ikusgai, Ane Zabala eta Galder Perez aktoreek zuzendutako lana. Sarrerak bost eurotan eskuratu daitezke, Kartzela Zaharrean bertan.

Umoretik landutako obra

Umoretik landuta, eszenaratze kurioso batekin, eta soilik bi pertsonaiekin iritsiko dira Ane Zabala eta Galder Perez Kartzela Zaharrean. Petral Bilbaoren, *ETAren agiri bulego*ko langilearen, kontakizuna dakar obrak: "ETAren zigiluak banatzea da bere eginkizun bortitza. Makal Xiberu bulegora joan da, egin-kizun sekretu batekin. Petralek, ordea, arnasa hartzeko denborarik eman gabe, ezustean ha-

rrapatuta, eta *ETAren* agiria lortzeko probak ezarriko dizkio Makali". Ikuslearentzat "oso gertuko" pieza dela diote; izan ere, dena gertatzen da bulego bakar horretan.

2019ko abenduan aurkeztutako lana da *ETAren agiri bulegoa*, Durangoko Azokaren baitan. Orduetik, Euskal Herriko hainbat herritan izan da bikotea euren "komedia absurdoa" erakusten.

Urteetako ibilbide oparoa

1993an bere ibilbidea hasi zuen Gilkitxarro konpainiaren eskutik iritsiko da lana Kartzela Zaharrean. Deustuko Gaztetxean bilduta, gazte koadrila batek osatzen zuen kolektiboa garai hartan. Urteen poderioz, baina, Ane Zabala eta Galder Perez geratu dira taldeko kide egonkor bezala, *The Kuñaus* bikote artistikoaren ezinbesteko babesarekin.



Galder Perez eta Ane Zabala, antzezlaneko une batean. GILKITXARO

Musika Eskolako hamabi piano-jotzaile Andoaingo jaialdira

Urteroko hitzordua izango dute asteburuan musikari bergararrak. Izan ere, otsailaren 12an eta 13an ospatuko den Andoaingo Piano Jaialdian Musika Eskolako 12 ikaslek parte hartuko dute. Azken asteetan prestaketa lanetan buru-belarri ibili dira piano-jotzaileak, Eli Mendiaraz eta Amaia Urdangarin irakasleen gidaritzapean.

Screamers and Sinners taldeak lan berria aurkeztuko du

Lau kontzertu hartuko ditu bihar Kartzela Zaharrak, Ekinez elkartek eta Ozenek antolatuta: Kaleko Urdangar taldearekin batera, Odolkiak Ordainetan eta Screamers and Sinners elkar-lanean egin berri duten lana aurkeztuko dute. Dinamita taldearen punk-rock doinuak entzuteko aukera ere egongo da, 18:00etatik aurrera.

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN

Lau hamarkadaz eragiten, aukerak sortzen eta sareak sustatzen

«Jendea biltzeko; lan egiteko, mentalizazio eta motibazio lana batik bat; beharrezko neurriak eskatu, exijitu eta presio egiteko; akuilu eta elementu kritiko izateko». Idatzita utzi zuten sortzaileek. 1983a zen.

Euskaldunak elkartu eta hizkuntzaren alde egiteko indarrak batzeko helburu eta eginbidearekin sortu zen, beraz, AED. Jatorriz Arrasate herri euskalduna izanik ere, datuek hamarkadetan bizitako "errepresio sozial eta linguistikoa" bistaratzen zuten: herritarren erdiak euskaldunak izan arren, apenas iristen zen %10era euskararen kale erabilera.

39 urtez eragiten

la lau hamarkada igaro diren honetan, arras aldatu dira moldeak. Bere neurrian, baita errealitate soziolinguistikoa ere –Arrasateko Udalak egindako euskararen azken kale erabilera neurketan (2011-2015), %32koa zen erabilera–.

Irabazi asmorik gabeko elkarteak, baina, bidea urratzen jarraitzen du. Aktibazio soziala bultzatzen; kultur gintzan eragiten;



Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteko hainbat bazkideren talde argazkia.

talde eta sektore ezberdinetan euskararen erabilera areagotzeko programak sustatzen; euskaltzaleak ahalduz eta motibatzen.

Funtsean, euskararen erabilera bultzatzen, Arrasaten "euskaraz

bizi gaitzen eragiten, aukerak sortzen eta sareak sustatzen".

Batera, batzera

Marko horretan kokatzen da duela urtebete abiatu zuten parte-hartze prozesua. Elkarte osatzen duten

600 bazkideekin, euskara biziberritzeko prozesuan aliatu dituzten eragileekin eta kultur taldeekin batera, elkartearen jardura eta lan egiteko moduak eguneratzea izan dituzte helburu. "Aberatsa izan da oso" prozesua,

eta badute epe ertainerako erronka: jarduerari "norabide gaurkotua" ematea eta "herritar orok" bere tokia aurkituko duen elkarte "bizia" antolatzea.

Aukerak zabaltzen

Euskaraz eta euskaratik, lan egiteko, bizitzeko, sortzeko, gozatzeko... euskaltzaleei zein euskararen herritik urrun dagoen herritar orori "aukerak zabaltzea da gure eginkizun komunitarioa".

Bide horretan, aukera ikusten dute Goienan, aukera Goienakide izaeran. Sortzaile izatearen lotura "emozional eta organikotik" harago, euskarazko hedabideak indartzea "estrategikoa" baita euskararen biziberritze prozesuan.



📍 Pablo Uranga 4, behea

☎ 943 77 12 28

✉ aed@aedelkartea.eus

🌐 www.aedelkartea.eus

ARRASATE MUSIKAL

Kultura musikala herriratzea, urrezko ezteietako erronka

Ospakizun urtea izango da 2022a musika eskolarentzat. Monterrongo Jauregia utzi eta Juan Arzamendi Musika Etxean botako dituzte sustraiak udaberrian, Arzamendik ereindako proiektuak mende erdia beteko duen urtean, hain zuzen.

1972an abiatutako "kalitatezko eta aukera anitzeko" eskaintza sendotzea dute helburu, musika hezkuntzan zein kultur ekintzetan egindako ibilbideari ertsiz eta erronka berriei helduz.

Kultura musikala

Talde lana, sentimenduak, adiskidetasuna, esfortzua, errespetua eta elkarlana dira, besteak beste, musikari lotzen zaizkion balioak.

Oinarri horietatik abiatuta, Arrasate Musikalek herriko kultura musikalen sustatzaile eta erreferente izan nahi du. Herriarengana heltzeko eta eragiten jarraitzeko batu da, beraz, Goienakideen komunitatera.



Monterron Jauregia,

📍 Zarugalde 1

☎ 943 77 05 40

✉ info@arrasatemusikal.org

🌐 www.arrasatemusikal.eus



Musika hezkuntza eta kultur ekintzak, Arrasate Musikalen oinarri.

goiena[“]
kide

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Janire Garitano, Nahia Sagastume, Irati Lizarralde eta Eneko Unanue, gaztetxe aurrean. M.A.

"Eroso eta aske" egoteko gunea nahi dute

Herriko 16 eta 25 urte arteko gazteek hartu dute hitza, eta hainbat ideia dituzte esku artean itxita jarraitzen duen Antzuolako gaztetxeari beste buelta bat emateko. Biharko saioan gailentzen den ideia berritzaileak izango du, ordea, gaztetxea zabaltzeko giltza

Maidar Arregi ANTZUOLA Mondragon Unibertsitateko LEINN graduako ikasle talde batek gidatuta, *Piztu Gaztetxea* ekimena abian jarri zuten joan zen asteburuan, Antzuolan. Helburua, aurrez aurreratu moduan, Antzuolak aspaldian duen erroka bati erantzuna ematea izan zuten gazteek: herriko gaztetxea

zabaltzea, alegia. Hori aintzat hartuta, eta ahotsa eta erabakitze ahalmena herriko gazteekin partekatze asmoz, dinamika martxan jarri eta lehen hartu emana izan zuten, zapatu goizean. "*Piztu* ekimenaren helburua ekintzailtza sustatzea izanik, abiatu dugun ekimenak gazteei ahotsa ematean datza.

Horretarako, dinamika berritzaileei esker, gaztetxeari beselako ikuspuntu bat emateko eta hau berpizteko ideiak batzea nahi izan dugu lehen saioan", kontatu du Eneko Unanue *Piztu Gaztetxea* ekimeneko dinamizatzaileak.

Eztabaida-saioan parte hartu duen gazteetako bat da Janire

Garitano antzuolarra. Garitonak dio aurrez ere gazteak batu izan direla gai honen bueltan hausnartzeko, eta ideiak zein iritziak elkartrukatzeko: "Betidanik izan dugu argi gazteendako leku bat behar genuela Antzuolan. Gazte talde bat bagenbiltzan ideari bueltak ematen jada, eta horretan genbiltzala iritsi da eztabaida-saioak egiteko aukera hau. Guztiz finkatuta ez daukagun arren ideia nagusia, argi dugu gazteendako ekintza ezberdinak egin gura ditugula".

garrantzitsuen, gu libre sentitzen garen saioak egitea da eta horixe dugu xede. Dinamika honen inguruan inpresio ona jaso dut, eta datorren saioan are iritzi eta ideia gehiago irtengo direla espero dut. Horregatik, gogotsu nago ekimen honek bere emaitzak eman ditzan. Gazteak animatu nahi ditut bihar egingo den bigarren saioan parte har dezaten eta ideia gehiago partekatu ditzagun elkarrekin", gaineratu du Irati Lizarralde.

Bigarren saioa, zapatuan

Egiari zor, lehen saiora gazte gutxi gerturatu zela aitortu dio Eneko Unanuek GOIENARI. Horregatik, bi adin tartetan banatu beharrean, bigarren saiorako deialdi bateratua egin dute: "Esan beharra dago zapatuko eztabaida-saioan gazte gutxik parte hartu zuela. Hasierako hartu emana egin genuen, eta otsailaren 12rako, zapatua, 16 eta 25 urte artekoendako saio bateratua prestatzea adostu dugu".

Saioak, goizeko hamarretatik eguerdiko hamabietara izango dira eta hor gailentzen den ideia berritzaileak izango du gaztetxea zabaltzeko giltza.

AHALIK ETA IDEIA GEHIEN BATZEKO ASMOZ, BIHAR EGINGO DUTE BIGARRIN SAIOA 10:00ETAN HASITA



NIRE USTEZ

ONINTZA LEGORBURU

Jakintza eta erresistentzia

Inteligentzia, jakintza, ezagutza... Zer hartzen dugu ezagutzat? Eta zein jakintsutat? Nork erabakitzen du zer den jakintza, eta ezagutu beharrekoa?

Trauskila, zakarra, baldarra, arlotea... urteetan zehar nekazaritza eremuari, eta baserritarrei lotu izan zaizkien adjektiboak dira.

Ezjakintasunaren ikur izan dira urte luzeetan zehar baserritarrak; jakintza zer eta nolakoa izan behar den esaten duten horientzat. Jakintza eta ezagutza ez ezik, hitza ere

kendu izan diote baserritarrei. Ezagutzaren eta jakintzaren ikurra da hitza, hizkuntza. Eta berarekin boterea dakar.

Hala ere, eta jakintza zer den adierazten duten horientzat, baserritarrak ezjakin eta hitzik gabeak izan baldin badira ere, guk badakigu erresistentzian bizi izan direla. Eta, are gehiago, oraindik ere erresistentzian bizi direla.

Amonaren irudia datorrit gogora; medikuaren kontsultan zehazki. Medikuek diagnosia azaldu,

eta berau ulertzeko zailtasunak dituen emakumea datorrit gogora. Medikuek buelta hartu, eta berehalako azkartasunarekin ahopean niri begiratu, eta: "*Horrek zer uste jon ba...? Nik esaten bajotxanatz gainak batzeko motxardia ekartzeko, ia zer ekarriko loztakien!*".

Horixe da erresistentzia. Isilik eta ezjakin irudikatu zaituztenen aurrean, norberaren jakintza balioan jartzea. Isilik eta ezjakin irudikatu zaituztenei, hiztegi amaigabe bat daukazula adieraztea.



EIDER MONCAYOLA

Kandela eta Opilei gorazarre

Pandemiaren eraginez, aurtengoan ere ez da posible izan Basalde auzoko San Blas ermitan kandela eta opilen bedeinkapena ospatzea. Hala ere, Errukizko Amaren Parrokian, Juan Bernabe apaizaren gidaritzapean, batu dira haurrak eta helduak San Blas eguneko opilei eta kandlei gorazarre egiteko, eta, era berean, tradizioari eusteko.

Antzuolako Zortzi Miliak, datorren asterako gertu

300 lasterkari inguruk hartuko dute parte datorren domekako proban. 10:30ean Herriko Plazan hasita, Irimora igo, Trekutetik igaro eta Herriko Plazan bukatuko dute parte-hartzaileek proba. Antolatzaileak "pozik" agertu dira izandako harrerarekin

Jone Olabarria ANTZUOLA

2021ekoa osasun larrialdiagatik bertan behera laga ostean, 2022ko otsailaren 20an egingo dute Antzuolako Zortzi Milien hurrengo hitzordua. Bederatzigarren aldian izango da, eta, ohi bezala, 13,83 kilometroko ibilbidea eta 836 metroko desnibel positiboa izango du lasterketak. Herriko Plazan hasi, Irimora igo, Trekutetik igaro eta hasitako tokian amaituko da A8M taldeak eta Antzuolako Udalak antolatzen duten lehia.

Ia 300 laguneko parte-hartzaileekin, izen ematea ireki eta lehen hiru orduetan agortu ziren dortsalak. Bederatzigarren aldian izanda, lasterketa geroz eta errotuago dagoela azaldu du antolakuntzako kidea den Gurutz Larreak: "Azken bost urteetan izugarritxo parte hartzea izan dugu, aurtun hiru ordu behintzat irau zuen zabalik izen emateak, baina duela bi urte lehen orduan agortu ziren dortsal guztiak. Halako harrera ona duela sinetsia ere zaila da guretzat".

Aurten, ia 40 antzuolar

Hain zuzen, "mendiarekiko afizioa eta kirol zaletasuna herrian bultzatzeko" asmoz jarri zuten martxan proba duela ia hamar urte: "Debagoienean jende askok egiten du korrika mendian, baina guretzat oso garrantzitsua zen antzuolarrak ere animatzea. Aurten 40 antzuolar inguru izango dira. Jendea apurka animatuz doa, eta hori guretzat lorpen handia da".

Lasterketaren planteamendua aurreko urteetako izango dela zehaztu dute, nahiz eta COVID-19a dela eta, zenbait neurri hartu beharko dituzten: "Irteerako unean, plazan, jende asko pilatzea aurreikusten dugu, eta hortaz maskara jantzita izan beharko da uneoro bertan. Helmugan ere maskara jantzi beharko dute berriz parte hartzaileek.



Hiru parte-hartzaile plazan helmugaratzen, 2020ko aldian. GOIENA

"40 ANTZUOLAR INGURU IZANGO DIRA. JENDEA ANIMATU DA, ETA HORI GURETZAT LORPEN HANDIA DA"

Goiz osoko egitaraua

- **10:30 A8M Helduen Mendi Lasterketako Irteera.** Parte-hartzaileek maskara jantzi beharko dute dortsalak hartu eta irteerako unean.
- **11:00 A8M Minimotoren lasterketa.** Plastikozko motortxoak eta kaskoak parte-hartzaileek ekarri beharko dute eta gurasoen baimenak bertan jasoko dira.
- **Jarraian hamarretakoa**
- **13:00 Sari banaketa.** Plazan izango da.

Ibilbidean zehar maskarak bota ahal izateko hainbat puntu ere jarriko dira".

Txikienendako, motorrekin

Lasterketa 10:30ean hasiko den arren, goizean zehar hainbat ekintza antolatu dituzte herria girotzeko. Hamaiketako egingo dute haurrendako minimotoren lasterketa, eta ostean hamaiketako egingo dute. Sari banaketa 13:00etan egingo dute, plazan bertan ere.

Osasun egoera dela eta, ekintza horiek antolatzerakoan "zailtza asko" izan dituztela aitortu dute, eta oraingoz aurrera egitea erabaki badute ere, zuhurtziaz jokatzeko deia egin dute antolatzaileek.

Hainbat sorpresa

Faboritoez galdetuta, azken edizioa bi irabazleek aurtengoan ere parte hartuko dutela zehaztu du Larreak. Bestela ere, ezustekoa eman dezaketen hainbat korrikalari ere espero dituztela azaldu du: "Oraindik guztiz konfirmatu ezinda, baina aurreikusitako zenbait korrikalarik parte hartzen badute polita izango da horiek ikustea gurean".

Frontoiaren erabilera sustatzeko, berogailua jartzeko lanean

Gasa erabiltzen duten bi irradiatze-hodi jarriko dituzte, eta lanek iraun bitartean itxita egongo da pilotalekua

J.O. ANTZUOLA

Joan den egubakoitzean hasi zituzten Antzuolako pilotalekuan berogailu sistema jartzeko lanak eta datorren asterako bukatuta izatea aurreikusten dute. Orain arte, frontoiak ez du inoiz berogailurik izan eta hori dela eta, kirola egiteko erabiltzeaz gain, edozein jardura muntatzea oso zaila dela azaldu du Antzuolako Udala aparejadorea den Valen Moñuxek: "Bazkariak, kontzertuak..., ia ezinezkoa zen ezer antolatzea. Kirola egiteko ere, ez zen leku egokia, umeentzat adibidez".

30.000 euroko aurrekontua

Eraikinaren ezaugarriengatik epeltasuna mantentzeko zailtasunak izan dituzte. Eraikina bera oso handia, altua eta hotza dela azaldu du eta, gainera, hormen gainean zulo bat zuen. Haize beroak hortik ihes egiten zuten: "Goian zegoen tarte hori tapatu da, korronterik ez egoteko eta berogailu sistema jarri da, irradiatze sistemarekin".

Gasa erabilita funtzionatzen duela azaldu du, "lantegietan oso ohikoa izaten den berogailu sistema" da. Bi irradiatze-hodi jarriko dituzte, 50 kilowatteko potentziarekin. Lanok egiteko aurrekontua 30.000 eurokoa da.

Kontsumoa, "oso aldakorra"

Batez beste, eta bi hodiak martxan izanda, orduko 11,14 kiloko kontsumoa duela zehaztu dute. Dena den, hilabetearen arabera



Pilotalekuko lanak, asteon. V.M.

energia kontsumoa "oso aldakorra" dela azaldu dute. Hasiera batean, lan horiek egin bitartean frontoiaren kantxa erabilgarri egotea aurreikusten bazuten ere, segurtasun-kontuak tarteko, ezinezkoa izango dela jakinarazi dute.

Hortaz, berogailuak jartzeko lanak bukatu arte, eta segurtasuna bermatzeko asmoz, frontoia itxita egongo da bi astez. Hala ere, pilota entrenamenduak eta aurrez programatutako partiduak bere horretan mantenduko dira bitartean.

Elurraz gozatzeko, Belaguara irteera egingo dute Arrolatik

Bihar, zapatua, goizaldean abiatuko dira Belaguara. Arrolak antolatuta, fondoko eskia nahiz erraketekin txangoa egingo dute 19 antzuolarrek. Bestalde, Jokin Lizeaga mendi korrikalariak hitzaldia eskainiko du datorren egunean, otsailaren 17an, Torresoroan, 19:00etan. Mendi lasterketen entrenamenduak jardungo du.

ONCEko Oroimenak taldearen antzezlanak, egubakoitzean

Landatxopek antolatuta, egubakoitzean, ONCEko Oroimenak taldea Torresoroan izango da. Askotariko gizarte gaiak lantzen dituzten antzezlanak gozatzeko aukera izango da bertan, 18:00etan hasita. Bestalde, gogoratu Extremadurarako bidaiarako izena emateko egunak otsailaren 15a eta 16a direla, 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Josi eta josi ari dira, koko-jantziak gertatzen

Hiru aste dira Elgetara dozena bat ardi larru iritsi zirela, eta honezkero prest daude 'Hartza', bizpahiru 'Burburixo', 'Sasi-kartia' eta pare bat 'Mamarru'. Atzeko lan dezente dakar koko-batzea antolatzeak, baina konpartsa ari da forma hartzen

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Lehenengo urtea izanik dena dago egiteko, eta buru-belarri ekin diote joskintza lanetarako prest agertu diren boluntarioak. Udalak lagatuko buztin gelan prestatu dute aldi baterako tailerra, eta ia egunero egoten da bateren bat jantziren bat prestatzen ez bada osagaiaren bat nola lortu asmatzen.

Hartza egitea zen garrantzitsuena, eta hori izan da lehenengo egitekoa. Ez da langintza erraza ardi-larrua jostea, eta komeria batzuk ibili dituzte larrua ondo josten asmatu bitartean. Baina lortu dute, eta prest dago jantzi dotorea.

Hasieratik zegoen argi, baita ere, *Sasi-kartia* deituriko pertsonaia konpartsan izango zela. Gorputza landarediaz estalita ibiliko da aurrera eta atzera, zein zuhaixka ibiltari. *Mamarruak* ere egongo dira; bi, hain zuzen ere. Segizioari bidea zabaltzen joango dira zakuzko oihalekin egindako jantziekin. Eta azken uneko erabakia izan da gutxienez *Burburixo* pare bat ere egitea. Ardi-larruzko jantzia, zintzarriak, landarez ornitutako kapela eta hiru puntako sardea eramango dituzte.

Lan handia dago mozerro hauen guztien prestaketan, eta gogoz

aritu dira Iratxe Bravo, Arantxa Arrastia, Mireia Berriozabal, Ana Gillegi, Olga Fernandez eta Ana Royuela, besteak beste. "Pertsonaia batzuk hasieratik egotea nahi genuen eta lortuko dugu. Eskerrik asko jostun taldeari", azaldu dute Goibeko elkartetik.

Baserriak lotzen

Otsailaren 19an baserri baserri ibiliko den kokoen konpartsak zein ibilbide egingo duen guztiz zehaztu barik dago oraindik, baina badoa forma hartzen. "Aurten, Gudarien Bidetik gora dauden baserrien txanda izango da, goi aldekoena", azaldu dute antolatzaileek. "Hasi gara baiezkoak jasotzen: Albitxu, Altube, Arantzeta, Eguarbitza, Iturbe, Barrenengua, Larrain... Baiezkoa ematen dutenetara joango gara, eta uzta ona opatuko diegu kantuz".

Ibilbidea erabaki eta gutxi gorabeherako ordutegi batzuk zehaztea ez da lehenengo urtean

GAZTEEN ARTEAN MATERIALA BANATZEKO BATZARRA, GAUR, 19:00ETAN

erraza izango, baina ahalegin horretan dihardute. Otsailaren 19an, 08:00etan elkartuko da konpartsa Ozkarbi elkartean. Gosaldu eta 9:00ak alderako abiatuko dira Uriarte aldera. Eskerako koplak ere prest dira:

Koko-moko, zaria bete moko. Gibel, gibel, afarittarako. Dirua baneuka, patrikarako.

Hala, hala, hauxe karnabala! Goazen, goazen gosetu ein garala. Hau etxiau luze gorde daixala!

Hiru mila euroko inbertsioa

Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik aurreikusten dute ekimenak 3.000 euro inguruko inbertsioa suposatuko duela. "Hau dena posible egiteko behar beharrezkoak zaizkigu Goibeko Euskaltzaleen Topaguneko bazkideak eta kuotak. Koko-batzeak boluntario lan handia du eta eskerrak! Hala ere, eta hasierako kalkuluak handiagoak baziren ere, 3.000 euro inguruko inbertsioa ikusten dugu: ardi-larruak erosi, jantziak egiteko materialak, edalontziak, disfraz elementu batzuk, jan-edian, soinu eta panderoa, elektrotzaranga herri guztiarendako arratsaldean... Udalak lagundu du heren bat, baina beste guztia bazkideoi eskerrak



Koko-jantziak batzuk prestatzeko jostun lanetan, buztin gelan. I.A.

izango da posible", azaldu du Goibekoko presidente Ainara Iribarrek.

Parte hartzeko deia

2005ean jaiotako elgetarrak izango dira aurtengo konpartsan gazteenak. Hogei urtera artekoak *Gorrixak* izango dira, eta gainerakoak koko-beltzak. Parte hartzeko dei egin dute antolatu-kuntzatik. "Aratusteak inper-

fektuak dira! Baldarrok be paper ona egiten dugu. Ganbarak astintzeko unea da. Ez utzi azken egunerako!", ohartarazi dute.

Oraindik ere egon daitezkeen zalantzak argitzeko, eta batez ere gazteei antifazak eta zapa-tak-estaltzekoak banatzeko batzarra izango da gaur, 19:00etan, gimnasioan. Ordu erdiko kontua izango dela azaldu dute.

Korrika batzordea eratzeko dei egin dute eguaztenerako

Ikuska Lizarralde da bailarako Korrika koordinatzailea; 18:30erako dago deituta herri mailako lehen batzarra

L.Z.L. ELGETA

HitzEkin lelopean egingo da 22. Korrika. Amurriotik abiatuko da martxoaren 31n eta Donostiara helduko da apirilaren 10ean. Korrika ez da oraingo honetan ere Elgetatik pasako, baina bai

Debagoienetik; apirilaren 1ean, hain zuzen ere.

Korrikarekin bat egiteko deia luzatu dute, eta lehen batzar irekia dago iragarrita eguaztenerako, hilak 16, 18:30ean udal-txean. Ikuska Lizarralde izen-

datu dute Debagoieneko Korrika koordinatzaile eta hark gidatuko du batzarra. Batzordea eratu eta lehenengo egitekoak abiaraztea da helburua; Korrika laguntzaile kanpaina, material salmenta, Korrika Kulturala, Korrika Txikia...

2015ean pasa zen Korrika Elgetatik azkenengoz. Herri erdi erditik igaro zen. Aurtengo edizioari dagokionean asmoa da elgetarrek Debagoieneko ibilbidean tarte bat edukitzea lekukoa hartu eta zati bat egiteko.



Korrika, Elgetan, 2015eko martxoaren 23an. L.Z.L.

Kontu kontalari saioek aurrera egingo dute

Otsail hasieran bete dira zortzi urte 'Ipuinen Ordua' ekimena martxan jarri zenetik. Orduetik saioen maiztasuna eta iraupena aldatzen joan da, baina beti izan du boluntario talde baten lana atzetik, eta, batez ere, umeen onarpena eta jarraipena

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Gaur egitekoa den ipuin saioarekin estreinatuko dute 2022a *Ipuinen Ordua* ekimeneko kideek. Udal liburutegitik bultzatutako eta koordinatutako egitasmoa da, eta dozena bat kontu kontalari boluntarioen babes du.

Koronabirusak baldintzatutako protokoloa moldatuz joan dira azken boladan; izan ere, beharrezkoa izan da saioen maiztasuna, antolaketa eta abar egokitzen joatea. Hiru adin tarteko umeendako saioak izan ohi dira, eta otsailetik aurrera hiruk hileko egun berean egingo dira, atzera ere.

Hogei minutuko saioak izango dira, eta unean-unean indarrean dauden segurtasun neurriak beteta egingo dira. Aurrerantzean, beraz, 17:30ean hasiko da HH3, HH4 eta HH5 geletako umeendako saioa. HH5, LH1 eta LH2koen txanda 18:10ean hasiko da; eta LH3 eta LH4ko neska-mutikoena 18:50ean.



Boluntario taldeko Aitziber Askasibar umei ipuina kontatzen. ELGETAKO LIBURUTEGIA

Kontalaritza tailerra

Aurreko urteetan moduan kontalaritza tailerra egingo dute liburutegian. Kontalari boluntarioendako ez ezik interesa lukeen edozein herritarrendako da. Otsailaren 16an emango dio-

te hasiera, eta bina orduko lau saio izango dira guztira. Amaia Elizagoien kontu kontalari nafarrak gidatuko du. Interesatuak martitzenera arteko epea dute izena emateko. Liburutegian jaso daiteke argibide gehiago.

"Denok dugu kontalari bat barrenean, nire ustez"

AMAIA ELIZAGOIEN IPUIN KONTALARIA

Ameli, ipuinen jostune du izen artistikoa, eta bertsolaria ere bada gaztetatik. Baztandarra da Elizagoien (Oronoz-Mugairi, 1994) eta Elgetan izango da kontalaritzari buruzko formakuntza gidatzen.

Zein asmorekin zatoz Elgetara?

Helburua da kontalaritzaren mundu ezezagun hau ezagutzera ematea eta ondotik kontatzeko teknika batzuk lantzea. Nire helburua da liburutik urrunduta gaitasunak biltzea ipuinak kontatu ahal izateko. Tarte bat ere eskainiko diegu kontatzeko egokiak

diren ipuinei edo haurrekin lantzeko egokiak iruditzen zaizkidanei.

Zergatik da garrantzitsua kontalaritza bultzatzea?

Kontalaritzak badu transmisioan paper oso garrantzitsu bat. Kontalariok kultura, hizkuntza eta gure herriaren ondarea

transmititzen ditugu. Ohartzen ote gara zenbat kontalari dauden Euskal Herrian? Liburutegietan gordeta egoten garenez ez gaituzte asko ikusten. Eskoletan ere hainbat irakaslek ipuinak kontatzen dituzte. Ezinbesteko funtzioa betetzen dute gure gizartean.

Elgetan boluntario talde batek ere badihardu horretan.

Gure herriaren oinarrietako bat herrigintza da, eta nire ustez herria egiten duena, batez ere, hizkuntza da. Hala, herritarrek interesa erakustea egiten duten lan boluntario hori oraindik eta hobea egiteko, oso ederra iruditzen zait.

Umeek adi-adi entzuten dituzte ipuinak. Zergatik lilura hori?

Haurrek badute berezko intuizio bat, eta ahozkotasanak badu erritmo bat biologiari askoz ere lotuagoa dagoena ikus-entzunezko produktuena baino. Hitzaren bitartez lortzen da entzulearen imajinarioa zabaltzea, bidaia kolektibo bat egitea, eta uste dut horrek sortzen duen zirrara eta horrek duen balorea indar handikoak direla oraindik ere.



DANI BLANCO - ARGIA



ELGETAKO LIBURUTEGIA

Pornografiaren argiak eta itzalak

Mahibar&Co sexologia zerbitzuko Ainara Brusau Salaberriak ireki zuen, eguaztenean, liburutegiko *Bibliobero* zikloa. Pornografiaren alde argiak eta ilunak izan zituen hizpide. Askotariko adibideak eta argibideak eman zituen, eta neurri handi batean

sexologia zerbitzuan artatzen dituzten kasuak oinarri hartuta. Ohartarazi zuen, oraindik ere, hutsune handiak dituen sexu heziketa dagoela indarrean eta pornografia ezin daitekeela izan gazteek sexualitatearekiko duten erreferentzia bakarra.

OHARRAK

Udal zergetan hobariak eskatzeko epea

Elgetako Udalak martxoaren 4ra arteko epea zabaldu du hobariak eskatzeko ondasun higiezinaren gaineko zergan zein ibilgailuen gaineko zergan. Argibide gehiago Udal bulegoetan edo 943 76 80 22 telefono zenbakian.

Mintzalagunen irteera

Debagoieneko mintzalagunek irteera bateratua egingo dute, zapatuan, Arabako Elosu herrian dagoen Euskal Buztingintza Museora. Prezioa da 3 euro. Izena emateko: 943 78 80 12 / 688 72 96 03 / berbetan@elgeta.eus.

Andoingo piano jaialdia aste bukaeran

Asteburu honetan egingo dute urteroko piano jaialdia Andoingo Bastero aretoan. Elgetako hiru ikasle izango dira bertan; Mirari Gonzalez, Laida Untzetabarrenetxea eta Irea Alberdi.

Elgetatik pasako da Euskal Herriko Itzulia

Apirilaren 4tik 9ra jokatu da Itzulia, eta apirilaren 5eko etapen Elgetatik igaroko da tropela. Elorriotik igoko dira ziklistak Elgetara, eta Karabieta aldera hartuko dute.



Ikasle talde bat Arrikruzeko koba barrutik nolakoa den ikusten. OINATUR

Erraia eta soina ikasleei erakusteko programak

Bizpahiru egunetako egonaldiak eskaintzen dituen eskaintza bateratua prestatu dute elkarrekin Arrikruzek, Arantzazuko parketxeak eta aterpetxeak, ikasle talde bakoitzak bere helburu edo beharretara moldatu dezakeena. Harrera ona izan du

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Oñati eta Arantzazu inguruan dauden baliabideak bateratu eta egonaldiak eskaintzen dituzten gunea direla aprobetxatuz, inguruan ikusten dena eta begi bistan ez dagoena erakusteko aukerak jasotzen dituzten hezkuntza programak prestatu dituzte, elkarrekin, Arrikruzek, Arantzazuko parketxeak eta aterpetxeak.

Bizpahiru egunetarako

Egun pasa etorri beharrean, bizpahiru egunetako irteerak egiteko programak prestatu dituzte. "Aizkorri Aratz parke naturalean basoak, mendiguneak, fauna, Arantzazu beraren historia, artea, mitologia... ezagutu daitezke adibidez. Eta Arrikruzen, berriz, erraiak eskaintzen ditu, ez bakarrik mendiaren barrenak, baizik gure jatorria, gizakiaren historia ezagutzeko modua. Kobazuloak beti egon dira lehen gizakiarekin lotuta, nola bizi ziren, zer egiten zuten,

zizutzen ohiturak eta lan tresnak... Kanpokoaz eta barrukoaz ikasteko aukera eskaini gura izan dugu eta hortik dator programaren izena: *Arantzazu eta Arrikruz: Oñatiko erraina eta soina*", azaldu du Arrikruzeko hezitzaile Leire Garaik.

Programa hauetan parketxean zein Arrikruzen egin daitezkeen irteeren, tailerren edo jolasen eskaintza dator, ikastetxe bakoitzak bere helburuetara egokitu dezakeena. Adibidez, ekosistemak landu gura badituzte, basokoa eta kobazulokoa landu ditzakete, horretarako propio antolatutako ekintzen bitartez. Oinarri bat dira eskaintzak, hezkuntza zentro bakoitzak, aukerak gehituz edo kenduz,

HAINBAT IKASTETXEK AGERTU DUTE INTERESA, BAINA EGUNA ZEHAZTEKE UTZI, EGOERAGATIK

bere beharretara moldatu ditzakeenak. Bi edo hiru eguneko egonaldiak daude aukeran eta gauak, aterpetxean egingo lituzkete ikasleek. Begirale lanak, berriz, parketxeko eta Arrikruztzeko hezitzaileek.

Mantentzeko pentsatuta

Programa bateratuak prestatu eta Euskal Herriko zentroetan aurkeztu dituzte partaideek. Harrera ona izan dutela adierazi du Garaik: "Egia da hezkuntza komunitateak aldaketa asko egin dituela pandemiagatik dagokion egoerara moldatzeko. Oraindik ere ez dakite egoera berrian nola jokatu behar duten eta horregatik, hainbat ikastetxek interesa agertu dute baina eguna zehaztu barik utzi".

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dagoen arren, ez dago erabat mugatuta. Ikasturte honetan hasi dira eskaintza bateratu honekin baina dinamika hartu eta mantentzeko pentsatuta dago.

Astelehenean egingo da Korrika batzordea osatzeko bilera

Bilera irekia da eta Korrikarekin zelan bat egin eta zer eta noiz antolatu pentsatzeko gunea izango da

O.E. OÑATI

Korrika batzordea eratu eta Korrika bailaratik pasako denarako zer egin eta harekin zelan bat egin pentsatzen hasteko bilera egingo dute datorren astelehenean, hilak 14, 18:00etan, kultura etxean.

Debagoieneko Korrikaren koordinatzaile Ikuska Lizarralde adierazi duen moduan, proposamena da batzordea hamabostean behin elkartzea eta batzarrak irekiak direla nabarmendu du. Herriko edozein eragilek zein norbanakok parte har dezake bilera hauetan proposamenak eginez, iritziak emanez...

Zelan, non eta noiz

Joan den urtean zen egitekoa Korrika baina bertan behera gelditu zen pandemiagatik, eta martxoaren 31tik apirilaren 10era zeharkatuko du Euskal Herria



2019ko Korrika, Oñatitik. GOIENA

aurtengoak, Amurrion hasi eta Donostian bukatuta. Oñatitik ez da pasako baina bai Elorretitik, Bergaratik Arrasaterako bidean. Aurtengo Korrikan zelan parte hartu erabakitze gunea izango da herriko Korrika batzordea.

Basoak eta lurzorua izango dituzte hizpide asteko hitzaldietan

Klima aldaketak XXI. mendeko basoetan izan eta izango duen eraginaz hitz egingo du martitzenean, 19:00etan, kultura etxean, Julen Astigarraga ekologoak. Natur Eskolak antolatu dituen ingurumen jardunaldietako lehen hitzaldia izango da. Eguaztenean, lurzoruari buruz mintzatuko da toki eta ordu berean Nahia Gartzia edafologoa.

Jardunaldiak berez aste honetan hasi dituzte. Ate irekiak dituzte Natur Eskolan hilabete osoan eta azken egun hauetan joan da jendea eraikin eraberri-tua bertatik bertara ikusi eta azalpenekin batera bisitatzen. Zineklubean botako dituzten hurrengo bi emanaldiak ere lotura dute jardunaldiekin eta irteerak ere egingo dituzte; hilaren 19an, esaterako San Martingo hariztira joango dira. Felix Calvoren argazki erakusketa zabalik dago kultura etxean.

Bilbon egingo den manifestaziora doaz bihar erretiratuak

Gutxieneako pentsioaren aldeko manifestazioa egingo dute pentsiodunek bihar, zapatua, eguerdian Bilbon, eta harekin bat egingo dute herrikoek. Autobusean joango dira, 10:00etan postetetik irtenda. Joan gura duenak aurrez eman behar du izena Olakua eta Arrano tabernetan edo Eskolatxok San Lorentzoz duen okindegian.

Zirku tailerra eskainiko du bihar ludotekak plazan

Plazan egingo du geldialdia bihar, zapatua, goizean Txaloka ludoteka ibiltariak. Zirku eta malabare tailerrak eskainiko dizkie gerturatzen diren umei 10:30etik 13:30era eta denek parte hartu ahal izango dute. Martxoaren 12an Olakua auzora joango da ludoteka ibiltarira eta eraikuntza jolasak egingo dituzte; maiatzaren 7an, San Anton plazara.

"Tolosar asko ari ziren mozorroak prestatzen"

XABI BIKUÑA LOSADA TOLOSAN BIZI DEN OÑATIARRA

Bikoteak eta biak iaz ikastetxean egindako ikuskizunak harrera ona izan zuen eta Udalak Leidorren egitea proposatu zien, herritar denendako, baina ezingo dute egin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Hamar dute dira Xabi Bikuña Losada (Oñati, 1978) Tolosan bizi dela eta gogoz bizi ditu hango Aratusteak. Aurten ez direla ospatuko esana du hango Udalak baina zer gertatuko den ikusteko dagoela dio. Oñatiko Inauteriak taldearen gonbidapena ere jaso du hemen parte hartzeko. **Hango Aratusteekin kutsatuta dagoeneko, beraz?**

Bai, bai. Gustatzen zait mozorrotu eta kalera ateratzea. Badakigu Oñatin Errosaixo Bixamon egunean indar handiagoa dutela mozorroek, baina Oñatzeekin batera dantzan ere ibilia naiz Oñatiko inauterietan. **Karroza eta guzti ateratzen zara?** Ez, baina bai mozorrotuta. Aste barruko egunetan, berriz, lanetik bueltatzean elkartzen naiz etxeekin eta lagunekin kalean, eta haiekin batera ospatzen ditut, iluntzetan.

Aurten, baina, eta bigarrenez, Tolosan ez dira ospatuko. Zer sumatzen da kalean bezpera egunetan?

Inork ez du gaiaz hitz egiten. Aurten Aratusteak egingo zirela esan zuen lehenengo Udalak, eta ezetz gero. Baina bitarte horretan jendea hasi zen ideiei forma ematen, ze karroza egingo duen pentsatzen, gauzak lortzen... eta ikusten da jendea prestatzen ari dela. Joan den urteko erabakia penaz hartu, baina ondo bete zuten herritarrek. Baina aurtengoa onartzea zailagoa egiten zaie, ikusita, gainera, herri askotan ospatuko direla. Aratusteak jai handiak dira tolosarrendako, gainera urtero ikusten da zer lan hartzen duten lehenengo ideia izaten eta gero horri forma ematen, eta aurten ere ikusten da mugimendua lokaletan.

Zuen ikuskizuna, baina, ez duzue egingo.

Tamalez ez. Joan den urtean ikastetxeko aretoan prestatu genuen ikuskizun bat hainbat



Xabi Bikuña Losada oñatiarra. X.B.

"OÑATIKO IÑAUTERIETAN HARTU IZAN DUT PARTE ETA AURTEN ERE GONBIDATUTA NAGO"

gurasok. Bikotekidea eta biok Aratusteetan garrantzia hartzen duten erraldoiez mozorrotu ginen. Benetako erraldoiak ere etorri ziren eta txikiak, gomazkoak, ere eraman genituen, eta beste gurasa batzuekin batera ikuskizuna egin genuen, gu biok oholtza gainean istorioak kontatzen geundela. Karnal Jauna pertsonaia ere egon zen... Oso harrera ona izan zuen eta Udalak eskaini zigun aurten Leidor guztiendako. Hori zen asmoa, baina azkenean ez dugu egingo, ez. Ea datorrenean posible den.

Zuk prest duzu mozorroa?

Ez propio aurtengo prestatutakoa, baina armairuan beti egoten dira batzuk badaezpadaoetan hartu eta janzteko modukoak.

Bat baino gehiago eta ezberdinak behar izaten dira gainera, ezta?

Bai. Urte batetik bestera errepikatu daiteke agian bat, baina urte berean ezberdina janzten du jendeak egun bakoitzeko.

Zergatik dira bereziak Tolosako inauteriak?

Oso herrikoiak dira. Herritar denek hartzen dute parte eta oso serio hartzen dituzten jaiak dira. Hau da, adibidez, dianaren ordutegia eta kanta errespetatu behar dira, elkarte gastronomikoen txarangak noiz eta zeintzuk joko duten zehazten dute, musika dezibelioak araututa dituzte... Ordu asko irauten duten jaiak dira, kalean, baina herritar denek parte hartzen dute, herrikoiak dira oso eta horrek baduela indarra iruditzen zait.

Eta nola bizi edo ikusten dituzu Oñatiko Inauteriak?

Iruditzen zait Oñatz taldeak lan ona egin duela dantzak ekartzen eta inauterien ohitura edo historia herrian zabaltzen. Nik parte hartu izan dut eurekin batera dantza eginez herriko kaleetan. Eta aurten ere badut joateko gonbidapena.

Eta etorriko zara?

Agian dantza egitera ez. Ez dakit oraindik zer egingo dudan baina gonbidapena badut.



O.E.

Ziburu berriak San Martinen

Ziburu zaharrak kendu eta elementu berriak jarri dituzte San Martingo jolas-parkean: txirristak eta suhiltzaileren barra zein eskalatzeko guneak dituen lau dorredun ziburu bat, bolanteari emanda bueltak ematen dituen beste bat, bi eserleku bultza eginaz ibiltzeko eta paella-ontzi itxura duen beste bat. Auzotarren eskaera izan da jolas-parkea eraberritzea.

NIRE USTEZ



RAMON MARTIN

Memoria ezabatzeak

Duela gutxi argitaratu da 70eko trantsizio garaian, "estatuaren segurtasunari" buruz frankismoak sortutako dokumentu asko erre zirela. Agindua zen artxiboetan zeuden ekintza politikoetan ibilitako pertsonen dokumentu guztiak suntsitu behar zirela. Garaiko barne ministroak (Martin Villak) hauxe zioen: suntsiketak "normalizazio politikotik eratorritako adiskidetasun-espirituari" erantzuten ziola.

Gurean, berria zaratarik apenas atera gabe joan da.

Orduko suntsipenak baldintzatu egiten du oraina, dokumentuak galtzeak ekarri du interesdunek erreklamatzeko dituzten frogak desagertzea. Atzoko suntsipen harekin, ezagutzeko eskubidea galdu dute gaur.

Baina humanitate puntu bat ere galdu dute. Normalean pentsatzen denaren kontra, dokumentuak ez dira hotzak, dokumentuek jendearen testigantzak humanizatzea ahalbidetzen dute, testigantzei indarra eta bizia ematen diete. Babesa dira sufritu zutenentzat. Epe historiko bat ixteak ez du esan nahi, inola ere, memoria ezabatu behar denik.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

"Helburua jarrita dugu eta bide onetik goaz"

JULEN CARR ALOÑA MENDI ARETO FUTBOLEKO KAPITAINA

Sasoiko dago Ingou Coinbroker Aloña Mendi areto futbol taldea eta lehen postuetan jarraitzeko helburuarekin aterako dira jokalaria Zubikoako kantxa berdera zapatuan

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Lehen lau postuen barruan dabil azken jardunaldietan Ingou Coinbroker Aloña Mendi areto futbol taldea. Hiru partidu baino ez ditu galdu denboraldi honetan, eta garaipena lortzen saiatuko da asteburuan ere. Zubikoan dute partidua, zapatuan, 16:00etan, Donostiako Makax taldearen aurka.

Azken jardunaldia galdu egin zenuen, baina sasoi onean dago taldea, ezta?

Bai. Denboraldi hasieran jarritako helburuak buruan ditugula ari gara jokatzeko eta bide onetik goazela uste dut; ea lortzen ditugun.

Zein da jarritako helburua?

Mailaz igotzea. Gauden tokian mantentzea ere ez da emaitza txarra izango, baina helburua lehen mailara igotzea da.

Pandemia aurretik jokatzeko hasi eta denbora batez geldirik egonda, ez dituzue aurkariak ere ondo ezagutu, ezta? Desabantaila da hori?

Jokalari batzuk gazte mailan jokatzeko gurentzat ezagutzen ditugu baina asko berriak dira eta lehen itzulia horretarako baliagarria izan da, taldeak ezagutzeko eta bakoitzak duen jokoen ezaugarriak zeintzuk diren ikusteko.

Zeintzuk dira zuenak? Zertan zaretze indartsuak eta zer duzue hobetu beharra?

Esango nuke nahiko talde osatua dela gurea eta ez dugula puntu ahul edo indartsu konkreturik. Batzuetan gertatzen da aurrean dena ondo ateratzea eta beste batzuetan ez, baina ez horretan hobeak edo okerragoak garela. Azken partiduan, adibidez, argi dago atzealdean makax ibili ginelako galdu genuela, baina ez da beti gertatzen den zerbaite. **Zertan dira lesio kontuak?**

Zorte ona izan dugu gai horretan orain arte. Egia da lesioak izan ditugula, neu ere egon naiz geldirik aste batzuetan, baina ez dira



Julen Carr, areto futbol taldeko kapitaina. J.C.

"GERO ETA JENDE GEHIAGO IKUSTEN DUGU HARMAILETAN GURE PARTIDUETAN, ETA POZGARRIA DA"

lesio handiak edo luzeak izan, eta orain arte ez dugu lesioengatik bakarrik izan taldean.

Donostiako Makax taldearen aurka jokatu duzue zapatu arratsaldean Zubikoan. Nolako taldea da?

Lehen itzulian euren kontra Donostian jokatu genuenean lehen postuan zeuden, liderrak ziren. Errespetu handiarekin joan ginen hara, urduri. Ondo jokatu genuen eta irabazi egin genuen partidu hura -2 eta 8-, baina talde ona dela iruditu zitzaigun. Ez ditu emaitza txarrak lortu eta ikusteko dago zer gertatuko den.

Etxeko zaleen animoak laguntzen dute partidua irabazten?

Oso lagungarriak dira, benetan. Zubikoan beti egoten da jendea. Eskubaloiko eta saskibaloiko partiduak daudenean ere zale asko joaten da ikustera. Guk igarri dugu aldaketa bat hasie-

ratik hona. Denboraldi hasieran gertuko jendea joaten zen, beste hainbat ere bai, baina gehienak ezagunak ziren, jokalarien gertukoak. Azkenaldian, aldiz, jende gehiago ikusten dugu harmailetan eta hori oso pozgarria da guretako. Euren babesak indar handia ematen digu. Asko eskertzen da.

Aurtengo denboraldian, gainera, infantil mailako bi talde sortu dira. Pozgarria izango da, ezta?

Oso. Gaztetxoak areto futboleko jokatu gura dutela ikustea pozgarria da, bai. Ez du beste kirol batzuk duten jarraitzaile kopuru bera, baina etorkizuna bada goela dirudi.

Euren erreferente izango zarete zuek.

Horrela izango da agian, bai. Normalean goiko taldeak hartzen dituzte erreferente edo eredu azpikoek, eta kasu honetan gurea da areto futboleko Aloña Mendiko talde gorenaren. Beraien entrenamenduak geuk zuzentzen ditugu eta badugu lotura eurekin. **Zapatukoak, beraz, nolako partidua izango da?**

Joko ona egitera aterako gara, eta emaitza ona lortzera. Ea horrela den.

Otsoen bidetik pasako dira hilaren 20ko mendi irteeran

Araba eta Nafarroan artean dauden Kodes mendilerroa izango da otsailerako Aloña Mendiko mendi sailak antolatu duen irteera. Jodar mendia da (1.411 metro) bere punturik altuena eta bertaraino joango dira, Kodes santutegitik atera eta La Planako bidea hartuta. Jaitsiera Kanpezura egingo dute, otsoen bidetik.

Guztira hamabost kilometro dituen irteera da, sei bat ordu egiteko modukoa, 900 metroko desnibelarekin. Hilaren 20an egingo dute, 07:00etan postetik irteera, eta izena emateko azken eguna otsailak 17 da, Aloña tabernan. Derrigorrezkoa da federatuta egotea.

Kanaria Handian eta Caceresen izango da Ainara Uribarri

Kantabriako kilometro bertikala irabazita, martxoko erronkei begira dago orain Ainara Uribarri: lehen asteburuan Kanaria Handian egingo den 20. Transgrancanaria lasterketa batetik, Brooks etxearekin, eta bigarren asteburuan Caceresen izango den Espainiako txapelketako kilometro bertikala, Euskal selekzioarekin.

Fitness eskaintzak probatzeko ate irekiak egingo dituzte

Zubikoan kiroldegian egin daitezkeen fitness saioak probatzeko ate irekiak egingo dituzte otsailaren 22an, 23an eta 24an. 17:15etik 20:15era, orduro, eskaintza ezberdin bat probatzeko aukera egongo da. Hauek dira eskaintzak: *kore stretch, fitbike, TRX, krossfit, body tono, body balanze, pilates eta zunba*. Egun bakoitzean lau saio egongo dira eta kiroldegian bertan galde dezake interesatuak zer, zein egunetan eta ordutan erakutsiko duten.

Plazak mugatuak dira eta beharrezkoa da probatzera joan aurretik izena ematea Zubikoan edo hango telefono zenbakira deituta: 943 71 63 75.

Uliako lehen lasterketa herrikoia irabazi du Ruizek

Gimnastica Uliako lehen lasterketa herrikoia irabazi du Mikel Ruiz oñatiarrak joan den domekan Donostian, hamar kilometroko proba. Eroso sentitzen da distantzia horretan oñatiarra eta martxoaren 13an Bilboko Etxebarrin egingo den krosean hartuko du parte. Donostiakoa, bere lehen garaipena izan da.

GORA ETA BEHERA



Hotz aldagelatik igerilekurako pasilloan

"Zain egon ondoren igerileku berri txukuna dugu, kuotaren igoera nabarmena zintzoki ordaindu dugu baina aldagelatik igerilekurako pasilloak Siberia dirudi. Zati horren berotze sistema berrikusi eta hobetzea eskatzen dugu erabiltzaileok", dio jasotako eskaerak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



Keia taldeak aurkeztu du lehen diskoa: 'Erregaia'

Ane Arruti zarauztarrak gidatutako taldeak musikari oñatiarrak ditu lagun; Iñigo Ibarrondo baxuan, Egoitz Olalde baterian eta Iker Martinez de Zuazo, gitarran. Astean aurkeztu dute lan luzea eta zapatuan emango dute lehen kontzertua gaztetxean

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Eguaztenean aurkeztu zuen Keia taldeak hamar abestiz osatutako diskoa. *Erregaia* izena jarri diote eta Zarauzko Ane Arruti gidariak, "esperientzia handiko" musikari oñatiarrak dauzka alboan. Besteak beste, Latzen, Potemkin, Sharon Stoner, Sor-kun, Zingira, Lenao edo Amonal taldeetan aritutako hauek: Egoitz Olalde, Iñigo Ibarrondo eta Iker Martinez de Zuazo.

Kantuen ezaugarriak

Oinarri erritmiko "indartsua" duten kantuak jaso dituzte diskoan, gitarren "presentzia handiarekin" batera. Rocka lantzen



Iñigo Ibarrondo, Egoitz Olalde, Ane Arruti eta Iker Martinez de Zuazo. IBAI ARRIETA

dute zentzu zabalean; kantuetan nabarmenak dira 90eko hamar-kadako rock alternatiboaren ukituak. Hamar kantuetatik zortzi, Arrutik idatzitakoak dira. Gainerako biak, Jon Garmendia *Txuriya*-k.

Entzungai dago plataforma digitaletan eta disko fisikoa *Keia*. bandcamp.com-en lor daiteke.

Lehen zuzenekoak, bihar

Oñatiko gaztetxean emango dute estreinako kontzertua bihar, zapatua, 22:00etan. Arrutik adierazi du "gogotsu" daudela eta Antixenakoek egiten duten lana eskertu du. Ginger taldea ere izango da oholtzan. Gainera, negurako bira ere prest dute; Zarautzen, Orion eta Getarian ere izango dira Keia taldekoak zuzenekoetan.

Gaur, kontzertuak gaztetxean

Zapatuan bakarrik ez, gaur ere izango dira bi emanaldi Antixen. Rocka eskainiko duen Pleura eta Uharteko Arakilgo Mendikoa taldeak igoko dira agertoki gainera, 22:00etan. Soldata dutenek bost euro ordaindu beharko dute sarrera eta ez dutenek, hiru.

Bandaren kontzertua barrutik biziko dute hamasei umek

Denboraldiko hirugarren kontzertua egingo du domekan Oñatiko Musika Bandak, Zubikoako frontoian. 11:00etako kalejiraren eta 13:00etako emanaldiaren artean banda barrutik ezagutzeko aukera izango dute musika eskolako ikasleek. "Musika tresna familia desberdinak ikusi; gertutik paseatu, ukitu... banda bat zer den barrutik ezagutzeko aukera izango dute", azaldu du Aitor Biain-Bidarte zuzendariak. Gainera, datorren urtean instrumentua aukeratu beharko duten hamasei umek banda "zero aulkitik" entzungo dute, bandan txertatuta joango baitira. Arantxa Iturriotz irakaslearentzat "aukera paregabea" da "musika horren bibrazioak gertuagotik sentitzeko modua" izatea.

Emanaldian pelikula ezagunetako abestiak interpretatuko dituzte eta publiko orokorrarentzat ere izango da. Emanaldia doan da, baina gonbidapenak eskuratu behar dira Txokolatexan edo musika eskolan.



DEBAGOIENEN GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.golena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerrera 30
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Hurrengo mugarrria da Bultza ligan esku hartzea

ERRUGBIA Domekan errugbi inklusiboko saioa egin zuten Mojategin. Helburua zen Bultza ligan jokatzeko duten Hernaniko eta Gaztediko taldeak bertatik bertara ikustea, Arrasateko taldekideak ere pausoa ematera animatu daitezzen

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeko lagunak badabilta kirol inklusiboaren aldeko lanean aurrerapausoak ematen. Duela bi urte pasatxo sortu zuten taldea, pandemia baino apur bat lehenago, baina koronabirusa ez da olatu hori geratzeko aitzakia izan. Egoerak hobera egin duen unean ostera ere entrenamendu saioak erre-kuperatu dituzte, eta aurrera jarraitzen dute. Hain zuzen ere, egiten dabilta lana herritarren aurrean erakusteko helburuarekin antolatuta zuten domekako lan-saioa, baina ez horretarako bakarrik, dagoeneko helburu zorrotzagoak dituztelako.

Errugbi inklusiboan bada entrenamenduetatik haragoko pausoa eman dutenak, Bultza Ligan hainbat taldek jokatzeko dute –Gaztedi, Hernani, Getxo eta Bilbo–, eta etorkizun hurbilean hor egon daitezkeen ikusi gura zuten arrasatearrek: "Gure buruari bi urteko epea jarri diogu hor egon ahal izateko, poliki-poliki joan nahi dugu", dio Belen Aranbarrik. Batetik, ARTko idazkaria da Aranbarri, baina bestetik, baita talde inklusiboko arduraduna ere: "Jende asko gaude taldean. Beteranoen inplikazioa daukagu proiektuan, horiek dinamizatzaile lana



Domekan, partiduaren aurretik egindako entrenamendu saioan. U.I.

egiten dute, baina eurekin batera gure seme-alabendako heziketa bereziaren aldeko apustua egin dugun guraso eta lagunak gaude, eta baita herritar arruntak ere. Eta mezu hori zabaldu gura dugu, hau da, domeka goizetan batzen garela Mojategin entrenamendu saioak egiteko, eta ateak zabal zabalik daudela edonorendako".

Entrenatu, eta jokatzera

Domekako lehenengo orduan egindako lan-saioan denek hartu zuten esku, talde gonbidatuek

–Gaztedikoe eta Hernanikoe– eta Arrasateko taldea osatzen dutenek. Entrenamendua egin zuten lehenengo, eta ondoren etorri zen Bultza Ligako txanda. Lagunarteko partidua jokatu zuten bi taldeetako ordezkariak, eta etxeko ordezkariaren batek lagunartekoan esku hartu bazuen ere, arrasatear gehienek nahiago izan zuten partidua harmailtan jarraitu, eta euren neurriko partiduak diren ala ez ikusi: "Gure mugei eta beldurrei aurre egiteko lan-saioa izan da, eta emankorra izan da".

"Gure mugak gaintzen gabiltza"


BELEN ARANBARRI ART-KO IDAZKARIA

Ze helburu izan du gaurko topaketak?

Errugbi inklusiboan egiten gabiltza lana erakutsi gura genuen, eta Bultza Ligan jokatzeko dabilta taldeen arteko partidu bat bertatik bertara ikusi.

Beldurrik uxatzeko?

Bai. Halakoetan beti jotzen dugu zaurgarrienak izan daitezkeenak babestera, baina horrelako ekintzekin erakutsi nahi dugu denok maila berean



UXUE IGARTZA

egon gaitzkeela errugbian, eta kirol jardura segurua dela. **Nortzuk osatzen duzue inklusiboko taldea?** Beteranoek, gaztetxoek gurasoek, desgaitasunen bat dutenek... Taldean ditugu down sindromea daukatenak, autistak, adimen kognitibo murriztagoa daukatenak... Baina ez dira besteak baino gutxiago. Hala, desgaitasun egoeran dagoen jokalaririk bat irakasle bihurtu daiteke.



Arrasatearrek, Hernanikoe emandako txapel eta oroigarriekin. U.I.

Oroigarria, 50. urteurrenagatik

Arrasate Rugby Taldeak 50 urte betetzen ditu aurten, eta urtean zehar hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Bada, Hernanikoe Arrasateko kluba zoriandu zuten, Ramon Barrutiak txapela eta oroigarria jaso zituen hernaniarren partetik.

Etxean dute hitzordua Aloña Mendik eta Leintz Arizmendik

FUTBOLA Oñatiarrek azken sailkatuaren bisita izango dute. Eibarren kontra jokatu dute Leintzekoek

X.U. ARRASATE

Ohorezko gizonezkoen erre-gional mailan Aloña Mendi (22 puntu) da etxean jokatu duen ordezkari bakarra. Oñatiarrek hiru partidu irabazi dituen Euskalduna (14) izango dute aurrean

domekan (16:30). Kanpoan jokatu dute gainontzeko ordezkariak dagokienez, Mondrak (33) Oiartzunen (22) zelaian jokatu du zapatuan (15:30), Añorgaren (21) kontra jokatu du Aretxabaletak (34) zapatuan

(16:30), eta Bergarak (28) Ordi-ziaren (22) kontra neurtuko ditu indarrak (16:00).

Liderraren kontra

Emakumezkoen ohorezko erre-gional mailan, berriz, laugarren dagoen Leintz Arizmendik (34) liderra hartuko du domekan Mojategin, Eibar (45). Hain zuzen, eibartarrek asteburuan galdu dute lehenengoz, Oiartzunek 0-1 irabazi die. Bergararrek (17), berriz, Tolosan (14) jokatu dute domekan (16:00).



Auritz Larrea. GOIENA

ESKUBALOIA Elgoibarren bisita izango du Fagor Profesionalek

Euskadiko Txapelketako igoera fasean kontrario zuzena den Elgoibarren bisita izango dute oñatiarrek bihar (18:00). Jaitsiera fasean lehian dabilen Mugarri Ingouk, berriz, Urdaibairen kantxan jokatu du bihar Bermeon (16:00). Horrekin batera, arrasatearrek otsailaren 25ean jokatu dute atzeratutako partidu (18:30, Iturripe).

30 urtetan maitasunari erpin askotatik idazten

Iñaki Serranok irabazi du Jardunen Amodiozko Gutunen eta Esaldien Lehiaketako sari nagusia; Leire Goñik jaso du bigarren saria, Zuriñe Etxeberriak gazteena eta Ainhoa Pardinak Bergarako saria; Naia Manchonena eta Nora Iturraldekena da, esaldi onena

Aitziber Aranburuzabala BERGARA
Euskarazko sorkuntza bultzatzeko Amodiozko Gutunen Lehiaketa abiatu zuen Jardun Euskara Elkarteak orain dela 30 urte; harrezkero, maitasunarekin lotutako idazlan asko jaso dituzte urtero. "69 gutun izan dira aurten; posta arruntaren bidez, lau besterik ez. Bitxia da, iaz moduan, 40 urtetatik gora idazten duten parte hartzaileen artean gizonezkoa dela nagusi eta 26 urte azpikoetan, berriz, emakumezkoak dira gehienak. Orokorrean, balorazio positiboa egiten dugu jasotako gutunen kopurua eta maila ikusita, baina faltan bota ditugu Arabakoak eta Iparraldekoak. Euskal Herri mailako ikuspegia dugunez, saiakera berezia egin beharko dugu datorren urtean herrialde guztietatik jasotzeko", dio Jarduneko Maitane Arizabaletak.

Orain dela sei urte abiatu zuten lehiaketaren bigarren adarrarekin –amodiozko esaldienare harrera ona izan dute. "Asko eta politak jaso ditugu aurten ere, eta epaimahai gazteak erabakita, Naia Manchon eta Nora Iturralde bergararrek asmatutako *Zerbait oparitu beharko banizu, nire begietatik zu zeu ikustea oparituko nizuke*, esaldiak jasoko du 100 eurotako saria".



Maialen Akizu, Josu Zubia eta Ekiñe Casado helduen epai-mahaikideak. JARDUN


Denetariko gaiak

Iaz pandemiarekin lotutakoak jaso zituzten gehienbat, baina aurten gai asko izan direla dio Ekiñe Casado epai-mahaikideak: "Oso gustura irakurri ditut denak, eta barrena mugitu didate hainbatek. Iñaki Serranorena, zuzena da, benetakoa, identifikatuta sentitu gara. Leire Goñirena laburra da, baina oso intentsua; eta Ainhoa Pardinak hil den amamari idatzitakoaren mezua asko gustatu zait".

Gazte zein helduen epai-mahaikideekin "pozik" daude antola-

tzaileak. "Aranzadi ikastolako Maren Unamuno eta Maddi Lazkano, eta Ipintza institutuko Alaine Egizabal eta June Arando izan dira, eta helduenean Ekiñe Casado musikariarekin batera, iazko irabazle Maialen Akizu, Josu Zubia kulturgilea eta Mikel Etxaburu idazlea. Oso eskertuta gaude guztiekin, denboraz eta txukun egin dute lan".

Sari-banaketa ekitaldirik ez
Jardun.eus eta *Goiena.eus* atarrietan izango dira astelehenean gutunak irakurgai eta entzungai.



ZURIÑE ETXEBERRIA

"la pentsatu barik atera ziren hitzak"

ZURIÑE ETXEBERRIA
GAZTE SARIAREN IRABAZLEA

Iruñean irakasle lanetan jarduten duen donostiarrak eskuratu du Gazteen saria.

Pozik sariarekin?

Sorpresa polita izan da. Bi gutun bidali nituen, biak oso bereziak niretzat, eta oso eskertuta nago.

Laster jaiko den umeak amari idatzi dio.

Amaren barruan dago eta handik idazten dio, laster elkar ezagutu eta elkar asko maitatuko dutela esaten dio. Idazteko prozesua erraza izan da, azkar eta gustura idatzi nuen. Sentimendu pila bat nituen barruan eta gehiegi pentsatu gabe joan ziren hitzak ateratzen.

Gustuko sariketa duzu?

Hirutan parte hartu dut eta oso gustuko dut. Kultura sustatzeaz gain, otsailaren 14an maitasunak forma eta kolore asko dituela gogoratzeko balio dezakeela iruditzen zait.



IÑAKI SERRANO

"Jardunen sariketan fidela naiz"

IÑAKI SERRANO
LEHENENGO SARIAREN IRABAZLEA

Urte asko daroa Bergarako lehiaketan parte hartzen Administrazio Publikoan lan egiten duen eibartarra.

Gustuko sariketa duzu, zergatik?

Garai baten asko idazten nuen, eta Bergarakoaren hastapenetan bi sari jaso nituen. Apenas idazten dut orain, baina fidela izan naiz urtero parte hartzen.

Ama batek 13 urteko alabari idatzitakoa da.

Euren harremana tentsioz beteta dago: errebeldia *versus* gurasoek eman beharreko hezkuntza. Ume zeneko garai goxoak gogoratzen dizkio, egindako sakrifizio guztiak -are eta gehiago bikote gabeko ama nuklear bezala- berak halako izaera independente eta aske bera baitzuen, orain dagokion rol arduratsua azaltzen du, alaba zenbat maite duen aitortzeko.

MADDI ARLANZON

MUSIKARIA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN
OTSAILAREN 15EAN, MARTITZENEAN, 18:00/20:00/22:00
AITZIBER ARANBURUZABALAREN 'AKORDEAK' TARTEAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Itziar Fragua aktorea eta Robero Castro *Boti* musikaria *Ganbara* ikuskizunaren une baten. LUIS ANTONIO BARAJAS.

Haurrentzako bi antzerki proposamen, zapatuan

Markeliñe konpainiak 'Ganbara' lana eskainiko du Amaia antzokian 17:00etan, eta Trokolo taldeak, berriz, 'Zurginaren ipuina' antzeztuko du Seminarixoan, 18:00etan; 'Arrasate.eus' eta 'Seminarixoa.eus' atarietan eta leihatilan eros daitezke sarrerak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

"Gure arbasoetatik edo sustraie-tatik jaso dugunetik egiten dugun bidaia moduko bat da *Ganbara* ikuskizuna; haurrentzako sortutakoa, baina helduon gozagarri ere badena", dio Markeliñe konpainiako zuzendari Jon Kepa Zumaldek, eta zera gaineratu du: "Baserri giroan kokatu gara, azkeneko urteetan bizimodu horrek izan duen aldaketa sakona aintzat hartuta. Hortik abiatuta, gure sustraiak nondik datozen eta sustrai horietan emakumeek izan duten garrantziaz hausnartzera bultzatu nahi ditugu ikusleak".

Arbasoen baserria saltzeko asmoa du protagonistak, eta halako baten ganbarara igoko da eta familiako oroimenak aurkituko ditu han. "Arbasoek lanerako eta beste zereginetarako erabiltzen zituzten askotariko elementuekin jolastuz, mugituz eta eraldatuz eszena ezberdinak sortuko ditu, ikusleak bere bidaiaren murgilduz horrela".

Musika zuzenean

Itziar Fragua da taularen gainean dagoen aktore bakarra, baina alboan izango du uneoro, Roberto Castro *Boti* musikaria. "Oso trebea da Fragua; gauza asko egiten ditu: abestu, askotariko elementuak manipulatu... Lan oso fisikoa da, eta nahiz eta aktore bakarra izan, ederto betetzen du oholtza. *Boti* ere sekulako artista da, eta instrumentu asko jotzen ditu: gitarra, harmonika, tronpeta, alboka, txirula... eta horrez gain, hainbat perkusio mota ere erakutsiko ditu, aktoreak erabiltzen dituen elementuei soinua aterata. Euskaraz da, nahiz eta aktoreak hitz gutxi egiten duen, baina oso bizia eta ikusgarria

**MARKELIÑEREN
'GANBARA' LANA ETA
TROKOLO TALDEAREN
'ZURGINAREN IPUINA'
BIHAR IKUSGAI**

da. Ikus-entzunezko proiektioekin ere jolasten dugu".

Bergaran, Trokolo taldea

Maiatzean Aretxabaletako Arkupe kultura etxean eskaini zuten *Zurginaren ipuina* egingo du Trokolo taldeak Bergarako Seminarixoan bihar, zapatua, 18:00etan hasita. Iban Barrene-teak idatzi eta ilustratutako antzezlanaren Isabel Aisak zuzendu du eta Sergio de Andres eta Ramon Marco aktoreak izango dira taularen gainean. Firmin zurgina da istorioko protagonista. "Berak egiten dituen mahaia eta bestelako altzariak bereziak dira, eta dantza eta kanta egiteko gai dira haren jostailuak. Barrene-tearen istorioak duen umorea eta ironiak harrapatu egin gintuen. Hori horrela, antzezen komikoekin, *atrezzo* ederrekin eta ikus-entzunezko proiektioekin eskainiko dugu, bereziki, hiru eta hamar urte bitarteko haurrentzako aproposa den lana", diote taldekoek.

Goienakideen txokoa

OTSAILEKO SARIAK

Bost agenda

'Ilargia eta landareak' agendak zozketatuko ditugu

Parte hartzeko sariaren izena: Agenda



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
OHAIKO BAK

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harramandenda.org
Bidezko Merkataritza Lanketa Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" ([bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia)

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazten dugun 1390 07/999 igarapen ezberri, irabazten dugu sari datu pertsonari Goiena konpainiako lehiatzaile bati. Irabazten dugun saria irabazten dugun bakoitzaren irabazten dugun sariaren %100a da. Irabazten dugun saria irabazten dugun bakoitzaren irabazten dugun sariaren %100a da. Irabazten dugun saria irabazten dugun bakoitzaren irabazten dugun sariaren %100a da.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: otsailak 15

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE | Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 60€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 11 JUNCAI: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Zapatua, 12 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Domeka, 13 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Astelehena, 14 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 15 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 16 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguena, 17 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 11 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 12 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 13 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 14 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 15 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 16 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 17 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 11 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 12 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 13 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 14 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 15 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 17 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022ko abuztuaren 15era arte:
ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias
kalea 1 / 943 79 15 15

EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2022 osoan:
URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4
/ 943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

HILDAKOAK

Joaquin Garcia Izquierdo.
Arrasaten, otsailaren 1ean.
86 urte.

Justo Agirre Aretxaga.
Bergaran, otsailaren 2an.
86 urte.

Miren Bidaburu Heriz.
Arrasaten, otsailaren 3an.
90 urte.

Conchita Zubia Leibar.
Oñatin, otsailaren 4an.
90 urte.

Isabel Ozaeta Urizar.
Arrasaten, otsailaren 5ean.
93 urte.

Jesus Beitia Zabala.
Leintz Gatzagan, otsailaren 5ean. 79 urte.

Bixente Urzelai Bikuña.
Oñatin, otsailaren 5ean.
73 urte.

Jose Mugarza Larrañaga.
Oñatin, otsailaren 6an.
94 urte.

Vicente Enkotegi Ruiz de Azua.
Eskoriatzan, otsailaren 7an.
72 urte.

Jose Antonio Larrea Zubia.
Oñatin, otsailaren 7an.
80 urte.

Alfonso Berrocal Madruga.
Aretxabaletan, otsailaren 8an.
83 urte.

Tomas Txinturreta Etxebarriarteun.
Arrasaten, otsailaren 8an.
83 urte.

Iñaki Berasaluze Izurrategi.
Arrasaten, otsailaren 8an.
76 urte.

Jabier Gabilondo Gorosabel.
Bergaran, otsailaren 8an.
79 urte.

Joxean Aranburuzabala Etxagibel.
Arrasaten, otsailaren 9an.
67 urte.

Angelines Madina Aranburu.
Arrasaten, otsailaren 9an.
83 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 186 € / Goiena Klubeko bazkideendako 166 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 165 € / Goiena Klubeko bazkideendako 145 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.


ESKER ONA

Miren Bidaburu Heriz 
Luciano Jauregiren alarguna
2022ko otsailaren 3an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko otsailaren 11n.

ESKER ONA

 **Justo Agirre Aretxaga** 
Beatriz Biziolaren alarguna
2022ko otsailaren 2an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko otsailaren 11n.

ESKER ONA

 **Vicente Enkotegi Ruiz de Azua** 
Secundina Hornoren alarguna
2022ko otsailaren 7an hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Hondarribin-Eskoriatzan, 2022ko otsailaren 11n.

URTEURRENA

 **Eder Pagaldai Perea** 
2020ko otsailaren 14an hil zen, 29 urte zituela.

Bigarren urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 13an, 11:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

*Zu zara gure bizipoza, Eder.
Izarretan elkartuko gara.
Maite zaitugu.*

Zure familia.

Elizkizunetara joango zareteno eskerrrik asko, sendikoien izenean.
Eskoriatzan, 2022ko otsailaren 11n.

URTEURRENA

 **Tomasita Ugalde Olalde** 
Felipe Alcelayren alarguna
2021eko otsailaren 17an hil zen, 92 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunera joango zareteno eskerrrik asko, senideen izenean.
Bergaran, 2022ko otsailaren 11n.

URTEURRENA


 **Joxe Migel Lazkano Oruesagasti** 
2020ko otsailaren 8an hil zen, 81 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, otsailaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

*"eta oherakoan
zuk erakutsi bezala
gauero ixten ditut
paradisuko atreak"*

Urte hauetan inguruan egon zareteno, eskerrrik asko familiaren izenean.
Bergaran, 2022ko otsailaren 11n.

OROIGARRIA

Angelines Madina Aranburu 
2022ko otsailaren 9an hil zen, 83 urte zituela.

Amamita maitia, goxo-goxo geratzen gara zure irrifarraren distirarekin.

Martxel, Lia, Ander, Aitzol, Alaitz eta Jakes.
Arrasaten, 2022ko otsailaren 11n.

 **Oroilore**  **BASESLEA**

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrrik beroenak gugan izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Bedoñan, kantuan**

Arrasateko Bedoñako auzotarrak Santa Ageda eskean ibili ziren aurreko zapatuan. Etxerik etxe batutako janaria Bergarako Elikagaien Bankura eramango dute.

4. Agate Deunari kantuan

Gabonetako auzo erronda bertan behera geratu ostean, Angiozarko bizilagunak kalera irten ziren Agate Deunaren omenez. Auzoko hainbat txokotan ibili ziren koplakantari.

2. Santa Ageda kantuan

"Kurtzebarri eskolatik gatoz zuen atea jotzera, negura urrun bidean doa, goaz lurra esnatzera" abestu zuten Aretxabaletako Kurtzebarriko ikasleek eta irakasleek.

5. Lurrari, esnatzeko deia

Aretxabaletako Arizmendiko Basabeazpi eta Almeneko ikasleak eskean ibili ziren aurreko barikuan. Neguari agur esan eta udaberriari ongietorria emateko, makilekin lurra jo zuten.

3. Ludoteka ibiltaria

Hainbat gazterekin hasi zuen Txatxilipurdik aurtengo erronda. Lehen zapatuetan, Musakolako gazte txokoan egingo dituzte ekintzak.

6. Kinttaden Eguna

Hori ere tradizio bihurtu da Eskoriatzan: hamargarrena egin zuten aurreko zapatuan. Urte berean jaiotako herritarrek bat egin zuten mahaiaren bueltan.



ZORION AGURRAK



OTXANDIO
Bidatz eta Haizea Larragoiti Ibahe
Otsailaren 17an, 17 urte. Zorionak, Haizea eta Bidatz. Ederto ospatu urteguna. Mosu handi bana!




ARRASATE
Aiur Da Costa
Otsailaren 16an, 2 urte. Zorionak, maitia! Segi horren zoriontsu izaten! Maite zaitugu!



ARRASATE
Aines Lete Gardoki
Otsailaren 16an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat familia osoaren partetik!



BERGARA
Elene Txurruka Jauregi
Otsailaren 15ean, 7 urte. Zorionak, Elene! Patxo handi-handi asko danon partetik!



ARETXABALETAK
Xabat Cruz Aranzabal
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak, Pixpirri! Muxu pottolo bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Xabi Mendizabal Osinalde
Otsailaren 13an, 2 urte. Zorionak, Xabi! Ondo ospatu zure urtebetetzea! Muxu handi bat familia osoaren partetik.



ARETXABALETAK
Malen Gartziaetxabe eta Nerea Olmedo
Nereak, otsailaren 12an, 40 urte eta Malenek otsailak 14an, 10 urte. Zorionak, bikote, etxeko danen partetik.



ARETXABALETAK
Manex Arriaran Oiangueren
Otsailaren 12an, 12 urte. Zorionak, Manex! Etxeko txikixa handi ein da! Ondo pasatu eta asko disfrutatu zure eguna!



BERGARA
Libe Garitaonandia Igartua
Otsailaren 10ean, urtebete. Zorionak, politx hori! Urtetxo bat! Ondo ospatu eguna. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETAK
Haizea Azkarate Bilbao
Otsailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, Haizea! Ederto pasatu zeure eguna! Zortzi tirakada, besarkada estu bat eta patxo pila bat danon partetik!




OÑATI
Elene Aramendi Fuente
Otsailaren 10ean, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko danen partetik.



BERGARA
Noa Revilla Urrutia
Otsailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, Noa! Zortzi urte jada. Ondo-ondo ospatu zure eguna. Besarkada eta muxu pilo bat, etxeko guztion partetik.




ARRASATE
Malen Zugasti Larrañaga
Otsailaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Malen! Oso ondo pasatu zure eguna. Besarkada bat familiako danen partetik.




ESKORRIATZA
Jon Agirre
Otsailaren 10ean, 41 urte. Zorionak, aitatxo! Oso ondo pasatu eguna! Patxo pottolo asko Ibonen, Josuren eta amatxoren partetik. Asko asko maitte zaitugu.



BERGARA
Jon Aranzabal Elkorobereziabar
Otsailaren 8an, Jonek zazpi urte. Zorionak! Patxo handi bat amama eta aititen, osaba-izeben eta lehengusuen partetik.



ARRASATE
Garazi Bragado Alvarez
Otsailaren 7an, 8 urte. Zorionak, pirata! Segi orain arte bezain zoriontsu eta alaia izaten. Etxekook asko maite zaitugu! Muxu erraldoi bat!



ARRASATE
Ibai Marzana Elkoro
Otsailaren 7an, 9 urte. Zorionak, Ibai! Jarraitu zaren bezelako jator eta alaia izaten. Asko maite zaitugu! Besarkada eta patxo handi bat etxeko danen partetik.



OÑATI
Markel Gorosmendi Urrutia
Otsailaren 6an, 3 urte. Zorionak, politx hori! Primeran ospatu zure eguna eta ondo-ondo pasatu, Markel! Patxo handi bat, etxeko danen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa


Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitze Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo asteen argitaratuko ditugu.



OÑATI
Nahia Enciso Elkoroiribe
Otsailaren 4an, 10 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu potolo handi bat etxeko danen partetik. Mua!



ARRASATE
Aloña Garitaonandia
Otsailaren 11n, 46 urte. Zorionak, Aloña!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



TROKOL

BERGARA 'Zurginaren ipuina' antzezlan

Trokolo Teatroren eskutik. Egurrez egindako elementuak ilustrazioekin bateratzen dituzte oholza gainean, Ramon Marco Alfarok eta Sergio de Andres Mutilvak. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapata, Amaia antzokian, 18:00etan.



PANTA RHEI

ESKORIATZA 'Noa uy uy uy' antzezlan

Panta Rhei taldearen eskutik, 2-6 urte arteko umeendako. Noak aiton-amonei bisita egiten dienean, haiek beste modu batera ikusiko dute mundua, bilobaren begietatik. Sarrerak, hiru euro.
Etzi, domeka, Zaldibar antzokian, 17:00etan.

EGUBAKOITZA 11

ELGETA Ipuin kontaketa tailerra: izena emateko azken eguna
Otsailaren 16an eta 23an, eta martxoaren 2an eta 9an Amaia Elizagoienek egingo du tailerra. Izenak, liburutegian.
Liburutegian, 10:00etan.

OÑATI Ate irekiak Natur Eskolan
Eraikinean egindako hobekuntzak ezagutzeko aukera, 16:00etatik 18:00etara; eta, 17:00etan, bisita gidatua.
Natur Eskolan.

ESKORIATZA Karaokea
Euskal kantak abestuko dituzte 5 urtetik gorako umeek.
Ludotekan, 17:00etan.

ARRASATE Ipuin kontaketa, Izaskun Mujikarekin
5 urtetik gorakoendako. Aurrez eman behar zen izena.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Pleura eta Mendikoa taldeak
Biek ala biek beraien azken diskoak estreinatuko dituzte. Sarrerak: soldatadunek bost euro eta gabeek hiru euro.
Antixenan, 22:00etan.

BERGARA Debeku eta Golden Blend taldeak
Torturaren Aurkako Egunaren harira.
Gaztetxean, 22:30ean.

ZAPATUA 12

ELGETA Mintzalagunen irteera
Ollerias museora egingo dute bisita, eta han bazkalduko dute.
Mendizaleen plazan, 11:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria, Musakolan
3-12 urte artekoendako, bi hezitzaileen laguntzarekin.
Musakolako gazte txokoa, 11:30ean.

BERGARA Bisita gidatua Oxirondon
Hango historiaren, ondarearen eta hainbat bitxikerien ingurukoak kontatuko ditu Ugutz Basaurik, 90 minutuko bisitan, euskaraz. Izena emateko (hamar euro pertsonako) 695 75 34 30.
Oxirondon, 12:00etan.

ARRASATE 'Ganbara' antzezlan, umeendako
Markeliñeren ikuskizunean, musika eta keinuak, emozioak komunikatzeko tresna bihurtzen dira. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

BERGARA 'Zurginaren ipuina' antzezlan, umeendako
Trokolo Teatroren eskutik. Egurrez egindako elementu apaingarriak ilustrazioekin bateratzen dituzte oholza gainean Ramon Marco Alfarok eta Sergio de Andres Mutilvak. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

BERGARA Kaleko Urdangak, Screammers And Sinners, Dinamita eta Odolkiak Ordainetan taldeak
Sarrerak, zortzi euro.
Kartzela Zaharrea, 18:00etan.

OÑATI Keia eta Ginger taldeak
Sarrerak: bost euro soldatadunak eta hiru euro gabeak.
Antixenan, 22:00etan.

DOMEKA 13

OÑATI Ludoteka ibiltaria
Zirku eta malabar tailerrak egingo dituzte 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoendako. Irekia.
Foruen plazan, 10:30ean.

BERGARA Bisita gidatua Oxirondon
Hango historiaren, ondarearen eta hainbat bitxikerien ingurukoak kontatuko ditu Ugutz Basaurik, 90 minutuko bisitan, euskaraz. Izena emateko (hamar euro pertsonako) 695 75 34 30.
Oxirondon, 12:00etan.

OÑATI Musika bandaren kontzertua
Zinemaldia delako emanaldia. Debalde, gonbidapenarekin.
Zubikoa pilotalekuan, 13:00etan.

ARRASATE Torturaren aurkako mobilizazioa
111 tortura kasu Arrasaten leloarekin egingo dute.
Herriko Plazan, 13:00etan.

OÑATI Are irekiak Natur Eskolan
Eraikinean egindako hobekuntzak ezagutzeko aukera, 16:00etatik 18:00etara; eta, 17:00etan, bisita gidatua.
Natur Eskolan.

ESKORIATZA 'Noa uy uy uy' antzezlan
Panta Rhei taldearen eskutik, 2-6 urte artekoendako. Noak aiton-amonei bisita egiten dienean, haiek beste modu batera ikusiko dute mundua, bilobaren begietatik. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'
Aisialdiaz eta jolasaz gozatzeko txokoa, 0-8 urte artekoendako.
Okendoko Ludotekan, 17:30ean.

BERGARA 'ETAren agiri bulegoa' antzezlan
Gilkitxaro taldearen eskutik, Ane Zabala eta Galder Perez aktoreekin. Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrea, 18:00etan.

ESKORIATZA Santa Ageda neska-mutilen dantzak
2003 eta 2004. urteetan jaiotakoek egingo dute dantza.
Eduardo Gorosari plazan, 19:00etan.

ARETXABAETA Santa Ageda neska-mutilen dantzak
2003an jaiotako kintoen dantza saioa.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ASTELEHENA 14

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Ostegun Kontalariak: gonbidapen banaketa
Ixabel Agirresarobe eta Mattin ilustratzailek hilaren 24an egingo duten saiorako. 6 urtetik gorakoendako.
Udal liburutegian, 16:30ean.

OÑATI 'Arrantza Euskal Herrian' hitzaldia
Juan Antonio Apraiz bermeotarrak egingo du berba, Pake Lekuk gonbidatuta.
Pake Lekun, 17:30ean.

OÑATI Korrika batzordea: bilera deia
Herrian egingo direnak ezagutarazteko, eta lanak



AZKEN BERBA

ANE ZUAZUBISKAR

Hil

Gehienetan goizegi, eta askotan gaizki. Baina joan egiten zaizkigu gertukoak. Estatistika laburrari begiratuta, errazago hunkitzen naiz elizan izaten diren hiletetan. Elizara hiletetarako soilik hurbiltzeak zerikusia izango du, baina badakit ez dela hori bakarrik.

Hiletetan, leku epela, leku itxia, akustika onekoa, eserita egoteko aulki luzekoa, aterpe eta guztikoa, eta dotorea da eliza. Oraingo, ez zait egokitu hileta zibiletan elizen pareko lekurik. (Ohitura falta ere igartzen zaigu, dena esatera, ez baitugu beti asmatzen erriuari dagokion kadentzia ematen. Motz gelditzen gara batzuetan, edo dantzatik katurako tartea gehiegi luzatzen dugu). Arrasaten aterperik gabeko haize-lekua tokatu zait, propio prestatu gabea, soinu aldetik ez bereziki egokia. Gertukoak gozo eta solemnitateraz agurtu nahi, eta egurrezko aulki erdi-puskatuak eta bozgorailu ito bat aurkitu.

Ea, ez dut hileta elizkizunen aldeko aldarririk egin nahi, aukeran, hustu eta kulturagune bihurtutako elizak gustatzen baitzaizkit. Elizatik gero eta urrunago daude heriotzatik gero eta gertuago dauden belaunaldiak.

Hil. Ez da hitz eroso. Baina fede gabeok ere behar dugu solemnitateraz apur bat. Eta egongo ez garenerako leku gozo bat, agurtu gaitzaten.

GOIENA OKM GIDA

"Ikaslearen frustrazioa gure egiten dugu"

AIDA MERINO IKASIZ ZENTROKO ARDURADUNA

Nahiz eta askotan lan gogorra dela aitortu, duela zortzi urte eskolak ematen hasi zenetik aretxabaletar gazte askori lagundu die matematika edo ingelesa gainditzeko.

Jone Olabarria ARETXABALETA

Ikasten bukatu eta garai txarrak zirela-eta, bere kontura jarri zuen negozioa Aida Merinok. Hutsune bat igarri zuen herrian, eta aretxabaletar txikitxoenei laguntzen die eskola kontuetan, duela zortzi urtetik.

Formazioz, irakaslea zara?

Gizarte Hezkuntza ikasi nuen lehenengo, eta ostean Haur Hezkuntza. Betidanik argi nuen ume edo gazteekin harremanetan nahi nuela lana egin.

Zer da lan honen onena?

Ikasleak hona datozenetik nolako bilakaera duten ikustea. Asko oso gazte hasten dira gurekin eta ikusten dituzunean unibertsitatean, edo adibidez, orain kinto moduan dantzaten, izugarritzko poztasuna da guretzat.

Eta kontrara, okerrena?

Ikaslearen frustrazioa askotan zure egiten duzu. Batez ere, saiatu arren, helburuak lortzen ez dituztenean.

Matematikak oso gorrotatuak izan dira, baina zertan igartzen duzue gabezia handiena?

Hizkuntzetan. Zailtasunak dituzte hizkuntza barneratu eta ulertzeko. Horrek, azken baten, beste irakasgai denetan ere era-



Aida Merino, Ikasiz zentroko arduraduna Mitarte kaleko lokalean. M.A.

Ikasleak, gezurti galantak!

"Batez ere Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailakoekin gertatzen zaigu. Galdetzen diegunean zer moduz dabilzan, dena oso ondo doala esaten digute, etxeko lanik ez dutela, azterketarik ere ez dute izaten normalean..., baina gero sorpresak iristen dira. Notekin iristen dira malkoak: 'Gezurak gutxi irauko dizue, lehenago edo beranduago enteratuko naiz, baita zuen gurasoak ere' esaten diet beti".

giten du. Esaterako, matematiketan ez baduzu ulertzen buruketak dioena, nahiz eta eragiketa egiten jakin, ezingo duzu buruketa egin.

Txikitxoak bai, baina batez ere DBH eta Batxilergoko ikasleak dituzu... Zer moduz nerabeekin?

Ba, egia esan, oso ondo. Ez gaituzte eskolako irakasle bezala hartzen. Askotan esaten diet galdetzeko beldur barik, klaseko zailtasun guztiak hemen argitzeko. Oso giro ona sortzen da nerabeekin.

Eta irakasleekin? Batzuei ez zaie gustatzen akademiako azalpena eramatea ikasleek...

Denetik dago, batzuk ez dute nahi izaten. Baina esango nuke asko aldatu dela kontua. Orain eskolatan ere harremana estua-goa da eta orokorrean irakasleak elkarlanean aritzeko prest daude.

Azkar antzematen dira ikasle alperak klaseetan?

[Barre] Hasiera-hasieratik harapatzen ditugu. Erraz antzematen da zein saiatzen den eta zailtasunak dituen benetan, edo zeinek ez duen kolpe zorrik jotzeko gogorik.

Aretxabaleta bezalako herri batean, ume guztiak kontrolpean izango dituzu dagoeneko...

Hemen ondo funtzionatzen du kalean kontaktzen denak. Hainbeste urteren ostean ikasleekin eta haurrekin, jende asko ezagutzen dut eta ezagutzen naute beraiek ere. Zentroko kontaktua, edo nire telefonoa Aretxabaleta erdik izango du [barre].

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

GOIENA TELEBISTAK
10.000 IKUSLE EGUNERO.
ESKERRIK ASKO!

Iturria: CES, 2021 (Gipuzkoari dagokion datuak)

goiena
Zu hemen zaude.